Zu hemen zaude.
goiena
2018-04-13 EGUBAKOITZA / 767. ZENBAKIA / 18. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS

OLINPIAR JOKOAK HELBURU

Bi urte barru Tokion jokatuko diren Olinpiar Jokoetan kirol eskaladan lehiatzea da Mikel Linazisoro bergararraren helburua / 38

Mikel Linazisoro, Bergaran, Santa Marina parrokiako ateetako baten ondoan, paretan gora.

XABIER URZELAI

Birziklatze tasak behera egin du ibarrean

Gipuzkoan gora egin du; edozelan ere, hondakinak gehien sailkatzen dituen eskualdea da Debagoiena, alde handiarekin / 2

Urkulu eta Jaturabe urtegiek eta Deba ibaiak gainezka egin dute aste euritsuaren ondorioz / 7

Pedro Jauregi Leibar Aretxabaletako lehen alkate abertzalearen gaineko liburuaren aurkezpena zapatuan / 21

Eguraldi ona iragarri dute domekarako, Arrasate-Udalatx lasterketan lokatzari aurre egiteko / 39

SINADURAK

XABI IGOA / **19**

IRATI ITZIAR / **8**

ESTEBAN IRUSTA / **35**

JOSU ZUGASTI / **12**

ANDER ETXEBERRIA / **48**

+ Nagusilan elkarteko boluntarioen lana

Josebe Iturriozekin, haurdunaldi subrogatuaz

Birziklatze tasa: behera ibarrean; gora Gipuzkoan

Debagoienaren kasuan, urritik abendura bitartean izan zen birziklatze tasa baxuena; zerbitzuaren kudeatzaile aldaketa eta langileen protestak izan ziren hilabete horietan. Bestalde, Gipuzkoako Diputazioa "baikor" da lurraldeko datu orokorrekin

Iker Oñate DEBAGOIENA

Gaikako bilketak 2017an emanikoa jakinarazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Eta, orokorrean, "pozik" da birziklatze tasaren bilakaerarekin. Hain zuzen ere, gaur-gaurkoz, %48,8koa da Gipuzkoako birziklatze tasa –%50ekoa da Europak 2020. urterako zehaztutako indizea–.

Gauzak horrela, Jose Ignacio Asensio, Gipuzkoako Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako diputatua, "baikor" da bilakaerarekin: "Europak 2020rako finkatua duen helburutik urrats batera dago Gipuzkoa. Horrela segituz gero, laster lortuko dugu helburua".

Erabilitako papera edukiontzi urdinean sartzen. ANDONI BODES

Dena den, "hobetu beharreko" zenbait datu aipatu ditu Asensiok: Debagoienean eta Urola Kostan behera egin dute birziklatze tasek. Zehatz esanda, 2016an %79,64koa zen birziklatze tasa Debagoienean; eta 2017an, %78,7koa. Ia puntu bat egin du behera, beraz. Dena den, ibarreko datuak "onak" izaten segitzen dute, Asensioren ustetan: "Jaitsi arren, pozteko moduko datuak izaten jarraitzen dute Debagoienean. Gipuzkoa osoko onenak dira".

Zerbitzu kudeatzaile aldaketa

Hori jakinda, datuak aztertzen jarriak dira Mankomunitateko arduradunak. Eta bilakaera indizea ikusita, hondakinen bilketa zerbitzuaren kudeatzaile aldaketa dute erdigunean. Tartean, zabor biltzaileek protesta egin zuten urrian, aurreikusirik zeuden zenbait kaleratzeren eta lanaldi murrizketen kontra.

"Urritik abendura bitartean izan zen jaitsiera esanguratsuena. Zerbitzuaren kudeaketa aldaketa eta langileen protestak izan ziren hilabete haietan", azaldu du Lander Arregik, Mankomunitateko Hondakinen Kudeaketa Batzordeko presidenteak. Eta gaineratu du datuak ezagutu aurretik ez zutela beherakadarik aurreikusita.

Hondakin gehiago sortu

Bestetik, biztanleriak sortzen duen hondakin kopuruari ere egin dio erreferentzia Gipuzkoako Foru Aldundiak. Gora egin baitu Gipuzkoako biztanleek sortutako hondakin kopuruak. "Ekonomiaren eta kontsumoaren bilakaerak zeresana du horretan", azaldu du Asensiok. Zehatz esanda, aurreko urtean baino 2.300 tona hondakin gehiago sortu ziren 2017an. Beste era batera esanda: gipuzkoar bakoitzak 440,3 kilo hondakin sortu zituen iaz, batez beste –bi kilo igo zen 2016ko datua–. Eta Asensiok zehaztu duenez, gaika bildu zen %53.

Bestalde, hainbat erronka finkatu dira aurrera begira. Birziklatze tasa igotzearekin batera, ontzien –%62,81– eta bio-hondakinen –%40,09– bilketa haztea. Hain zuzen ere, %7ko igoera lortu gura dute ontzien kasuan eta %10ekoa bio-hondakinenean.

Aizkorri-Aratz natur parkea ezagutzen

Azken urteetako ohiturari jarraiki, Aizkorri-Aratz natur parkea ezagutarazteko mendi irteerak egingo dituzte. Hala, sei hitzordu finkatu dituzte urrira bitartean: abuztuan salbu, irteera bat izango da hilero. Eta domekan egingo dute lehena, Biozkorniara

Parte hartzaileak mendian gora. ARANTZAZU PARKETXEA

Iker Oñate OÑATI

Aizkorri-Aratz natur parkeko txokoak ezagutarazteko xedez, Arantzazuko mendi-irteerak egingo dituzte aurten ere. Hain zuzen. domekarako antolatu dute ekintza sortako lehenengo hitzordua: Biozkorniarako bidea egingo dute parte hartzaileek. Horren ostean, bost irteera gehiago izango dira gozagai – abuztuan salbu, hileko mendi irteera bat–.

Oro har, irteera bakoitzaren aurretik eskaintzen dira horren inguruko xehetasunak. Eta dagoeneko jakinarazi dute asteburuko irteeraren ingurukorik: 09:00etarako finkatu dute irteera ordua, Arantzazuko Parketxean bertan. Ekinbidearen bultzatzaileek azaldu dute publiko orokorrarendako egindako ibilbidea dela eta lau ordu pasa iraungo duela.

Hori horrela, domekako irteerak badu ezer irakasteko helbururik ere. "Natur parkeko ezaugarri karstikoak ezagutuko dituzte parte hartzaileek. Horri buruzko azalpenak jasoko dituzte ibilbidean zehar", argitu dute Arantzazuko Parketxeko ordezkariek.

Eta bide beretik segituko dute osteko ibilaldietan ere –irakasgai bat dagokio horietako bakoitzari–. Besteak beste, Degurixa, Aloña, Kortakoagain eta Bellotza ezagutzeko aukera izango da hurrengo hitzorduetan. Artzaintzaren bueltakoak, kontrabandisten bideak edota arkeologiari loturikoak ezagutzeko aukera izango dute.

Izen ematea

Izena aurrez ematea gomendatzen dute egitasmoaren bultzatzaileek: telefonoz –943 78 28 94 edo 699 33 51 83– zein posta elektronikora idatziz –*zeinarantzazu@gipuzkoamendizmendi.net*– eman daiteke izena. 3 euro ordaindu beharko ditu parte hartzaile bakoitzak.

Altsasuko auziaren kontrako manifestaziorako autobusak

Altsasuko gazteei babesa adierazteko, manifestazioa egingo dute zapatuan, 17:30ean hasita, Iruñean

I.O. DEBAGOIENA

Datorren astean hasiko da Altsasuko gazteen kontrako ahozko epaiketa –apirilaren 16tik 27ra bitartean egingo dute–. Hala, manifestazioa deitu du auziaren "bidegabekeriari planto egiteko". Zapatuan egingo dute protesta, Iruñean, 17:30ean hasita –Golem zinema aretoan hasiko dute ekintza–. Autobusak antolatu dituzte ibarrean.

Besteak beste, hiru auzipetuk kartzelan daroaten denbora –urte eta erdi– ekarri dute gogora Altsasuko auziko gurasoek: "Izugarrikeria onartezina da gutxieneko printzipio demokratikoak dituen pertsona ororentzat".

Bestetik, ibarrean autobusak antolatu dituzte protestara joateko, goizean eta arratsaldean. Goizekoak 10:00etan irtengo dira Oñatitik, Arrasatetik eta Aretxabaletatik. Eta horietako zenbait Bergarara joango dira ostean. Arratsaldeko autobusak, berriz, 15:00etan du irteera ordua Oñatin eta Arrasaten; eta, 15:30ean, Bergaran. Autobusak bete bitartean, izena emateko aukera egongo da ohiko lekuetan.

"Egoera onean iritsi gara urteurren borobilera"

JOSUNE IRAZABAL IKASLAN-EKO PRESIDENTEA

Aurten 25 urte betetzen ditu Ikaslanek, eta Irazabalek dio bi erronka nagusi dituztela: gazteek Lanbide Heziketaren aldeko apustua egitea eta estereotipoak haustea

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

2017ko ekaina ezkero, Ikaslaneko presidentea da Irazabal (Gipuzkoako Lanbide Heziketako Institutu Publikoen Elkartea). Miguel Altuna Institutuko zuzendaria ere bada.

Ikaslanek 25 urte bete ditu. Zein egoeratan iritsi da elkartea urteurren borobil honetara?

Etapa berri honetara egoera osasuntsuan iristen garela esango nuke. Izan ere, Lanbide Heziketa eraldaketa prozesu batean dago. 25 ikastetxe gaude, esparru ezberdinetakoak, gainera. 20 familia profesional ezberdin biltzen ditugu eta alde horretatik, egoera onean gaude.

Beraz, hasierako helburuak bete dira, orain arte, behintzat?

Hastapenean garai haietako arazo jakin batzuei aurre egitea zen helburua, Eusko Jaurlaritzak kendutako diru-laguntzei aurre egiteko sortu zen Ikaslan. Hain zuzen, arazoen aurrean elkarlanean aritzeko helburuarekin. Ikastetxe publikoak izanda, ezin dugu ikastetxeen elkartea osatu. Berez, ikastetxe publikoen zuzendarien elkartea da Ikaslan. Unean uneko erronkei erantzuna emanez bilakatu da.

Gaur egun, 25 ikastetxe batzen ditu elkarteak eta sortu zenean hamalau ziren. Hor ere gorakada izan da.

Josune Irazabal, Miguel Altuna institutuaren kanpoaldean. MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

"PENTSATU BEHAR DUGUNA DA ZER GUSTATZEN ZAIGUN, ESTEREOTIPOEN AURKA JOAN ARREN"

Uste dut gizarte honetan indarrak batzea eta elkarlanean aritzea beti dela onuragarria. Hasierako 14 ikastetxe horiek handienak ziren, historikoki Lanbide Heziketan soilik jardun dutenak. Gero ikusi da Lanbide Heziketako zentro ezberdinak daudela eta guztiak direla garrantzitsuak. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta hori aberasgarria da denontzat. Arazo bat, zalantza bat edo proiektu bat daukazunean, partekatzea beti datorkizu ondo.

Profil ezberdinetako ikastetxeak dituzue. Aukera zabala.

Bai. Gipuzkoa osoan banatuta gaude, eta eskaintza zabala dugu. Lanbide Heziketa industrialeko heziketa zikloetatik hasi eta nekazaritza, ile-apainketa, osasuna eta beste zenbait arlo batzen ditugu. Gure ezaugarri nagusi tariko bat gure gertutasuna da. Herri bakoitzak eta enpresa bakoitzak Ikaslaneko ikastetxe bat du oso gertu. Asko izateak eta lurraldean ondo banatuta egoteak gertutasuna ematen digu, eta hori balio erantsi garrantzitsua da guretzat.

Geroz eta ikasle gehiagok ematen dute izena Lanbide Heziketan?

Egia da azken urteetan matrikulazioek gora egin dutela, baina gorakada hori ondo aztertu behar da. Krisi egoera batetik gatoz, eta horren eraginez lan merkatutik kanpo geratutako jende asko berriro ikastetxeetara bueltatu da. Hala ere, oraindik jende gazteak joera handiagoa du unibertsitatera joateko, eta erronka handia dugu hor. Nabarmendu nahi dugu Lanbide Heziketa aukera bat gehiago dela eta ez dituela unibertsitateko ateak ixten.

Zein da emakumeen egoera Lanbide Heziketan?

Hori beste erronka garrantzitsu bat da guretzat. Estereotipoak mantentzen dira, ziklo teknikoetan gizonezkoak dira nagusi eta zerbitzuetan emakumezkoak. Generoak alde batera lagata pertsonak gara, eta pentsatu behar duguna da benetan zer gustatzen zaigun, estereotipoen aurka joan arren. Mezua zabaltzen saiatzen garen arren, ikusten dugu oraindik bide luzea daukagula egiteko arlo honetan.

Miguel Altuna Institutuko eraikin berriko lanak nola doaz?

Nahiko genukeena baino motelago doaz. 2018-2019 ikasturtean hara joango garela bai, baina irailean ikasturtea eraikin berrian hasteko denboraz larri ibiliko ginateke eta nahiago dugu gauzak ondo egin eta lekualdatze prozesua berme guztiekin egitea.

Hilaren 17an eta 18an egingo dute Goiaz! azoka

Hamargarren edizioa izango du aurten Debagoieneko Lanbide Heziketaren azokak

E.A. DEBAGOIENA

Dagoeneko hamar urte dira Debagoieneko Mankomunitatea eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxeekin batera eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin ekimen hori antolatzen hasi zela, eta aurten eskualdeko enpresak ere gonbidatu dituzte. Kulturateko klaustroan izango da, hilaren 17an eta 18an.

"Helburu nagusia hasieratik izan da Lanbide Heziketa ezagutzera ematea eta lan-merkaturako balizko aukera bezala aurkeztea; bereziki, gazteei, baina baita langile, guraso eta, orokorrean, herritarrei ere", jakinarazi dute Mankomunitateko ordezkariek. Eta datu batzuk eman dituzte: "Milaka dira Kulturateko klaustroan jartzen diren standetatik pasatutako bisitariak, eta badirudi, pixkanaka, emaitzak lortzen ari garela; Lanbide Heziketa ikas daitekeen eskualdeko zazpi ikastetxeetan 1.120 ikasle daude matrikulatuta, 30 ziklo desberdinetan".

Lanbide Heziketako ikastetxeez gain, prestakuntza eta enpleguzerbitzuak eskaintzen dituzten eskualdeko beste hainbat erakunde ere egongo dira –egitaraua ikusgai *Goiena.eus* webgunean–.

Europako Gazte Parlamentuan daude Arizmendiko hiru ikasle

Espainiako kanporaketa jokatzen ari dira Eneko Mateos, Maite Larrañaga eta Ane Martinez, eguaztena ezkero

E.A. DEBAGOIENA

Otsailean Donostian egindako kanporaketan Espainiako faserako sailkatu ziren hiru ikasleak, eta eguaztena ezkero Kordoban daude Espainiako fasea jokatzen –domekan itzuliko dira–.

Eneko Mateosek Europako kultura gutxituen egoera hobetzeko lege proposamena landu beharko du bere taldekideekin batera. Maite Larrañagak digitalizazioaren gaineko lanketa egingo du eta Ane Martinezek, berriz, LGTB komunitatearen eskubideen gainekoa. Talde desberdinetan lan egingo dute hirurek, eta, hainbat talde dinamika egin ostean, domekan, Europako Gazte Parlamentuaren Espainiako kanporaketan, taldeka landutako gai horren gaineko lege-proposamena aurkeztu eta defendatu beharko dute.

Badakite Europako faserako sailkatzea ez dela erraza izango, baina "ahalik eta ondoen egiteko" eta "esperientzia bizitzeko" asmo osoa erakutsi dute.

Hiru ikasleak Arizmendin, irakasle batekin. MIREN ARREGI

Jon Balanzategi Arana (Aramaio)

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

75 **75 URTEZ** JAKINTZA SUSTATUZ ETORKIZUNA ERAIKITZEN

Ate Irekien Jardunaldiak

Apirilak 14	11:00
Maiatzak 23	18:00

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industriala
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industriala

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91

Zergatik aukeratu zenuen PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA heziketa zikloa? Eta, zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoan?

Mekanizatuko erdi mailako zikloa egin nuen, gustukoa izan zen eta jarraipen moduan Goi Mailakoa egitea erabaki nuen.
Bere ibilbideagatik aukeratu nuen Mondragon Goi Eskolan ikastea, erreferentziako ikastetxe bat da. Hemen ikasitako ezagunak badauzkat eta gustura ibili ziren.

Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue, hau da, ekipo-lanean erronkak garatuz funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer nolako erronkak egin dituzue?

Bai, metodologia ona da, talde lana bultzatzen du, eta norbera-ren ekintzailetasuna asko lantzen duzu, irakaslea zure gainean ez dagoelako. Guk jartzen ditugu egin beharreko lanen epeak eta bakoitza bere lanarekin arduratu behar da; norbaitek ez badu bere lana egiten azalpenak eman behar ditu ikasle taldean.

Aurkezpenak prestatu, egin, eta jendearen aurrean hitz egin behar duzu; ekintza hau, bera bakarrik, erronka garrantzitsua da eta nahiz eta momentu batzuetan pixka bat deseroso sentitu, bukaeran emaitzarekin gustura gelditzen zara.

Nola baloratuko zenuke esperientzia hau?

Esperientzia positiboa izan da ziklo hau egitea, egia esan, lan asko egin behar izan dut, baina gai batzuetan sakondu egin dut dezente eta nire lanbiderako ondo etorriko zaidala uste dut.

Ikasketak oso praktikoak dira, Eskolako ekipamendua, makinak eta abar industrialak dira eta honek lan mundurako zuzenean balio du.

DUAL formatuan lana eta ikasteko aukera izan dut EKIDEN. Lana egin eta ikastea, momentu batzuetan, gogorra izan arren, esperientzia oso ona izaten ari dela esango nuke.

EKIDE erdi mailako praktiketatik ezagutzen dut eta gustura nago bertan, enpresan integratuta sentitzen naiz, eta maila guztietako lankideekin oso harreman ona dago.

LABORAL Kutxa · HETEL · Fp · Mondragon Unibertsitatea

Prestakuntza eskaintza
Enplegu zerbitzuak
Ekintzaileentzat zerbitzuak
Tailerrak eta hitzaldiak
Aparatuak eta esperimentuak
Lan-eskaintzak eta elkarrizketak. BERRIA!!

Aurten, enplegu azoka eta guzti!

GOIAZ!

Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka 2018

apirilak 17-18
Kulturate
(Arrasate)

FORMAZIOA LANERAKO ZURE AUKERA

Aurtengo berrikuntza! ENPLEGU AZOKA

- Eman izena lan-eskaintza eta lan-poltsetan
- Ezagutu enpresek bilatzen dutena
- Egin hautaketa-elkarrizketak enpresekin

Ikusi lan-eskaintzak www.debagoiena.eus webgunean. Eta bidali zure curriculuma garapen-agentzia@debagoiena.eus helbidera apirilaren 12a baino lehen.

INFORMAZIO-MAHAIAK { 09:30-13:30 eta 16:00-19:00 (Apirilak 17) / 09:30-13:30 (Apirilak 18) } Kulturateko klaustroan (Arrasate)

Lanbide Heziketako Zentroak
- Oñati Gestio Heziketa - MU (Oñati)
- Zuazola-Larraña Institutua (Oñati)
- Mariaren Lagundia Ikastola (Bergara)
- Miguel Altuna Lanbide Heziketa (Bergara)
- Arizmendi Koop. Elkartea Ikastola (Arrasate)
- Mondragon Goi Eskola Politeknikoa - MU (Arrasate)
- Aretxabaletako Lanbide Eskola (Aretxabaleta)
- Helduen Heziketa Iraunkorreko Zentroa (HHI - EPA)
- Oinarrizko Lanbide Heziketa (Lanbide Hastapena)

Formazio Zentroak
- Bastida Akademia (Arrasate)
- Ikasi - Prestakuntza Zentroa (Bergara)

Beste erakunde batzuk
- Bizikasi
- www.heziplus.eus
- Laneki-Jakinbai

Enplegu Zerbitzuak
- Lanbide (Euskal Enplegu Zerbitzua)
- EURES (Europako Enplegu Zerbitzuen Sarea)

ERAKUNDE PARTE HARTZAILEAK

Udaleko Sustapen eta Enplegu Zerbitzuak
- Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzako Udalak

Ekintzaileentzat Zerbitzuak
- Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentzia

ENPRESAK:
Aita Menni, Aitzorrotz, Grupo Berdin, Danobat Group, Dikar, Euskadimpleo, Fagor Ederlan, Fagor Industrial, Jose Arana Egoitza, Kuida, Matzerreka, MGS Seguros, ULMA Taldea.

Antolatzailea:
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Babeslea:
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Garagartzako plantaren irudi bat. GOIENA

Sokatiran jarraitzen dute Fagor taldeak eta CNAk

Fagor Kooperatiba Elkartearen eta CNAren arteko kontratua baliogabetzeko epaiketa egin dute asteon Donostian; Fagorrek dio erabilera baldintzak ez dituela bete Edesak, eta kontratua eten gura du; Edesak, berriz, guztia "normal" doala adierazi du

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

2017ko azaroan abiatutako prozesuaren baitan, Fagor Kooperatiba Elkartearen eta CNAren arteko kontratua baliogabetzeko epaiketa egin zuten atzo Donostian. Fagorrek dio erabilera baldintzak ez dituela bete Edesa Industrialek, eta, ondorioz, 2014an sinatutako kontratua –30 urterakoa dena– etetea dela konponbide bakarra.

Kontratua sinatzearekin batera, Edesa Industrialek hiru konpromiso hartu zituen: batetik, lanpostuei dagokiena. Hau da, urteko langile kopurua 350 baino txikiagoa ez izatea hitzartu zuten bi aldeek. Hala ere, Fagor taldeak azaldu du Edesa Industrialek ez duela baldintza hori bete.

Horrez gain, Edesa Industrialek bere esku zeuden filial guztiek Fagor marka ezabatzeko konpromisoa hartu zuen; hau da, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera marka ez erabiltzeko eta Interneteko domeinuak ere ezabatzeko. "Hori ere ez du bete Edesa Industrialek", Fagor taldearen esanetan.

Talde kataluniarrak "bete ez duen azken baldintza bat" ere badago, royaltyen kasua, hain zuzen –produktu baten eskubideen jabe denari, produktu horren esplotazioarengatik ordaindu beharrekoa–. Kontratuaren arabera, 350 eta 525 langile artean izanda, irabazien %2 ordaindu behar zion Edesa Industrialek Fagorri; 525 eta 700 langile artean izanda, %1; eta 700etik gora, ez lioke ordaindu beharko.

Marka "zikindu"

Fagorrek salatu du "CNA taldeak azken bi urteetan hainbat kooperatibak erabiltzen duten marka egindako kaltea", Fagor marka "zikindu" izana, alegia.

AZKEN BISTAREN OSTEAN, EPAILEAK "EGUN GUTXI BARRU" EMANGO DU BERE ERABAKIAREN BERRI

Hala, kooperatiba taldeak argi dauka CNA taldearekin egindako akordioa "kaltegarria" izan dela eta Edesa Industrialen "kudeaketa okerrak" ez diola soilik Edesari kalte egin, baita Fagor marka darabilten enpresei ere.

Fagorren akusazioen aurrean, Edesa Industrialek dena gezurtatu, eta normaltasuna irudikatu nahi izan du. Bide batez, adierazi du hitzartutakoa betetzen ari dela, guztia espero moduan doala.

Erabakiaren zain

Martitzenean Donostian egindako bistaren ostean, epailearen sententziaren zain geratuko dira bi taldeak. "Egun gutxi barru" iritsiko da epailearen erabakia.

Aurrera begira, Fagorrek oraindik ez du erabaki marka beste eragileren bati utziko ote dion ala ez, baina norbait agertu ezkero, beste saiakera bat egiteko prest azaldu da.

Jaturabeko urtegia, gainezka, eguaztenean. GOIENA

Gainezka egin dute Urkuluko eta Jaturabeko urtegiek asteon

Martitzena eta eguaztena izan dira egun euritsuenak, eta prezipitazio iraunkorrek hainbat kalte eragin dituzte

E.A. DEBAGOIENA

Irudi ikusgarriak utzi dituzte Debagoieneko urtegiek, ibaiek, eta errekek aste honetan, batez ere, martitzenean eta eguaztenean egindako prezipitazio iraunkorren ondorioz.

Euskalmet-ek honako datu hauek utzi ditu: Arrasateko estazioan, martitzenean 29,9 litro batu ziren metro karratuko eta eguaztenean 69,5 l/m2; Oñatin, martitzenean 19,4 l/m2 eta eguaztenean 35,6 l/m2; Elorregin, martitzenean 26,4 l/m2 eta eguaztenean 41,4 l/m2; eta Urkulun, martitzenean 39,5 l/m2 eta eguaztenean 35,4 l/m2.

Deba ibaiaren arrisku egoera maila horian egon zen eguaztenean. Hala ere, ez zen arazo larririk egon eta atzo maila berdera pasatu zuten berriz.

Datu orokor bat aipatzearren, Euskalmetek adierazi du apirilaren 11n –eguaztena– apirilean batez beste egiten duen euri kopurua egin zuela.

Prezipitazioen eraginak

Urtegiei dagokienez, Urkuluk eta Jaturabek –Araotz, Oñati– gainezka egin dute asteon, eta oraindik ere betetze maila %100 baino gehiago dago bietan.

Eskoriatzan, Lete auzorako bidean, Sorautz eta Elorreta bitarteko oinezko pasabidean bidea zartatu egin zen ur pilaketen ondorioz, eta itxi egin behar izan zuten. Horrez gain, atzo goizean argindarra joan zen herriko hainbat lekutan.

Aramaion, Oletara bidean, lur-jausi bat gertatu zen, A-2620 errepideko 24. kilometroan, eta zirkulazioa gelditu behar izan zuten une batez.

Azkenik, Bergarako Ibaiondo kalean Deba ibaiak gainezka egin zuen, baina ez zuen ondorio larririk utzi.

Intxaurrandietari eta Errazkini babesa adieraztera, Azpeitira

Atzo, eguena, Iñaki Errazkinek eta Ainhoa Intxaurrandietak epaiketa izan zuten Madrilen, 2013an GHK-ko arduradun zirela Zubietako errauste planta geldiaraztea egotzita. Errazkin Foru Aldundiko Ingurumen diputatua zen garai hartan eta Intxaurrandieta, berriz, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko presidentea.

EH Bilduk antolatuta, biei elkartasuna adierazteko ekitaldia egingo dute domekan Azpeitian, 12:30ean, eta Debagoienetik gerturatuko dira zenbait herritar. Arrasaten 11:15erako Arbolapetan jarri dute hitzordua, autoz joateko; Bergaran 11:30ean pilotaleku aurrean elkartuko dira; Aretxabaletan 11:15ean Azbeko geltokian. Azkenik, Oñatiko, Eskoriatzako, Antzuolako eta Elgetako EH Bildutik ere Azpeitira joateko dei egin diete herritarrei.

ZABALIK

IRATI ITZIAR

Geroko gero kuantikoa

Axularrek aspaldi gaztigatu zigun betebeharrak gerorako uzteak dakartzan kalteen inguruan. "Gerotik gerora luzamendutan ibiltzea", bere hitzetan.

Jakina, erlijio betekizunei buruz ari zen.

Gaur egun, guk beste hitz bat erabiltzen dugu egin behar dugun hori geroratzen ibiltzea adierazteko; ahoskatzeko zaila, modernoa eta guztiz laiko begitantzen zaigun hitza: prokrastinazioa, hain zuzen ere.

Badaezpada, terminoa Wikipedian begiratu dut, gogoeta ondo kokatzeko, eta zera deskubritu dut: *Jarreraren borondatezko nahasmendua edo trastornoa* dela.

Alajaina!

Hau da, ohiko *nagikeria galanta* arrunta maila zientifikora eraman, izen hieroglifikoa jarri, eta trastorno izendatu dutela.

ESPERIMENTU BATEK FROGATU DU ERREALITATEA EZ DELA EXISTITZEN BEHATUA DEN ARTE

Hemen nabil, ba, ni trastornatuta zutabe hau idazteko jira eta bira, halako baten orain gutxi irakurritako berri bat gogoratu dudanean.

Hara non, esperimentu batek frogatu du errealitatea ez dela existitzen behatua edo neurtua den arte, maila kuantikoan, noski.

Fisika kuantikoaren galdera kitzikagarrienetako bat omen da guk antzematen dugun mundua geure zentzumenek sortua ote den.

Fenomenoak behaketaren bidez errealitate bihurtzen ote diren, alegia.

Bitartean, indefinizio egoera baten omen daude: badira eta ez dira, bizidunak dira eta ez bizidunak, uhinak dira eta partikulak.

Beraz, Axularren axioma gainditu eta ondorioztatu dezaket, maila kuantikoan ez bada ere, nire lana geroko gerorako utzi eta lotsagabeki prokrastinatu badut ere, baditudala segundo milaren batzuk idazten jarraitzeko.

Izan ere, nire zutabe hau ez da existitzen zuk –irakurle– behatu arte, zutabea kuantikoki erreal bihurtzen ari baita zuk irakurri ahala.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE

HANDIK ETA HEMENDIK

Neguazkena

MIREN AMURIZA

HTTPS://LABUR.EUS/MBSEW

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Inozoak gu, *happy ending*-etan eta udaberri eguzkitsuetan sinetsi genuenok.

Inozoak, Aste Santuan, manta lodiak armairuaren gorengo arasetan gorde genituenok.

Inozo hutsak.

Martxoaren hondarretan gure behatz zuri biluziei begira kitzikatu ginenok eta autoan bentanila jaitsita *negua joan da ta* kantatzen jardun genuenok.

Inozoak, aterkia etxean uzteagatik, autotik madarikazioka irten ginenok. Sandaliak estreinatzearren, oinak hoztu eta tonto-tonto katarroa harrapatu genuenok.

Eta egunotan jertsea jantzita lo egin behar izan dugunok.

Inozoak udaberri eguzkitsurik gogoratzen ez dugun arren, asteon ere, Euskalmeten iragarpenak entzun ditugun bakoitzean zapuztu garenok (euskal taldeek Barçaren kontra galtzen dutenean zaletuak zapuzten diren lez).

Lasaitzeko dioskue baikorrenek, inportanteena norbere barne-eguraldia dela...

Ge-zu-rra.

Ondarroako Radixu Irratiko *Gauerdiko ahuntzan eztule* programakoek Euskaltzaindiari eginiko proposamenaren alde neu ere:

"Uste dugu euskaraz urtaroak izendatzeko erabiltzen diren berbetan, udak merezi ez duen protagonismoa daukala: udaberria, uda, udazkena, negua. Uste dugu errealitatearekin zerikusi gehiago daukala eta zuzenagoa izango litzatekeela urtaroei izenak aldatzea, neguari merezi duen garrantzia emanez, adibidez: neguberria, negua, neguazkena, uda".

Udaberriaren desmitifikazioaren alde.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna Marta Leturia.

Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
Administrazioa Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 Tel.: 943 25 05 05 *harpidetza@goiena.eus*

PUBLIZITATEA Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 Tel.: 943 25 05 05 Faxa: 943 25 05 00 *publi@goiena.eus*

EGOITZA NAGUSIA Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 132 posta-kutxa Tel.: 943 25 05 05 Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07 *berriak@goiena.eus*

Lege Gordailua: SS-965/2014 **ISSN:** 2174-369X **Tirada:** 19.000 ale **Difusioa:** 18.723 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Hezigune asko daude, baina gurasoak dira umeen eredu"

SARA MERA SANABRIA PSIKOLOGOA ETA BITARTEKARIA

Iker Oñate BERGARA

Asko dira seme-alaben heziketan eragina duten faktoreak, baina gurasoak dira umeen erreferente nagusi. Hala, euren jokabidea esangura handikoa da umeendako. Zehazki, horretaz jardun du Sara Mera Sanabria psikologo eta bitartekariak Bergarako Seminarixoan.

***Nola eragiten du gure jokabideak seme-alabengan?* berbaldia eskaini duzu Seminarixoan.**

Hala da. Gurasoon jokabideak uste baino eragin handiagoa du seme-alabengan. Egia da gure haurren hazieran eta heziketan eragiten duten bestelako faktoreak egon badaudela –eskola, gizartea...– baina ezin dugu ahaztu umeentzat geu garela erreferente nagusi.

Esan ohi da gurasoek ezberdin jokatzen dutela umea aurrean dutenean.

Hori esaten da, bai. Esan daiteke pertsonon jokaera aldatuz doala ingurunearen arabera –lanean, kalean, etxean...–. Eta, hori horrela, gerta daiteke umearen aurrean bestelako jarrera izatea. Dena den, horrekin ez da aski. Besteak beste, beharrezkoa da geuk ere umeari helarazi gura dizkiogun balio horiek barneratzea. Esate baterako: bazkalorduan seme-alabei telefonoa kentzen badiegu, geuk ere alde batera laga behar genuke. Ez baitu zentzurik neuk ezarririko arau hori nik neuk apurtzeak –heldu izate hutsagatik–.

Sara Mera Sanabria, psikologoa eta bitartekaria. BEGIRA

Bestetik, esateko moduak ere izango du eraginik...

Duda barik. Azken finean, elkarrekiko errespetuan oinarritu behar ditugu komunikatze eta harreman moduak. Esaterako, gurasook gehiegi darabilgu ezetza: "Ez egin hau". Eta hori ez da zuzena. Alegia, jokabidea positiboki bideratzea litzateke egokiena: umeari zer ez duen egin behar esan beharrean, zer egin dezakeen azaltzea.

Eta haurrak uko egiten badio gurasoak esandakoari?

Hori ezin daiteke saihestu. Gainera, pertsonalki, esan beharra dut ez dudala gaizki ikusten jokaera hori. Izan ere, helduok ez dugu begi onez ikusten gure arteko sumisioa. Bada, hori bera ikasi behar lukete umeek. Kasu egiten ez badute, eurekin hitz egitea litzateke irtenbidea. Jakitea zergatik jokatu duen modu horretan, besteak beste.

Beraz, ikastetxetik harago doa haurren heziketa?

Noski. Etxean transmititu dena indartu besterik ez da egiten eskolan. Gurasoon lana da umeei ondo bidea erakustea. Hori ez genuke sekula ahaztu behar. Laburbilduz: etxean hasten da umeen heziketa.

ITURRI ONETIK

'Markak' lana Arrasaten

Kooltur Ostegunen 8. denboraldia maiatzaren 31n amaituko da eta ekainaren 7an, Kooltur Ekintza taldeak, Arrasateko Udalarekin batera, *Markak* ikuskizuna eroango du Amaia Udal Antzokira. Diziplina askotako ikuskizuna da, zinema-dokumentala eta zuzeneko musika batzen ditu, Gernikako bonbardaketa eta gaur egungo Gernika lotzen dituena. Hannot Mintegiak zuzenduta, Bernardo Atxagaren izen bereko liburuan oinarrituta dago; eta soinu banda konposatu duen Aitor Etxebarria El_Txef_A zuzenean arituko da.

ALBISTE IZAN ZEN

2005-04-08

Oñatin amaitu zen 45. Euskal Herriko Itzulia

Oñati munduko txirrindularitzaren hiriburua izan zen, egun batez, 2005eko apirilaren 8an. Izan ere, Euskal Herriko Itzuliaren 45. edizioa Oñatiko erlojupekoarekin amaitu zen. Danilo Di Luca –txapelarekin– izan zen nagusi Itzulian eta Alberto Contador azkarrena azken etapan. Markel Irizarrek ere parte hartu zuen lasterketan eta Jon Odriozolak esatari lanak egin zituen ETBn, aurreko urtean txirrindularitza utzi ostean.

GOIENA

HAU BE BADOGU!

Agur beroa Xabi Prietori sare sozialetan

Realeko kapitainak futbola utziko du denboraldi bukaeran:

@caosasuna_eus: "Zure aurkariak izandakoak errespetuz eta miresmenarekin oroituko dira zutaz. *#EskerrikAskoXabi*".

@ezarengudaz: "Zure taldea, gure baloreak, zure koloreak, gure errespetua. Bilbotik, Athletic-zale baten hitzak, ohore bat izan da".

@ertzil: "Elegantzia, erreferentzia, kalitatea eta errespetua. *#EskerrikAskoXabi*".

Altsasu, 'trending topic' berriz ere

Espetxean urtebete baino gehiago daramaten gazte altsasuarrak babesteko eta euren askatzea eskatzeko manifestazioa deitu dute biharko, Iruñean:

@altsasugurasoak: "Altsasuko auzian justizia eskatzeko manifestazioa babestu du Foru Parlamentuak. Larunbateko manifestazioa historikoa izango da, ziur gaude! Iruñeko kaleetan espero zaitugu! *#Ezdaposible #AltsasukoakAske*".

Umorea nagusi sarean, euria dela eta

Eguraldi txarraren aurrean umorea sare sozialetan:

@julentelle: "Egun on. Hau da egun ederra. Euria ari du. Eta ia ez da ederra, nahikoa da. Mesedez".

@IratiIciar: "Egunotan gehien erabiltzen den estanpatua, euri-print *#euria*".

*@olatz_markinez: "*Euskal Herriko girora aklimatatzen joateko, Saloun ere euria!".

@mikeliriarte: "Egun on denoi, enegarrenez euria programatu duten gupidakabeei izan ezik".

Apirilaren 26a: Txernobyl

JOSU GARITAONANDIA
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA
BERGARA

Okerragoa izan zitekeen Txernobylgo istripu nuklearra.

Izan ere, Europa erdia baino gehiago pikutara joan zitekeen beste eztanda bat egon izan balitz.

Planeta osoaren erradioaktibitate mailak gora egingo zuen, eta minbizia eta beste gaixotasun batzuk gehitu.

Hangoek ausardia handiz lan egin zuten, beraien bizitzaren eta osasunaren kaltetan, milioika pertsona salbatzeko; hau da, ez dira ahaztu behar 500.000 pertsonak lurretik, 10.000 meatzarik lur azpitik, 600 pilotuk airetik eta hiru urpekarik egindako lana.

Hasieratik, autoritateen jarrera beti izan da istripuaren eraginak gutxitzea; harrezkero, informaziorik eza eta gardentasun falta izan dugu, ez dakigu aipatutako ausart talde horren egoera, edota Europako biztanleriaren osasunean istripuak eragindako ondorioak.

Ez dago ausarta izan beharrik arrisku nuklearra gutxitzeko; kontsumo arduratsuan dago kakoa.

Garbi daukadana da ez diedala argindarrik erosiko zentral nuklearrak erabiltzen dituzten argindar enpresei.

Eta zuk zeini erosten diozu argindarra?

Kontratazioan ustezko iruzurra

ION ALBIZU GONZALEZ
ARETXABALETAKO EH BILDUKO ZINEGOTZIA
ARETXABALETA

Udalak, zerbitzu bat eskaini nahi duenean, lizitazio prozesu bat zabaltzen du. Prozesua hasteko, teknikariek pleguak idazten dituzte eta aspektu teknikoak eta administratiboak jasotzen dira bertan. Orain arte, puntuatzeko balio duen alderdi inportanteena eskaintza ekonomikoa izan da.

Baina zer pasatzen da kiroldegiko garbitasuna moduko zerbitzu batean?

Horrelako zerbitzuetan kostuaren zati handiena eskulana da. Bertan dauden langileak dagokien konbenio pean daude eta soldaten kostua jakina eta oso finkoa da; berez, teorian, murriztu ezina.

2016. urte bukaeran udalak 132.582 eurotan esleitu zuen zerbitzu hori eta hiru hilabeteren ostean 114.683 eurotan adjudikatu (-%13.5). Baina, zenbat kostatzen da zerbitzu hori ematea? Kalkulu batzuk egin ditugu:

Pertsonen kostua: 5.840 ordu eskaini behar dira urtean garbitasun zerbitzuan. Horrek 100.000 euro inguruko kostua du.

Horri BEZa gehitu behar zaio: 21.000 euro.

Oso agerian geratzen da udalak adjudikatu duen prezioa langileekin eta BEZarekin bakarrik gainditzen dela. Hortik aparte geratuko lirateke: langileen absentismoa –bajak–, enpresaren administrazio gastuak, arduradunaren kostuak, garbitasun produktuak, garbitzeko tresnak –makinak, karroak…–, eta abar.

Eta noski, enpresaren mozkina.

Orduan, zer pasatzen ari da zerbitzu horrekin? Bertan dagoen enpresa ustezko iruzurra egiten ari dela eta langile gutxiago dituela kiroldegia garbitzeko: eta kiroldegia oso zikina egotea ondorio logikoa besterik ez da –udal teknikarien txostena dago–. Erabiltzaileen kexa ugari daude eta azken gogobetetasun inkestan txarren baloratzen dena horixe da, garbitasuna.

Pertsonal kostuetatik dabil enpresa mozkina ateratzen.

Eta udalak ez du honen gaineko ardurarik? Ba bai; osoa, nire ustez. Udalak ezin du bakarrik eskaintza merkeenari kudeaketa eman, beste irizpide batzuk erabili behar dira horrelakorik gertatu ez dadin. Azken finean, udalak bermatu behar du zerbitzu ona ematen dela eta bertan dauden pertsonen eskubideak errespetatzen direla.

Horretarako aukerak egon badaude, gero eta gehiago, gainera; borondatea balego...

Ekain eta Ibai gogoan

JON OTXANDATEGI
ARIZMENDI IKASTOLAKO UMEZAINTZA GUNEKO LAGUNTXO, GURASO ETA IRAKASLE TALDEAREN IZENEAN
ARRASATE

Nola esan, nola adierazi. Zein hitz aukeratu orain sentitzen duguna adierazteko, inon hiztegi egokirik balego, behintzat.

Zer gertatzen zitzaien ulertzeko astirik eduki gabe joan zaizkigu. Biak, anaia biak.

Begi bistara berdinak ziruditen arren, ezagutzeko aukera izan dugunok gure barnean bakoitzari leku propioa egiteko parada izan dugu. Hori bai, beti elkarren ondoan, beraiei gustatzen zitzaien bezala.

Gure lanbideak, hezkuntzak, badu zerbait ona; besteren artean gurekin hazi eta hezitako haurrek arrastoa uzten digutela, alegia. Zorionez, gauzak ondo bidean, asko izaten da beraiengandik jasotzen duguna. Oraingoan, tamalez, zoritxarrak bete-betean jo gaitu. Oraingo honetan, orbain sakona geldituko zaigu, azaletik barrurainoko bidea hartua duena.

Bizitzak, sarri, frogan jartzen gaitu; ziur asko, Ekainen eta Ibairen gurasoek momentu hau gaindi ezina izango balitz bezala biziko dute. Bizitzak, maiz, ona ematen digu, segidan onena kentzeko.

Zer da, ba, bizitza, hori guztia eta hori besterik ez.

Samina, tristura eta, zergatik ez, amorrua ere sentitzen dugu momentu honetan, inon inongo familiatan inoiz sentitu behar ez luketen mina nagusitu zaigulako.

Gure ikastolatik, eta, batez ere, Umezaintzatik, bertako haur, guraso zein irakasleek bat egiten dugu "anaien" falta sumatuko duzuen guztiokin. Besarkada estuena doa beraien guraso Laurari eta Miguel Angeli eta June arrebari.

Guretzat, ohore eta plazer bat izan da Ekainen eta Ibairen bizitzan leku bat izan dugula jakitea.

Jakin badakigu anaia biak, dauden tokian daudela, eskutik helduta egongo direla. Ekainen eta Ibairen oroimenak luze iraungo du gurean.

Lapurreta Bernabeun!

MIKEL ARANTZABAL
EIBAR

Izenburuak dioena irakurri dugu munduko egunkari guztietan aste honetan.

Bueno, guztietan ez. Batean, *Penaltia izan zen* jarri zuten tituluan. Badakizu zeinetan, irakurle.

Futbol profesionala, negozio bihurtu zenetik, kakaztuta dago. *Handien* eta *txikien* artean alde izugarria dago, alderdi guztietan. Zer esanik ez, epaileen lanaren aldetik.

Handiez ari garenez, letra etzan barik, handiena aipatuta amaituko dut idatzia: Xabi Prieto jauna.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA

Arrasateko Adur klinikako langileak.

"Pazienteen konfiantza izan dugu 25 urteotan"

ROBERTO LEJARDI FUNDATZAILEA ETA BAZKIDEA

Adur hortz klinikak 25 urte bete ditu Arrasateko eta bailarako pazienteen ahoak zaintzen. Fideltasuna eta sendagileen prestakuntza izan dira euren oinarri nagusiak

Arrasateko Iturriotz kalean zabaldu zuten Adur hortz klinika orain dela 25 urte. 5 langilerekin hasi ziren lanean; egun, hainbat klinika dituzte eta 25 langile. Adurren bilakaera ezagutzeko, haren fundatzaile Roberto Lejardirekin izan gara. Aitzindariak izan dira hainbat gauzatan; besteak beste, fidelizazio txartelak eskaintzen pazienteei.

Nola gogoratzen dituzu hasierako urteak?

Proiektu berria zen, eta ilusio handiarekin geunden. Gauza berriak eskaintzeko genituen profesioan, odontologian; espezialitate guztiak eskaintzen genituen klinika berean, esaterako, eta ilusioz geunden.

Pazienteen fidelizazioari eman diozue garrantzia hasiera-hasieratik, pazienteei bideratutako txartelek sortuz, adibidez.

Hori da. Fidelizazio txartelak sortu genituen. Garai hartan, aitzindariak izan ginen horrelako zerbait eskaintzen. Tratamendu batzuk doan eskaintzen genituen eta beste tratamendu batzuetan deskontuak izaten zituzten gure pazienteek. Esan behar da paziente batzuk 25 urte hauetan alboan izan ditugula, lehenengo egunetik.

Horretan bakarrik ez, aitzindariak izan zineten, baita profesionalen formakuntzan.

Beti eman diogu garrantzia formakuntzari. Profesionalak sortu genituenean klinika gehiago zabaldu genituen, Durangon eta Donostian. Gaur egun, klinika horiek zabalik daude.

Prestakuntza jasotzera Kubara bidaltzen zenituzten dentistak?

Bai; jendeak praktika gutxi izaten zuen. Odontologia ikasketak bukatu eta lau bat urteko esperientzia hartu ondoren eramaten genituen Kubara, ebakuntzak eta bestelakoak egiteko. Hango ministroarekin akordioa sinatu genuen eta egun ere arrakasta du akordio hark. Gaur egun, ez guk bakarrik, Estatu osora zabalduta dagoen hitzarmena da. Master bat egin ostean praktikak egitera joaten dira hara. Garai hartan, guk teknologia eramaten genuen Kubara eta eurek pazienteak jartzen zituzten. Horren ordez, eurek doan izaten zuten tratamendua.

Tratamendu guztiak klinikan eskaintzen zenituzten. Horretan ere lehenak izan zineten?

Bai; garai hartan, espezialistarengana Donostiara edo Bilbora joateko ohitura zegoen. Guk alderantziz egiten genuen: espezialista gure klinikara etortzen zen. Orain dela 25 urte, adibidez, orain modan dauden inplanteak guk Arrasateko klinikan bertan egiten genituen. Zirujauak klinikara ekartzen genituen. Inpaktu handikoa izan zen, kanpora joan beharrik ez zutelako izaten; Arrasaten bertan egiten genituen. Herritik irten beharrik ez, lanean eguna galdu beharrik ez... abantaila asko izan ziren, eta, arazoren bat izanez gero, erantzuna ere bertan ematen genuen.

Horren harira, baduzu anekdota bat.

Orain dela 15 bat egun, gure paziente izandako batek deitu zigun, egun kanpoan bizi denak. Jarraipen bat egin behar ziotela eta oraingo dentistek inplantearen gaineko erreferentziak eskatu dizkiotela esan zigun. Orain hura dagoen klinikan harrituta geratu omen dira orain dela 25 urte Arrasaten inplanteak jartzen zirela jakin dutenean. Inplantea oso egoera onean dagoela esateko deitu digute.

Urte hauetan guztietan zenbat inplante jarri dituzue?

Arrasaten, esaterako, 4.000 inplante jarri ditugu. Baina, gure klinika guztiak kontuan hartuta, 15.000 bat inplante izango dira jarri ditugunak.

Esan daiteke pazienteei esker bete dituzuela 25 urte?

Noski; gu paziente gabe ez gara ezer. Bai pazienteak eta baita langile taldea ere. Talde oso bat izan gara. Pazienteen konfiantza barik ez ginen iritsiko gaur egungo lekura. Adurrek 25.000 paziente baino gehiago ditu, eta, datuei begiratuta, 120.000 azterketa edo errebisio egin ditugu.

Ez duzue hasierako espiritua galdu. Zer eskaintzen duzue egun?

Jarraitzen dugu lehen genuen bezala klinikan bertan zerbitzu guztiak eskaintzen. Orain dela 25 urte, profesionalak ekarri egiten genituen, eta egun, klinikan bertan daude.

"ADUR KLINIKAN BETI EMAN IZAN DIOGU GARRANTZIA SENDAGILEEN FORMAKUNTZARI"

Estrategiak landu dituen talde eragileko kideak, eguazteneko aurkezpenean. ENEKO AZURMENDI

Datozen 10 urteetarako lan-ildoa, elkarlanean

Kirol Plan Estrategikoa aurkeztu dute asteon, herriko kirol komunitatearen eskariari erantzunez. 332 ekarpen, 35 proiektu, 13 lan-programa, eta lau ildo estrategiko ditu barne, eta kirolarekin erlazionatutako herritarrek eta eragileek hartu dute parte

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasateko Udalak hurrengo hamarkadarako gida bat izango du, kirol arloari lotutako erabakiak hartzeko.

"Plan estrategikoa egitea herriko kirolari eta kluben aspaldiko eskari bat izan da, eta izan duen parte-hartze zabala da eskari horren erakusle", adierazi du Ander Garayk, Udaleko Kirol zinegotziak.

Prozesua urratsez urrats

Hasteko, kirol eskaintzaren eta aktibitatearen diagnostiko bat egin zuten Juanma Murua adituaren laguntzarekin, hainbat aspektu aztertuz: herriko klub kopurua, herrian antolatzen diren kirol ekintzak, kiroldegiko eskaintza eta erabilera kopurua eta kirola genero ikuspegiari dagokionez, besteak beste. Azken aspektu horretan, argiak eta itzalak detektatu dira; izan ere, emakumeen kirol klub gutxi daude, baina kluben zuzendaritzan emakumeen presentzia nabaria da.

Behin hori eginda, parte hartze fase bat egon zen, non Udaleko sailek, kirol klubek eta baita herritarrek euren ekarpenak egin zituzten. "Argi geneukan hasieratik herritarren ekarpenekin osatu nahi genuela plan hau. Jende askok parte hartu du, beste herri batzuetako prozesuekin alderatuta", azaldu du Udalarekin elkarlanean aritu den Juanma Murua adituak.

Urri inguruan ekarpenak egiteko epea zabaldu zuten, eta hiru eguneko tartean 332 ekarpen batu zituzten.

Talde eragilean, estrategiak

Ekarpenak batu ostean estrategiak zehazteko ordua zen, eta, horretarako, herritarrekin eta klubekin osatutako talde eragilea osatu zuten.

Azaroan egin zuten lehen bilera, eta, beste hiru gehiago egin ostean, hamahiru lan-programa eta 35 proiektu dituen plana zehaztu zuten. "Hainbat proposamen zehatz atera ziren bertatik, eta ondoren horiei lanketa teknikoa egin dugu", azaldu du Muruak.

Proposamenetako asko kirol instalazioak hobetzearekin lotuta daude. Horren harira, Musakolako kiroldegia berritzea da proiektu nagusia, eta jada martxan dago horri forma emateko prozesua. Horrez gain, eskoletako instalazioak hobetzea izango da beste lan-ildo bat, erabilera handiagoa izan dezaten.

Arrasateko Kirol Plan Estrategikoa

Lan-ildo estrategikoak

- Antolaketa
- Instalazioak
- Eragileak
- Kirola-turismoa

Lan-programak

- Eskola adineko kalitatezko kirol eredua
- Nerabezaroan kirola egiten jarraitzea
- Kirolerako irisgarritasuna bermatzea
- Eskaintza herritarren zahartze joerara egokitzea
- Kirol eragileen funtzioak eta antolaketa ereduak
- Kirol komunitateari babesa ematea
- Kirolaren eta aktibitate fisikoaren aginte-koadroa
- Kirol ekipamenduen berrikuntzak
- Esku-hartzeak hiri eta natura guneetan
- Instalazioen mantentzea
- Eskola adineko kalitatezko kirol eredua
- Turismo agenteekin elkarlana
- Inpaktu turistikoa duten ekintzak antolatzea
- Kirol eskaintza hobeto komunikatzeko ekintzak

Ibai Ferreira, 4 urteko haur arrasatearra, hil egin da

Azkeneko asteak Donostiako Unibertsitate Ospitalean ingresatuta pasa ditu Ibai Ferreirak, baina, tamalez, martitzen iluntzean hil zen. Izan ere, hilabete lehenago, haren anaia bikia, Ekain, hil zen, gaixotasun berak jota –Leigh sindromea, hain zuzen ere–. Leigh sindromeak ez dauka sendagairik, baina saiakuntza kliniko fasean zegoen sendagai baten berri izan zuten gurasoek.

Eta, hori lortzeko prozesua luze joan zitekeela ikusita, laguntza eske hasi ziren. Gurasoen helburua prozesu burokratikoa bizkortzea zen, eta oihartzun mediatiko handia izatea lortu zuten.

Zuztarrak Errotuz-en hitzaldi zikloa eguaztenean hasiko da

Hiru hitzaldi antolatu dituzte aurtengo udaberriko hitzaldi ziklorako, eta horietako lehena euskararen jatorriari buruzkoa izango da. Behe Nafarroako idazle, irakasle, laborari eta abeslari Eñaut Etchamendik *Indo-europar hizkuntzen arteko senidetza, Euskarak argibidetzen balu?* izeneko saioa egingo du, astezkenean. Hitzordua Kulturateko areto nagusian egin dute, 19:00etarako.

Bigarren saioan, euskaldunek Ternua aldean bizitakoak izango ditu hizpide Iraitz Agirre kazetariak, eta azkenengoan, euskarak Sardinian izan duen eragina azalduko du Juan Martin Elexpuruk.

Julen Telleria aurkezlea 'Galdegazte' saioan, asteazkenean

Arizmendiko Gaztelupe guneko Alaitz Gamito, Unai Laskurain eta Iñaki Arroyo ikasleen galderak erantzuten arituko da *Gure kasa* saioko gidaria, Jokin Bereziartua kazetariak dinamizatzen duen programan. Asteazkenean, 21:30ean, Goiena telebistan izango da hitzordua.

Programaren filosofiari jarraiki, askotariko galderak planteatuko dizkiote ikasle arrasatearrek aurkezle tolosarrari: *Gure kasa* saioaren misterioak zeintzuk diren, telebistaren edo irratiaren artean zein aukeratuko lukeen, kazetaritza munduan egindako hastapenak nola oroitzen dituen eta ea Tolosako Inauterietan mozorrotzea gustuko duen.

NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

Heroinaren zoru etikoa

Martxoaren 23an hitzaldi interesgarria eman zigun Gaztetxean Justo Arriola ikertzaile eta *A los pies del caballo* liburuaren idazle denak. Hamaika datu eta lekukotasun bildu ostean, espainiar estatuak Euskal Herrian egindako gerra zikinaren aurpegi zikinena erakutsi du: heroinaren hedapen sistematikoa Guardia Zibilaren eskutik, gazteria borroka politikorako ezgaitzeko asmoz. Ondorioz, gaindosiengatik eta heroinaren kontsumoak sortutako HIES kasuengatik, 5.000 hildako inguru egon ziren Euskal Herrian, gehienak oso gazteak.

Ardanzak, Arrasaten alkate zenean, udaltzainak bidali zituen Arrasatera heroina zekarten bi kotxe jarraitzera. Horietako bat La Salveko kuartelera joan zen; bestea, Intxaurrondokora. Hori ez zuen salatu ere egin bere alkate posiziotik. Arrasateko alkate izanik, bere herriko gazteak dozenaka gaixotzen eta hiltzen ziren bitartean, isilik geratu zen, koldarra.

Eta handik sei urtera, lehendakari zenean, Ajuria Eneko ituna sinatu zuen sarraski haren arduradun politikoekin. Zoru etikoa, deitzen diote.

AGAKO eguna, Altsasuko gazteekiko keinuarekin

Astelehenean hasiko da hiru gazte altsasuarren aurkako epaiketa Auzitegi Nazionalean, eta elkartasun argazkia aterako dute, Udalatxen, AGAKO egunari hasiera emateko. Ondoren, bazkaria, karro-poteoa eta kontzertuak egingo dituzte

Xabi Gorostidi ARRASATE

AGAKOren urtebetetze pastelak 27 kandela izango ditu aurten, eta, horiek behar bezala ospatzeko, egitaraua mamitsua prestatu dute gaztetxean mugitzen diren elkarte guztiek.

Egitarauaren ekintza nagusia biharko AGAKO eguna izango da. Urtero legez, jaiak eta aldarrikapenak bat egingo dute, eta goizetik hasi eta gaueko ordu txikiak arte luzatuko da festa.

2017ko AGAKO egunean, gaztetxeko kideak bazkaltzeko prest. IMANOL SORIANO

Talde argazkia Udalatxen

Eguna hasteko, Udalatxera igoera egingo dute, eta, behin goian, talde argazkia aterako dute Altsasuko gazteei elkartasuna adierazteko. Mendi puntan giroa jartzeko, txalaparta eta alboka doinuak izango dituzte lagun.

Ostean, bazkaria egingo dute gaztetxean, eta txartelak Jaizale eta Iluntz tabernetan eskuratu daitezke. Hans & Pello bikotearen emanaldi akustikoarekin amaituko dute bazkaria, eta, jarraian, herriko kaleetan zehar arituko dira. Karro-poteoa egingo dute, eta, horrez gain, sorpresaren bat edo beste ere izango da. Eguna ondo bukatzeko, gaztetxera itzuliko da jaigiroa, Deskarga eta WC taldeen zuzenekoekin. Esan beharra dago domekarako 18:30erako egingo dutela hitzordua, gaztetxea auzolanean garbitzeko.

AGAKO osasuntsu

Martxoaren 23an egin zuten 27. urteurreneko egitarauaren aurkezpena. Gaur egun AGAKOk duen osasun mailari buruz galdetuta, zera adierazi zuen Inesa Ugaldek: "Momentu honetan, nahiko ondo gaude. AGAKOz gain, beste asanblada batzuk daude, Guraso eta Haur Asanblada eta Pottogorriak talde feminista. Beraz, osasuntsu".

Bihar, zapatua, ospatuko dituzte Altamirako jaiak

10:00etako etxafuego jaurtiketarekin emango diete jaiei hasiera, eta handik ordubetera haurrentzako ekintzak izango dira: xake txapelketa, hiruko jaurtiketa txapelketa, itsulapikoak apurtzea, bizikleta eta zintak eta korrika lasterketa. Ordu berean, 11:00etan, yoga saio bat egingo dute, eta tortilla txapelketako parte hartzaileak patatak zuritzen hasiko dira Altamirako tortilla gozoena prestatzeko.

12:00etan, tabernaren irekiera egingo dute, eta, edariez gain, txapelketako tortillak ere egongo dira dastagarri. 13:00etan dantzak egingo dituzte, eta, ordu berean, auzoko pertsonak omenduko dituzte jai batzordekoek.

Arratsaldean ere ekintza ugari izango dira: 16:00etan etxafuegoak eta marrazki lehiaketa, 17:00etan txokolate-jana, 17:30ean buruhandiak eta 18:30ean igel jolas txapelketa. Eguna borobiltzeko, auzo afaria egingo dute 21:00etan, eta afalostea AZ taldeak girotuko du.

Zeure gorputza zaindu ezazu...

AMAGARA
Estetika Zentroa

- Gorputz eta aurpegi tratamenduak
- Zelulitisari eta biguntasunari aurre egiteko aparatuak
- Eskuak eta oinak zaintzea
- Terapia mediko-estetikoak, azido hialuronikoa, gorputz mesoterapia, botoxa...

Guk lagunduko zaitugu

Erdiko kale 54, behea 20500 Arrasate • 943 79 09 09 • www.amagaraestetikazentroa.es • facebook.com/amagara

RPS: 214/15

Javier Ortega hil da, herrian arrastoa utzita

Arkitekto bilbotarra apirilaren 3an zendu zen, baina Arrasaten egin zuen lanak urte luzez iraungo du. Besteak beste, Caja Laboralen bulego zentralak, San Juan Bataiatzailea parrokiaren birgaitzea eta Musakolako Kiroldegia diseinatu zituen

Xabi Gorostidi ARRASATE

Belaunaldi gazteen artean ez da izen ezaguna izango, baina Arrasaten lan mardula egin duen pertsona da Javier Ortega.

Bere ibilbide profesionala Bizkaian burutu zuen, nagusiki, baina Debagoienean, eta bereziki Arrasaten, hainbat eraikin diseinatu zituen. Ezagutu zutenek diote "langile nekaezina" izan zela, eta horren erakusle da haren lan-curriculuma: 57 elizatan esku hartzeak, 40tik gora etxebizitza-eraikin, 24 kiroldegi, 15 udalerritako frontoiak, zazpi ikastetxe, 18 enpresarentzako eraikinak, hiru mendi-aterpe eta udaletxe bat.

Kirol eraikinen alorrean egindako ekarpenagatik, Kirol Arkitekturako Espainiako Sari Nazionala jaso zuen 1997an. Lezamako kirol instalazioak, Artxandako kirol-konplexua eta 1986ko Munduko Pilota Txapelketako egoitza izan zen Mendizorrotzako frontoiak diseinatu zituen, besteak beste.

Javier Ortega arkitekto bilbotarra. JON ORTEGA ARQUITECTOS

Arrasaten utzitako arrastoa

50eko hamarkada amaieran hasi zuen bere ibilbide profesionala, eta Arrasateko lehen esku-hartzea 1968an egin zuen: Fabiana Larrañagaren familiarentzako baserria, Uribarri auzoan.

Urte berean, Uribe auzoko Eguzki dorrea eraikinaren diseinua egin zuen, San Vicente kooperatibarentzat. 80 etxebizitzarentzako edukiera zuen dorreak, eta ordura arte egin zuen etxebizitza eraikin handiena izan zen Ortegarentzat.

Handik bi urtera, 1970ean, bere ibilbideko mugarrietako bat izango zen eraikina diseinatu zuen: Caja Laboral Popularren egoitza, Olandixoko magalean.

1973an Musakolako Kiroldegiaren diseinua egin zuen, eta horren ostean egin zituen ondorengo lanak: JMArentzat pabiloi industriala 1986an, Mondragon Goi Eskola Politeknikoko erabilera anizkoitzeko eraikina 1992an, JOMA enpresako instalazioen hedatzea 1994an eta San Juan Bataiatzailea parrokiaren birgaitzea.

Domekan, meza, haren omenez

Javier Ortega gizon sinestuna zen oso, eta, hori jakinik, harekin erlazio estua izan zuen Jose Antonio Altuna *Txatillo*-k haren omenezko meza egiteko eskatu dio Horazio Argarateri.

San Juan Bataiatzailea parrokia, gaur egun. XABI GOROSTIDI

San Juan Bataiatzailea

Arrasatera heldu eta berehala, herriko parrokia berritzeko beharra sumatu zuen Jose Maria Astigarraga apaizak. Herritar prestuz osatutako lantaldea osatu zuen horretarako, eta Javier Ortegak hartu zuen proiektuaren ardura teknikoa.

Kiroldegia, egin berritan, airetik ikusita. PAISAJES ESPAÑOLES

Musakolako kiroldegia

Ortegaren diseinuetatik sortu dira Euskal Herriko kiroldegietako asko; adibidez, Musakolakoa eta Oñatikoa. Duela 40 urte zabaldu zituen ateak Arrasatekoak, baina, urteen poderioz, zahartuta geratu da eta berria definitzeko prozesua martxan dago.

Motorrak, janari-bilketa eta omenaldia bateratuta

Red Dragons taldekoek bigarren moto-bazkari solidarioa egingo dute bihar. Arte martzialen erakusketa, motor istripuen simulazioa eta kontzertuak egongo dira, eta baita trialean lehiatu izan zen Ander Landaluze arrasatearrari omenaldia ere

Landaluze, Bultaco etxeko motorraren gainean. RED DRAGONS

Xabi Gorostidi ARRASATE

Iaz ekin zioten helburu solidariodun jaiak antolatzen, eta, jasotako erantzun positiboa ikusita, aurten bueltan dira berriz Red Dragons taldeko kideak.

"Iazko edizioek, motorrenak, batik bat, gure espektatibak gainditu egin zituzten. Gure ustez, Zigorrolako moto-klubak utzitako hutsunearen ostean bazegoen zerbait egiteko gosea herriko motorzaleen artean, eta horrek eragin zuen, gure ustez, jendearen erantzun paregabea", azaldu du Iñigo Unzaluk, taldeko kideak.

Iaz, euren artean ez dauden lagun batzuei egin zieten omenaldia, baina aurten, Ander Landaluze trialean lehiatu zen arrasatearra ekarriko dute gogora. "Omenaldia ez dator berarekin izandako harremanagatik, guk ez baikenuen apenas ezagutu. Iaz, gertuko lagunak omendu ostean, hemendik aurrera herrian motorrarekin zerikusia izan duten pertsonak omendu nahiko genituzke. Landaluzeren kasuan, tituluz beteriko palmaresa izan zuen 30 urteko ibilbidean, eta, horretaz gain, pertsona aktiboa izan zen Zigorrolako moto-klubean".

Egitaraua, ekintzaz betea

Laubide plaza izango da jaiaren erdigunea. 09:00etan hasiko dira izen emateekin, eta 11:30ean egingo dute motorrekin buelta. Ordu berean, arte martzialen erakusketa egingo dute Arrasate Borroka Eskolakoek.

14:30ean bazkaria egingo dute, 16:30ean motor-jokoak, 17:00etan motor-istripuen simulazioa eta 17:30ean Landaluzeri omenaldia. Jarraian, El Exterminio de la Raza del Monok zuzenekoa joko du, 18:00etan, eta opariak banatu ostean jaiari amaiera emango diote, 19:30ean. Ekitaldian janari ez-iraunkorrak bilduko dituzte, geroago Bergarako janari-bankura eramateko.

Txatxilipurdi, udako udalekuetarako hezitzaile bila

Aurten ere hezitzaile zerrenda luzea izan nahi dute, eta hautagai izan nahi dutenek apirilaren 27ra arte izango dute euren curriculuma bidaltzeko aukera.

Beharrezkoa izango da 18 urte edo gehiago izatea, euskaraz jakitea, Txatxilipurdik antolatzen dituen formakuntza saioetara joatea eta Arrasatekoa edo Bailarakoa izatea. Ikasketa akademikoak, begirale titulua eta esperientzia profesionala izatea lehenetsiko dituzte aukeraketan.

Bestalde, zapatu honetan, eta baita hurrengoan ere, ludoteka ibiltariak San Andres auzoan izango du geltokia, 3 eta 12 urte arteko haurrek euskaraz ondo pasatzeko aukera izan dezaten.

OHARRAK

Errenta aitorpena

Datorren astean zabalduko da 2017ko ekitaldikoa egiteko tartea, eta hori euskaraz egiteko kanpaina jarri du martxan Udalak. Iaz, arrasatearren %18ek egin zuten euskararen aldeko hautua.

Konferentzia

Apirilaren 16an, 11:00etan, nazioarteko lankidetzan eta elkartasunean diharduten bi pertsonak hitzaldia egingo dute San Juan de Dios ospitalean.

71koen kintada

Maiatzaren 26an Gaindegin bazkalduko dute. Izen-ematea: 638 01 47 03 edo 635 20 71 13.

ART taldeko jokalariak, Gernikaren aurkako partidua jokatu ostean, lokatzez bete-beteta. XABI GOROSTIDI

Mailari eutsiko dio Arrasate Rugby Taldeak

Euskal Ligan ari diren Arrasate Rugby Taldeko senior mailakoek 10-17 irabazi zuten pasa den jardunaldian Gernika B-ren aurka. Hala, zapatuan, denboraldiko azkena jokatuko dute Bilboko unibertsitarioen aurka, 17:00etan, Mojategin

Imanol Beloki ARRASATE

Arrasate Rugby Taldeak Euskal Ligako lehenengo mailan jarraituko du, beste urte batez, martxoaren 24an, Urbietan, Gernika B-ren aurkako partiduan garaipena lortu ostean.

Gernikaren aurkako partidua hasi aurretik, etxekoen talde nagusiak jokatu zuen aurrena, eta, ondorioz, zelaia nahiko txarto zegoen. Partidu hasieran, nor baino nor gehiago aritu ziren bi taldeak, baina, pixkanaka, ARTk aurre hartu zuen markagailuan. Atsedenaldia heltzeko gutxi falta zela, 5-12 ziren aurretik arrasatearrak, eta, Jokin Dolararen entsegu batekin, 5-17 amaitu zen lehen zatia. Bigarren zatian ondo eutsi zioten aldeari, nahiz eta jokalari gutxiago batekin amaitu zuten partidua. Azkenean, 10-17 irabazi zuten.

Denboraldia amaitzeko jardunaldi bakarraren faltan, Isasiren mutilek dagoeneko badakite sailkapeneko zazpigarren postuan amaituko dutela txapelketa.

Balorazio positiboa

Denboraldiarekin gustura daude taldekideak; izan ere, lehenengo itzulian, bederatzi partidutatik lau irabazi zituzten eta bigarren bueltan, berriz, bi irabazi dituzte zortzi partidutan. Asteburu honetan izango dute denboraldiko azken partidua, Mojategin, Bilboko unibertsitarioen kontra. 17:00etan izango da, eta denboraldia garaipenarekin bukatu nahi dute. Izan ere, bilbotarren kontra etxetik kanpo jokatu zutenean, porrot gogorra jaso zuten, eta Mojategin guztia eman nahi dute, errebantxa hartzeko.

Borobiltzeko, afaria

Zapatuko partiduaren ostean, mailari eutsi izana ospatzeko afaria egingo dute Arrasate Rugby Taldekoek.

MAILARI EUTSITA, AZKEN PARTIDUA ETXEAN JOKATUKO DUTE, ZAPATUAN

"Pozik gaude maila mantendu izanarekin"

XABIER GARDOKI
KAPITAINA



GOIENA

Xabier Gardoki kapitainak balorazio positiboa egin du denboraldiaren gainean.

Nola joan da denboraldia?

Jendez justu samar aritu gara, baina gustura aritu gara denboraldi osoan zehar. Maila mantenduta, helburuak lortu ditugu eta balorazio positiboa egin dezakegu.

Datorren urtera begira, zein asmo dituzue?

Datorren astean batuko gara taldekideok horretaz hitz egiteko. Hala ere, asko disfrutatu dugu aurten, eta gerra emateko gogoz gaude. Ea taldean ibilitako batzuk bueltatzen diren, gazte mailako batzuk igotzen diren…

Gernikako partidua dibertigarria izan zen, lokatzez bete-beteta, ezta?

Kaleratua izan nintzen arren, nire ustez, bai. Halakoak gustatzen zaizkit, lokatzarekin motelagoa delako jokoa. Hala ere, partidu gogorra izan zen.

KARATE SAIOA ARRASATE

Lan bikaina egin dute Zaragozan

Apirilaren 7an, Espainiako 38. Kyokushinkai Txapelketa jokatu zen Zaragozan. Sei arrasatear izan ziren han; Iosu Madinabeitia, Aitor Lasagabaster, Ane Garcia, Aitor Madinabeitia, Jokin Martin eta Daniel Barbero. Lan bikaina egin zuten eta hainbat domina ekarri zituzten; Jokin Martinek, esaterako, bi kategoriatan, lehenengo postua lortu zuen.

Ointxe-Araskiko emakumezko kadeteak, Espainiakora

Liderraren aurkako partiduaren faltan, maiatzean Huelvan jokatuko den txapelketarako sailkatu dira

I.B ARRASATE

Pasa den domekan, Euskal Liga jokatzen ari diren Ointxe-Araski saskibaloi taldeko kadete mailako neskek Gernika taldearen kontra jokatu zuten partidua, eta, 70-38 irabazita, Espainiako Txapelketarako txartela dute; aurten, maiatzean Huelvan jokatuko da.

Hirugarren sailkatuaren aurkako partiduan garaipen erosoa lortu zuten Ointxe-Araskiko neskek, eta partiduaren nondik norakoak honela azaldu ditu *Arri* entrenatzaileak: "Partidu ona jokatu genuen pasa den domekan, Gernikaren aurka. Bagenekien partidua zaila izango zela, baina oso talde-lan ona egin genuen norgehiagoka osoan zehar. 1x1 baloiari defentsa, trantsizio defentsibo oso ona eta taldeko defentsan oso akats gutxi egin genituen. Erasoan, berriz, joko erritmo azkarra baloiarekin, eta baloi gabe".

Zapatuan, liderraren aurka, Loiola Indautxu taldearen aurka, jokatuko dute denboraldiko azken partidua. Bilbon izango da, 12:00etan.

OHARRAK

Ford Mugarrik, etxean

Ford Mugarrik Iturripen jokatuko du partidua domeka honetan, 12:15ean, Limpiresol Corazonistas taldearen aurka.

MUk, kanpoan

EBA mailako saskibaloi taldeak Universidad de Burgos taldearen aurka jokatuko du zapatuan, 17:30ean.

Mondrate: campusa

Mondratek udako campusa antolatu du, kirola praktikatuz ondo pasatzeko helburuarekin. Hain zuzen ere, 8 eta 16 urte bitarteko neska-mutilendako da –2001-2009, biak barne–, eta uztailaren 2tik 20ra bitartean izango da, Musakolako kiroldegian.

Arrasatera dator Opus 4, 50. urteurrena ospatzera

Opus 4 laukote argentinarrak eta Goikobalu abesbatzak elkarrekin eskainiko dute kontzertua bihar, zapatua, 20:00etan, San Juan Bataiatzailea parrokian; Udaberriko Musikaldiaren hamalaugarren edizioari hasiera emango dion kontzertua izango da

Eneko Azurmendi ARRASATE

Bihar abiatuko da Udaberriko Musikaldia –ikus 40. orria–. Eta kontzertu interesgarria izango da lehena. Izan ere, Argentinako eta kontinente amerikarreko musika folklorikoa eskaintzen duen Opus 4 laukoteak Goikobalu abesbatzarekin partekatuko du oholtza. "Hasteko, hainbat abesti kantatuko dituzte eurek bakarrik; ondoren, Goikobaluk hartuko du lekukoa; eta bukatzeko, kreole-meza abestuko dugu elkarrekin", kontatu du Goikobaluko presidente Juan Antonio Barriocanalek.

Duela bi urte ere hartu zuten parte argentinarrek Udaberriko Musikaldian, Txorbela otxotearekin batera, eta, aurten Europan bira egiten ari direla aprobetxatuta, Arrasaten geldialdia egiteko nahia erakutsi dute. "Erretiroa hartzeko asmotan ari direla eta, Europan bira egiten ari dira, eta geldialdietako bat Arrasaten egitea zen euren nahia", dio Barriocanalek.

50 urte

Aurten 50 urte bete ditu laukote argentinarrak. 7.800 emanaldi baino gehiago egin ditu 500 hiri eta herritan eta 38 herrialdetan. Horrez gain, sari ugari jaso ditu bere produkzio diskografikoarengatik eta ibilbide zabalagatik. 22 disko publikatu dituzte euren ibilbidean.

Lantzen duten musikari dagokionez, laukotearen errepertorioan sartzen dira, batez ere, herri musikaren interpretazioa eta kontinente amerikar osoko folklore interpretazioa: tangoa, beltz espiritualenak, eta abar.

Goikobalu abesbatza

Gaur egun, Goikobalu abesbatza 18 eta 76 urte arteko 65 bat abeslarik osatzen dute, Iñaki Maidaganen zuzendaritzapean. Urtean zehar hainbat kontzertu eskaini dituzte eta biharko emanaldiari begira "gogotsu" azaldu dira.

Bakarrizketan ariko da Pamela Palenciano apirilaren 19an

Emakume Txokoak antolatuta, Pamela Palencianok *No solo duelen los golpes* bakarrizketa eskainiko du apirilaren 19an –eguena– Kulturateko areto nagusian, 19:00etan.

Publiko orokorrari zuzendutako emanaldia izango da. Bakarrizketan, Palencianok bikote baten esperientzia kontatuko du, zeinetan berak mota guztietako tratu txarrak jasan dituen: abusuak, menderatzeak eta gizonaren botere patriarkala. "Eredu patriarkalean oinarritutako bikote harreman horiei begirada bat egiten dio bakarrizketak, gizarteak nola eraikitzen dituen eta nola pairatzen ditugun horren ondorioak".

Ikastetxeei zuzendutako emanaldiak ere eskainiko ditu Palencianok Amaia antzokian, apirilaren 19an eta 20an, Eskola antzerkiaren jardunaldien baitan –DBH eta Batxilergoa–.

'Jon Braun' haur antzerkia ikusgai bihar Amaia antzokian

Anita Maravillas antzerki taldeak *Jon Braun* haurrentzako antzezlana eskainiko du bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

Braun beti ilusioz aurrera egiten duen indio txiki bat da, eta munduko Jon Braun guztiak batzen saiatuko da. Zoritxarren aurrean maitasunak ematen digun ausardiaz mintzo da. Sarrera bost euro da.

Koban taldearen kontzertua gaztetxean datorren eguenean

Kooltur Ostegunak ekimenaren baitan, Koban talde donostiarrak kontzertua eskainiko du datorren eguenean, Arrasateko gaztetxean, 22:00etan. Sarrera bost euro da.

2015ean sortutako taldea da eta elektronika eta swinga uztartzen ditu. Zazpi musikarik osatzen dute taldea eta bi disko dituzte, eurek ekoiztuta: *Congo Square* (2017) eta *Koban* (2018).

Jokin Orobengoa eta Irati Muxika –koordinazioaz arduratzen direnak–, ekonomatuan. J.I.

Ekonomatuak bost urte baditu

Ez da denbora luzea Aramailur kontsumo taldearen dendak urteak bete dituela. Eta osasuntsu bete ere: 80 familia dira bazkide, horietatik hogei bat ekoizleak; gustura dira baserritarrak, eta baita erosleak ere; etorkizun polita opa diote, denen onerako

Julen Iriondo ARAMAIO

Kontsumo taldearen otarreen hartu-emanerako leku fisiko; eta, horrez gain, bertako beste produktu batzuez eta elikadura beharrak osatzeko Euskal Herriko beste txoko batzuetatik ekarritako produktuz hornitutako denda. Hala jaio zen eta hala segitzen du Aramailurren ekonomatuak, produktu gehiagorekin, ordutegi zabalagoarekin –eguenetan ere zabalik, martxotik; martitzen eta zapatuetan lehendik–, besteak beste.

Martitzen arratsaldea da, 18:30ak bueltan; denbora laburrean nahikotxo jende sartu da dendara, erosketetara. Gehienak bazkide, baita bazkide izan gabe tarteka han erosketaren bat egiten duen herritarrik ere (eskuineko Rosi Balantzategi, adibidez). Ez baita ezinbesteko egitasmoko bazkide izatea ekonomatuan erosketak egin ahal izateko. Eguneko bazkidetza, euro bat, ordainduta nahikoa da horretarako; bestela, urtekoa 20 euro dira.

Erostera bakarrik ez, saltzera datorrenik ere sartu da dendan. Fermin Etxebarriak ia mendea du bizkar gainean; esne-kaxa eskuetan iritsi da. Plazaren eta, oro har, baserriaren beherakadaren lekuko, garai oparoagoak ezagututakoa, Aramailurrek ezarritako sistemari interesgarri deritzo, etxean sortutakoak saltzeko. Horixe da ekonomatua, bertakoa eta garaikoa kontsumitzeko aukera, eta Euskal Herriko produktu ekologikoak.

Dendari Jokin Orobengoa eta Irati Muxika daude gaur; egitasmoko bazkideak, besteak bezala –denek egin behar dituzte pare bat txanda urtean–, nahiz eta hartzen duten pisu gehixeago koordinazio lanetan. Iraganarekin pozik, etorkizunerako gogotsu: "Egongo da Aramaioko jendea dendara sartu ez dena: sar daitezela, apururik gabe, begiratu, eta agian zerbait gustatuko zaie", dio Irati Muxikak.

Fermin Etxebarria. J.I.

Plaza utzi eta ekonomatura, baserritarra

Aramailurreko bazkidea da Fermin Etxebarria. Baserritarra da, ekoizlea –aldi berean, kontsumitzailea, egiten ditu erosketak bertan–, eta ardi-esnea, gazta, arrautzak, fruta... eramaten ditu ekonomatura martitzenetan.

90 urte betetzera doa, eta baserriko uztari aterabidea emateko modu desberdinak ezagutu ditu: "Arrasateko azokara joaten ginen lehen, baina utzi genion; eta orain hona". Berarentzat aukera polita dela dio, lehengoa baino erosoagoa.

Erosle bezala, berriz, ekonomatuan aurki daitezkeen hainbat gauza berak etxean izan arren, beste batzuk han erosten ditu: "Arroza, dilistak...".



ELENA ZUBIZARRETA
BAZKIDEA

"Oso zerbitzu ona da herrirako. Baratza badugu, eta otarrea ez dut hartzen, baina bai zekaleak eta... eta bermea ematen dit onak direla".

ROSI BALANTZATEGI
EROSLEA

"Etortzen naiz noizean behin, hemengo gauzaren bat behar dudanean. Gaur, adibidez, gazta bila etorri naiz. Dena bertako produktua da eta...".



J.I.

"Herrian ditugu ekoizle pila bat"

MAITANE G. DE SEGURA
BAZKIDEA

Otarrea hartzen du eta ekonomatuan egiten ditu erosketak.

Aukera ona al da?

Zerbitzu ona ematen du, eta, gainera, asko joan da hobetzen. Hasi zenetik hona pauso asko eman dira, eta denak hoberako.

Zeintzuk, adibidez?

Gero eta produktu gehiago daude, barazki aldetik ere bai; gauzak nola kudeatzen diren; orain eguenetan ere zabalik dago; Errigora bezalako aukerak, orain garagardoa... aukera gero eta gehiago daude, bertakoak eta kanpokoak.

Zergatik da garrantzitsua herrian halako gauza bat edukitzea?

Herrian bertan ditugulako ekoizle pila bat, eta, niretzako, inportantea da garaian garaikoa jatea. Otarrearekin hasi ginen horregatik, horrela badakigulako elikagaiak nondik datozen, eta hori oso inportantea da. Eta dendako gauza gehienak badakit nondik datozen, eta ekologikoak dira.

Eta eskatzen duena zer da, konpromiso handia?

Ez, eskatzen zaiguna da urtean behin edo bitan dendari lana egitea, atea zabaldu, jendeari kobratu, apuntatu gauzak, zer falta den begiratu, pixka bat txukundu... baina ematen dit eskatu baino askoz gehiago.

Ur parkea, 2018rako inbertsio nagusia

Aste Santu atarian egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak aurtengo udal aurrekontua, aldeko sei botorekin –EH Bildu– eta aurkako batekin –EAJ; bi zinegotzi ez ziren bilkuran izan–. 2.077.605,89 euro dira, iaz baino %2,7 gehiago

Julen Iriondo ARAMAIO

Alkatearen esanetan, aurtengoa "urte berezia" da: "Argindar enpresatik Udalera normalean baino diru gehiago iritsiko dela aurreikusten dugu; Foru Aldunditik jasotzen dugun urteroko diru kopurua ere igo egin da pixka bat (TEEEF); Lurgorri eta Murugain basoak botatzea aurreikusten dugu [hortik ere sarrerak iritsiko dira]; eta ez dugu aurreikusi obra handirik, Gureian berriki egindakoa bezalakorik".

Obra handirik ez dute aurreikusi, oraindik ez dutelako foru planean eskatu zituzten bi obren gainean erantzunik jaso –Barajuen eta musika etxea–: "Baina bai espero dugu maiatzean erantzuna jasotzea, eta, gutxienez, obra horietako batentzako gorde dugu proiektua eta zuzendaritzarako partida. Horrela, 2018an dena bideratu ahal izango genuke, 2019an obrarekin hasteko", zioen Lierni Altunak. Barajuenen azpiegitura eta lurzoruko lanak egitea da Gobernuaren asmoa, eta Ibarran, berriz, musikarako eta abesbatzendako lekua atontzea.

Aurtengo inbertsio nagusia ur parkearena izango da. Gaur egungo parkearen inguruan egitea da Udal Gobernuaren asmoa, nahiz eta oraindik ez duten zehaztu non. 110.000 euro bideratuko dituzte proiektu horretara, eta laster dira prozesu parte-hartzaile bat martxan jartzekoak, herritarren proposamenak ezagutzeko.

Uda honetan ur parkea erabilgarri izatea ez du erraz ikusten alkateak, baina ahaleginak egingo dituztela azpimarratu du: "Parkearen erabiltzaileekin lantzen hasi gura dugu, gurasoekin eta umeekin; plana zehaztu eta pleguak lantzen joan. Uda honetara begira nahiko berandu gabiltza, baina ea uztailerako zerbait eginda egon daitekeen". Txikienen parkearen lurra eta erdiko jolasa berrizteko ere aprobetxatuko dituzte lanok.

Ingurumenari dagokionez, aipatu bezala, zenbait baso bota bai, eta landaketak ere egingo dituzte, kudeaketa eredua birpentsatuz, pinua ordezkatzeko. Eta konpostaren aldeko apustua egiten jarraituko dute: "Ibarran auzo-konpost gune bat daukagu, eta jendea zain dago beste bat jartzeko. Badaukagu zerrenda bat eta kanpaina bat egin gura dugu bigarren hori martxan jartzeko. Horrez gain, etxeko konposta bultzatzeko diru laguntza bat jaso genuen. Beraz, auzoz auzo bilerak egingo ditugu, eta informazioa eta materiala erraztuko dizkiegu herritarrei", zioen Altunak.

Oñatin iaz inauguratutako ur parkea. GOIENA

ARGINDAR ENPRESATIK UDALERA OHI BAINO DIRU GEHIAGO IRISTEA AURREIKUSTEN DUTE

2018ko udal aurrekontua

2.077.605,89 euroko aurrekontutik, ondorengoak dira inbertsioetako batzuk eta horietara bideratutako kopuruak.

- **110.000,00** Ur parkea: "Udan ere herriak elkargune bat izan dezan", alkatearen esanetan.
- **57.605,32** Eskolako patiora sartzeko arrapala: Jaurlaritzari diru laguntza eskatu zioten iaz, eta jaso dute.
- **13.000,00** Hondakinak: Aldundiari diru laguntza eskatu eta hondakin organikoa ondo sailkatu eta berrerabiltzeko gunea egokituko dute kiroldegi atzean.
- **2.500,00** Desfibriladorea: tresna bera jartzeaz gain, formazioa eskaintzea ere nahi dute.

Gure Esku Dago-ren giza katearen aurkezpena, gaur

Herriko Gure Esku Dago-ren lantaldeak gaur –barikua–, 19:00etan, Sastiñan, aurkeztuko du dinamikak 2018rako prestatzen diharduen mobilizazioa, ekainaren 10ean egingo den eta Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen giza katea: "Handia izango da! Baina, horretarako, zure parte-hartzea behar-beharrezkoa da", diote.

Ipuin lehiaketako sariak banatuko ditu Txirritola elkarteak

Euskara elkarteak antolatzen duen ipuin lehiaketako sari banaketa gaur –barikua– izango da, kultura etxean. Lehendabizi, 17:00etan, antzerki saioa izango da, *Ongi etorri, lagun!* izeneko antzezlan musikatuarekin –atzerriko abestien bidez, kanpotik etorritako haurren integraziorako aldarria–, eta ondoren egingo dute sari banaketa.

OHARRAK

Jaiak: diru laguntzak

Auzoetako jaietarako diru laguntzak eska daitezke dagoeneko; aurkezteko bi epe egongo dira, eta eskatzaile bakoitzak erabakiko du noiz aurkeztu: ekainaren 1ean edo irailaren 3an.

Alaiak-en batzarra

Erretiratuen elkarteak batzar orokorra egingo du hilaren 17an, 16:30ean, kultura etxean.

NIRE USTEZ

XABI IGOA

Euria

. . . .
. . . .
. . . .
. . . .
. . . .
. . . .
. . . .
. . . .
. . . .
. . . .
. . . .
. . . .
. . . .
. . . .
. . . .
. . . .
. . . .
. . . .
. . . .
. . . .
. . . .

Euria eta euria, eta euria ez denean elurra. Kokoteraino gaude Euskal Herriko klimaz, eta "ezin dugu gehiago", eta "ni Andaluziara joango naiz bizitzera!", eta "eskerrak Aste Santuan Saloura joan ginen", eta "sanjuanetan Huelvara joan beharko gara gutxienez, edo Tenerifera bestela, hau kriminala baita", eta ...

(Pentsa, esaldi hauek idazten neu ere konturatu naiz negu luze honetan bi aterki galdu ditudala dagoeneko.)

Bai, Euskal Herrian euria ari du. Eta Altsasuko gazteek tantakak adina egun daramatzate kartzelan.

Denis Soriano txapeldun

Aurreko asteburuan eta Aste Santu aurretik Leitzaran eta Araxes ibaietan jokatutako arrantza txapelketa –heriotza gabekoa– irabazi zuen aramaioarrak –Soraluzen bizi da gaur egun–, eta, ondorioz, Euskadiko txapeldun bilakatu eta hurrengo urteko Espainiakorako txartela eskuratu zuen –aurtengorako ere sailkatuta dago; Errioxan izango da–.

GOIENA

1999an jaiotakoak eta aurten Santa Ageda neska-mutilak izan direnak talde argazkian. IMANOL SORIANO

59. urtean jaiotakoak, 1978. urtean izan ziren kinto. JULEN ABASOLO

1981ean kinto izandakoak talde argazkian. JULEN ABASOLO

Santa Agedaren aldaketa aztergai

Loramendi Euskara Elkarteko toponimia taldeak Santa Ageda neska-mutilen ohiturak izandako eboluzioa aztertu nahi du. Eta, horretarako, inkesta bat bidali die ohitura hasi zenetik gaur egunera arteko kintada ezberdinei

Imanol Beloki ARETXABALETA

Loramendi Euskara Elkarteko toponimia taldeko kideak Santa Ageda neska-mutilen inguruko ohitura aztertzen ari dira. Santa-eskea, tantaia, Santa Ageda eguneko dantza eta kantuak, Santa Ageda bezperan egiten zutena, Aratusteak... Izan ere, ohituraren transmisioan, galdu edo aldatu diren hainbat gauzaz ohartu dira, eta eboluzio horren adierazleak zeintzuk izan diren jakiteko eta kontrastatzeko herritarren iritziak jaso nahi dituzte.

Azterketa hori gauzatzeko, Santa Ageda neska-mutilen ohitura hasi zenetik gaur egunera arteko Aretxabaletako kintada guztietara galdetegi bat bidali dute Loramendi elkartekoek. Hala, inkesta bat betez, kintada bakoitzak bere esperientzia kontatu dezan.

Hausnarketa elkarlanean

Inkestaren emaitzak jasotzean, 60-70 urteko esperientziak batu nahi dituzte, eta horiekin txosten bat egin, urteetan zehar ohitura horren bilakaera ikusi eta herritarren aurrean zabaltzeko asmoarekin. Txostena egitean, Aretxabaletako kultura eragile ezberdinekin batzeko asmoa adierazi dute Loramendi Elkarteko toponimia taldekoek; hala, txostena aztertu eta gaur egungo egoera ikusiaz, hausnarketa egiteko. Dena den, interesa duen Aretxabaletako edozein herritarrek ere aukera izango du hausnarketa horretan parte hartzeko, nahi izanez gero, eta, horretarako, Loramendira joan beharko du.

Inkestaren nondik norakoak

Lehenengo pausoa inkesta betetzea izango da, eta hainbat galdera batzen ditu inkesta horrek: zenbat laguneko taldeetan irteten ziren, neskarik ba al zegoen taldean edo ez, tantairik jaso zuten edo ez, nondik ekartzen zuten tantaia, dantza eta kantuak aurretik ikasten aritu ziren edo ez, Santa Ageda bezpera eguneko jantzia nolakoa zen, Santa Ageda bezperan auzo eta baserri guztietatik pasa ziren edo ez, soinu-jolerik bazegoen edo ez, bildutakoarekin jatorduak egiteko moldatu ziren edo ez... Mota horretako galderak eran-tzun beharko dituzte kintada ezberdinetakoek.

Lan prozesua

Hilaren amaieran, inkesta guztiak jasota izan nahi dituzte Loramendi elkartekoek, eta, erantzun ezberdinak batu ostean, maiatz erdialderako txostena eginda izan nahi dute.

Amaitzeko, maiatzaren azken asterako bilera deitzea aurreikusten dute, eta bertan eztabaidatu ohiturak aldaketa behar duen edo ez, zer hobetu daitekeen, ezer egitea merezi duen edo bere horretan utzi.

ARETXABALETAKO SANTA AGEDA NESKA-MUTILEN OHITURA URTEZ-URTE JASOZ

Irakurle Kluba abian

Loramendi Euskara Elkartekoek sortu dute dagoeneko Irakurle Kluba eta prestatu dituzte irakurketa egunak. Genero ezberdinak tratatuko dituzte irakurketetan, eta lehenengoa apirilaren 18an izango da. Hasiera batean, apirilaren 17an ziren egitekoak, baina eguna aldatzea erabaki dute.

Ekimena poesiarekin hasiko dute; hain zuzen ere, Karmele Igartuaren *Itsaso kontra bat* liburuarekin. Norbanako bakoitzak bere kabuz liburua irakurri, eta apirilaren 18an solasaldia egingo dute. Hori gauzatzeko, dinamizatzaile lanetan Itziar Gomez Sarasola idazle eta gidoilaria izango da. Horren ostean, beste hainbat saio egingo dituzte, eta bertaratzeko interesa duenak Loramendi elkartean galdetu dezake.

Euskarazko material truke azoka

Euskarazko materialaren truke azoka izango da apirilaren 21ean, zapatuan, Aretxabaletako udaletxe zaharrean. 12:00etan hasiko da euskarazko materialen berrerabilpena bultzatzeko ekimena, eta etxean erabiltzen ez diren eta egoera onean dauden euskarazko liburuak, diskoak, komikiak, mahai jolasak… eramanda, trukean beste gauza bat jasotzeko aukera izango da.

Material bilketa aste osoan zehar egingo da Loramendiko bulegoan, eta materiala bertara eramateko ordutegia honako hau izango da: astelehena, 16, 15:30etik 20:00etara; martitzena, 17, 17:00etatik 18:00etara; eguaztena, 18, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta egubakoitza, 20, 11:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 17:00etara.

Kiroldegiko berdegunean zer egin, erabakitzear

Gai asko aipatu zituzten Unai Elkoro alkateak eta Ion Albizu EH Bilduko bozeramaileak Goiena telebistako 'Harira' saioan. Besteak beste, kiroldegi aurreko berdegunea aisialdira bideratzea eta komentua, gizarte beharretara; eta kuartela zenaren egoera kaskarra

Mirari Altube ARETXABALETA

Gai askoren gainean jardun zuten kontu-kontari Unai Elkoro alkateak eta Ion Albizu EH Bilduko bozeramaileak Goiena telebistako *Harira* saioan.

Udalean ordezkaritza duten alderdi guztietako kideek hartzen dute parte Gobernu batzordean, Udal Gobernua EAJk eta PSE-EEk osatu arren, eta erabakietan adostasuna dagoela adierazi zuten: "Ikuspuntu ezberdinak ditugu, baina eztabaida handirik ez dugu izaten", zioen Elkorok, eta Albizuk gaineratu zuen: "EAJren eta PSE-EEren artean lau boto dituzte eta guk, bakarra; hortaz...". Hiru urteotan egindako lanarekin gustura agertu zen alkatea: "Ekonomikoki nahiko larri ibili gara, baina egin ditugu gauzak: tanatorioaren proiektua lekuz aldatu, Azben Eroski jartzeko asmoa bideratu... Aurten, itxaropen handia dugu. Lan asko izan arren, gogotsu gaude". Oposizioko buru Albizuk adierazi zuen "hanka-puntetan" ibili direla jeltzaleak, eta, ondorioz, kontu batzuei ez dietela heldu: "PSE-EEren doako botoarekin, gainera, gehiengo absolutua dute".

Unai Elkoro alkatea eta Ion Albizu EH Bilduko bozeramailea. MIRARI ALTUBE

Komentua, gizarte beharretara

Aurten milioi eta erdiko gerakina du Udalak eta 600.000 euro erabilgarri dituzte dagoeneko; horrek lasaitasuna eman die, eta beste proiektu batzuei heltzeko aukera zabaldu: "Asfaltatze-lan batzuk egiteko genituen, eta orain, astindu bat emango diegu; Nafarroa, Loramendi eta Errekabarren kaleak, esaterako, oso egoera txarrean daude". Albizuk ere esan zuen azken urteak "gogorrak" izan direla: "Era berean, esan, dirurik ez dela egon, baina planifikatzeko denbora bai, eta galdu egin dela denbora hori".

Udalarenak diren eraikinei tarte handia eskaini zien. "Komentua gizarte beharretara bideratu gurako genuke; adibidez, lehenengo solairuan hirugarren adinekoendako etxebizitzak, eguneko zentroa eta baliteke Basotxo erretiratuen elkartearendako lekua ere. Baina proiektua egin behar da, eta, gainera, beste eskaera batzuk ere baditu etxe horrek". EH Bilduko bozeramaileak eraikinen gaineko plangintza baten beharra azpimarratu zuen: "Beharren eta baliabideen artean plangintza bat egiteko eskatu genuen". Era berean, hirugarren adinekoen zinegotzi arlo bat sortzea proposatu zuen hark: "Gero eta kolektibo handiagoa da, aktiboa eta behar ezberdinekin". Komentuaren inguru guztia birmoldatzea ere aipatu zuen Elkorok: "Harresia bota eta ingurunearekin bat egin, baina proiektu orokor baten barruan, ibaiaren beste aldearekin bat eginaz zubitxo bat jarrita".

KUARTELA EGOERA LARRIAN DAGOELA ONARTU ZUTEN ETA BOTATZEAREN ALDE AGERTU ZEN ALKATEA

Kuartelari dagokionez, onartu zuten egoera larrian dagoela eta sormenaren topaleku den eraikin horri irteera emateko beharra adierazi zuen Albizuk. Elkoro hori botatzearen alde agertu zen, aparteko baliorik ez duela iritzita: "Hobe da bota eta berria eraikitzea hori konpontzen hastea baino".

Azbe lantegi zaharrean Eroski jartzeko prozesua oraindik ez dela bukatu argitu zuen Elkorok, eta horregatik ez dagoela mugimendurik: "Baimenen zain daude eta oraindik hilabete batzuk pasatuko dira".

Futbol zelai aurreko berdegunearen gainean hausnartu nahia ere agertu zuten. "Futbol zelai beharra du UDAk, baina uda sasoian zergatik ez eman aisialdirako beste erabilera bat. Inguru guztia hartu behar dugu kontuan", zioen alkateak.

Gazteen gaineko kezka ere agertu zen: "Nerabeendako parte-hartze prozesua egin gura dugu, zer eskatzen duten entzuteko horiei". Albizuk ere esan zuen entzun egin behar zaiela: "18 urte arteko plan berezi bat behar du gazteen kontuak, eta proposamen bat zehazten gabiltza gu".

Literatura Astea, apirilaren 16an hasita, Kurtzebarri eskolan

Astelehenean Juan Kruz Igerabideren bisita izango dute eta eguenean Irakur Maratoiarekin bukatuko dute astea

Goiena komunitatea

Kurtzebarri eskola / ARETXABALETA

Aurten, apirilaren 16tik 19ra bitartean ospatu dugu Kurtzebarri eskolan Literatura Astea, 27. ekitaldia, hain zuzen ere.

Aurten, ura ardatz hartuta, hainbat lan burutu dira: ikasleek sortutako olerkiak, bertsoak, ipuinak... Gainera, 6. mailakoek gaiarekin lotutako atsotitzen bildumatxo bat egingo dute, eta astean zehar honen berri emango diete gainerako ikasleei.

Horrez gain, astelehenean, Juan Kruz Igerabide idazlea etorriko zaigu eskolara, 1. mailakoekin solasalditxo bat izatera. Jarraian, 5. mailakoak berarekin Arkupeko liburutegian elkartuko dira euren saioa egiteko.

Aurten ere, 2 urteko ikasleekin hasi eta 6. mailakoak arte, ipuin kateatuak sortuko ditugu. Eta, beste ekintza batzuen artean, Liburu Truke Azoka ere antolatu dugu.

Literatura topaketei bukaera emateko, apirilaren 19an, 27. Irakur Maratoia egingo dugu. Ekintza horretan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

GORA ETA BEHERA

M.A.

Zebra-bidea Errekabarren kalean

Herritar batek txalotu egin du zebra-bideak egokitzeko Udalak egindako lana: "Eta, bereziki, Errekabarren kalean jarri duten zebra-bide berria aipatu gura dut; behar-beharrezkoa zen".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

'Chef Chof' antzezlana domekan, umeendako, Arkupen

Sukaldaritza kontuak gai hartuta eta umorea oinarri izanda joango dira Trokolo Teatroa taldeko kideak *Chef Chof* antzezlanarekin, domekan, Arkupera (12:00; sarrera, 3 euro). Chefek eta Chofek tirabira galantak izango dituzte, batak sukaldaritza osasungarriaren alde egingo duelako eta besteak sukaldaritza bizkorra duelako gustuko.

Haurrendako masaje ikastaroa egingo dute Kurtzebarri eskolan

Sei hilabete arteko umeak dituzten familiendako antolatu dute haur masaje ikastaroa eta apirilaren 16an hasiko dituzte saioak; astelehen eta eguaztenetan izango dira (17:30), Kurtzebarri eskolan; hona hemen egunak: 16, 18, 23 eta 25. Izena emateko, eskolara deitu behar da (943 79 00 49). Jantzi erosoak eta eskuoihala eramatea gomendatu dute.

Pedro Jauregi Leibarren argazkia, liburuaren azala osatuko duena. AITOR ANTXIA LETURIA

Pedro Jauregi Leibar gogora ekartzeko liburua

Historia kontuetan eta artxibo lanetan aditua den Aitor Antxia Leturiak herritar baten gaineko kontuak jaso ditu oraingoan, liburuan: 'Pedro Jauregi Leibar, Aretxabaletako lehen alkate abertzalea'. Bihar, zapatua, aurkeztuko du, Arkupen

Mirari Altube ARETXABALETA

Pedro Jauregi Leibar aretxabaletarra zein izan zen ezagutzeko aukera izango dute herritarrek. Aitor Antxia Leturiak haren gaineko kontuak jaso ditu liburutxoan eta bihar, apirilak 14, aurkeztuko du hori Arkupen (12:00). *Pedro Jauregi Leibar, Aretxabaletako lehen alkate abertzalea* liburuaren aurkezpenean, Antxiarekin batera izango dira, besteak beste, Jauregiren senideak, udal ordezkariak eta Gogora institutuko ordezkariak.

Alkate izendatua 1931n

"Kanpoko eskaera bati esker hasi nuen ikerketa, baina aurretik ere banekien alkate jatorra eta ezaguna izan zela", halaxe abiatu zuen lana Antxiak. Jauregiren bizitzako pasarteak eta istorioak jaso ditu, baita datu genealogikoak eta gorabehera politikoak ere, politikak zeresan handia izan zuelako haren bizitzan, batez ere, II. Errepublikatik Espainiako gerra bukatu arte.

Bigarren Errepublikan, 1931n, izendatu zuten alkate. Hauteskundeak deitu zituzten orduan, eta PNV-EAJk bost zinegotzi lortu zituen eta Katoliko Monarkikoek beste bost. "Alkatea izendatzeko bozketa egin zenean bederatzi boto jaso zituen Jauregik; hau da, bere alderdikoez gain, beste lau ere bai. Horrek zerbait esan gura du", dio Antxiak.

Hurrengo urtean, baina, hainbat udalbatza deuseztatu zituen gobernadoreak Gipuzkoan, alkateak kendu eta batzorde eragileak izendatu. 1934an, udalbatza berria izendatu zuen gobernadore horrek, baita alkatea ere: Jose Mari Amuriza. Baina 1935ean berreskuratu egin zituzten euren karguak Jauregik

ALKATE IZENDATU ZUTEN JELTZALEEN ETA KATOLIKO MONARKIKOEN LAU BOTOREKIN

eta haren kideek. Urte haien bueltan EAJren Udal Buru Batzarrak lokala ireki zuen Durana kalean; Emakume Abertzale Batzak Aretxabaletako ikastola antolatua zeukan; Goroeta auzorako bide berria egitea erabaki zen, langabeak kontratatuta; sekularizazioa sustatu zen *Cementerio Civil* izeneko kartela jarrita; eta ikurrinaren aldeko mozioa aurkeztu zuten.

Hamabi urte kartzelan

Kargutik kendu egin zuten 1936an, Gerra Zibila hastean, eta hurrengo urtean atxilotu Santoñan. 30 urteko kartzela zigorra ezarri zioten eta hamabi urte egin ondoren askatu zuten. Errenteriara joan zen bizi izatera orduan, hil arte. 1978an, Kurtzebarri mendiko gurutzearen 50. urteurreneko ospakizunean, omenalditxoa jaso zuen Aretxabaletan; izan ere, gurutzea jarri zuenetako bat izan zen hura.

Liburua salgai egongo da bihartik, Arkupen, 3 euroren truke.

Uztaileko udaleku irekietarako izen-ematea, hilaren 16tik zabalik

Apirilaren 30a bitartean eraman ahal izango dira eskaera agiriak beteta Arkupera edo Algara ludotekara

M.A. ARETXABALETA

Udaleku irekiak gertatzen dabil Loramendi elkarteko Aisialdi taldea, eta astelehenean, apirilaren 16an, zabalduko dute izena emateko epea. Eskaera orriak dagoeneko banatu dizkiete neska-mutikoei ikastetxeetan, eta horiek beteta eta ordainagiriarekin batera –75 euro ume bakoitzeko; hirugarren semek-alaba, debalde– apirilaren 30a bitartean aurkeztu beharko dituzte; Arkupe kultura etxera eta Algara ludotekara eraman ahal izango dira.

2014 eta 2006 artean jaiotakoak

Uztailaren 2tik 20ra izango dituzte udaleku irekiak Haur Hezkuntzako lehenengo mailatik Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arteko neska-mutikoek, hau da, 2014 eta 2006 artean jaiotakoek. Hiru asteotarako ekintza sorta handia gertatuko diete, eta, besteak beste, izango dituzte irteerak –mendira, auzoetara, igerilekura…–, eskulan tailerrak eta ospakizun berezien egunak.

Antolatzaileek adierazi dute plazak mugatuak direla-eta izen-emate epea errespetatzeko.

MIRARI ALTUBE

Basotxoko zuzendaritza, lanean

Lanean hasita dago erretiratuen elkarteko zuzendaritza batzordea, baina agurtzeko zituzten orain arte jardundakoak, Jabier Zaloña eta Tere Artano. Bazkaltzeko elkartu ziren guztiak. Argazkian, egungo kideak: Jose Rodriguez (presidentea), Kontxi Romano (presidenteordea), Ramiro Gomez (diruzaina), Tere Delgado (idazkaria), Isa Olivenza, Pedro Etxebarria, Nieves Gonzalo eta Jose Gato.

Larrino eta Aozaratza auzoetako altxorrak ezagutzen domekan

Ezkutuko altxorrak ekimenaren baitan bisita gidatua antolatu du Debagoieneko Mankomunitateak domekarako, apirilak 15, Larrino eta Aozaratza auzoetara. Aitor Antxia Leturiak gidatuta historia kontuak izango dituzte berbagai; Juan de Uriberen kontuak, esaterako. Larrinoko elizan elkartuko dira, 11:00etan.

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Aparkalekuen ondorioz, epaiketa

Martitzenean 'Harira' saioan izan ziren aurrez aurre Joserra Zubizarreta alkatea (EAJ) eta Aitor Zubizarreta EH Bilduko bozeramailea. Atxorrotxeko indusketak, Santa Anako aparkalekuak eta Intxaurtxuetako etxeak izan zituzten hizpide, besteak beste

Joserra Zubizarreta eta Aitor Zubizarreta, Goienako platoan. IMANOL BELOKI

Imanol Beloki ESKORIATZA

Hainbat gai izan dituzte eztabaidagai Eskoriatzako udal ordezkari nagusiek *Harira* saioan: Joserra Zubizarreta alkatea (EAJ) eta Aitor Zubizarreta EH Bilduren bozeramailea izan dira Goienako platoan aurrez aurre, eta Irabazi taldeko kide Rafa Bernal platoan egon ez zen arren, haren iritzia ere jaso zen aurrez; azken hiru urteetan Udal Gobernuak egindako lanaren gainekoa, hain zuzen ere. Elizateen Elkarteko Iñaki Kerexetak, aldiz, ez du parte hartu eztabaidan.

Hiru urteko legealdiko proiektu garrantzitsuenak azpimarratu zituen, lehenbizi, Joserra Zubizarreta alkateak: "Gu sartu berritan, Aratz-Aizkorriko parke naturaleko kontuekin asko ikasi genuen elizateetako baserritarrekin... eta hor hasi ginen sektore ezberdinetan murgiltzen. Kanposantua berritu dugu, Kuatruena auzorako semaforoa eta bidegorria bukatu genuen, haur parke berri bat sortu genuen bertan, herritarrentzako espaloi zatiak amaitu ditugu Santa Ana auzoan eta Arbiñosten, Intxaurtxuetako urbanizazioa egin dugu, eta etxeak egiten ari dira...". Horren harira, Aitor Zubizarreta EH Bilduko bozeramaileak adierazi zuen beste modu batean ikusten dutela alderdi jeltzalearen ibilbidea: "Gai puntualak egin dira herrian, baina faltan igarri dugu epe ertain eta luzera begirako ikuspegia. Kuatruenara bidean dagoen bidegorrian, kasu, aurrekontuak egokitu egiten dira diru laguntzen arabera. Atxorrotxeko indusketetan berdin...".

SANTA ANA APARKALEKUEI IRTENBIDEA EMATEKO, AKORDIOTAN ARI DA ESKORIATZAKO UDALA

Santa Ana aparkalekua

Santa Ana auzoko aparkalekua itxi izanaren gaia ere atera zuten mahai gainera, orain arte egon den alokairu kontratua hizpide izanda. Hauxe adierazi zuen Joserra Zubizarreta alkateak: "Alokairu bat zegoen lehen, 5.000 eurokoa, eta aurrekontuetan aurreikusi genuen 18.000 euroko aurrekontua proposatu genien; ezetza eman ziguten. Han 80 aparkaleku galdu genituen, eta, horregatik, Arbiñosteko espaloi zati bat baliatu genuen eta herrian zehar beste 80 aparkaleku jarri genituen...". Aitor Zubizarretak, berriz, adierazi zuen informazio ezberdinak heldu zaizkiola, eta negoziazioa dela bidea. "Arazo bat da. Jabeek ez dutela inongo preziorik jarri esan didate niri, eta *justiprezio* bat eskatu dutela. Hor negoziazio bat egon behar da, baina alde ilun bat dago, ez dago aktarik...".

Epaiketa eta birplanteamendua

Gai horri lotuta, orubearen jabeak Udalari epaiketa jarri diola adierazi zuen Zubizarreta alkateak: "Maiatzean aparkalekua ixteko eskatu zigun lurjabeak, eta guk uztailera arte eskatu genion. Uztailera arte ordaintzera joan gara, eta urte osoa ordaintzeko adierazi digu berak. Bestalde, gainerako jabeekin beste planteamendu bat dugu; oraindik lotzeko gauza batzuk daude".

Aparkalekuez gainera, Intxaurtxuetako etxeak –herri sarrerakoak– hamar urte geldi egon ostean, urbanizazioa behar bezala jartzearen gainean hitz egin zuten. Kasu horretan, negoziazioa izan zela adierazi zuten, eta akordioa egin izana oso positiboa izan dela gaineratu zuten.

Etorkizunari begira

Hiru urteko legealdia pertsona eta herritar bezala esperientzia aberatsa izan dela adierazi zuen alkateak, eta alderdiak nahi badu jarraituko duela. Aitor Zubizarretak, bestalde, adierazi zuen euren lana izan dela oposizio eraikitzailea egitea, eta hauteskundeei begira jende gazte berriaren aldeko apustua egin nahi dutela.

Hitzaldiaren antolatzaileak San Juan de Dios ospitalean batu dira aste honetan gaiaz hitz egiteko. MAIDER ETXANIZ

Nerabeen substantzien kontsumoa berbagai

Apirilaren 18an, eguaztenean, 'Eta orain, begiratu beste alde batera!' hitzaldia izango da, Zaldibar antzokian, 18:00etan. Nerabeen artean izaten diren substantzien gehiegizko kontsumoaz hitz egiteko eta kezkak partekatzeko aukera izango da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Nerabeen artean izaten den substantzien gehiegizko kontsumoaren gaineko hitzaldia izango da. Abiapuntua dago Aretxabaletako UDA kirol elkarteak eta Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek elkarlanean San Juan de Dios Ospitalearekin hasitako esperientzian.

Hala, apirilaren 18an, 18:00etan, *Eta orain, begiratu beste alde batera*! hitzaldia izango da Zaldibar antzokian. Gazteleraz izango da saioa, eta San Juan de Dios Ospitaleko Emilio Martin psikologo klinikoa izango da azalpenak ematen. Hitzaldia irekia den arren, izena ematea komeni da, antolakuntza lanak errazte aldera. Horretarako, *gazteria@eskoriatza.eus* helbide elektronikora mezu bat idatzi edo 943 71 46 88 telefonora deitu beharko da.

Parte hartzeko modua

Hitzaldian parte hartzeko modu horiez gain, *Doodle* plataforma-ra zuzentzen duen esteka bat dago Eskoriatzako udal webgunean, eta bertan eskatzen dena betetzea eskatu dute antolatzaileek, hitzaldira zenbat pertsona joango diren jakiteko. Saio horretan parte hartzearen garrantzia azpimarratu du Udalak, informatuta egotea denon ardura dela gaineratuta.

Datuak abiapuntu

Eguazteneko hitzaldiaren abiapuntua Eskoriatzako eta Aretxabaletako nerabeei egindako alkoholaren eta beste droga batzuen gaineko inkesta bat da, eta, hain zuzen ere, datu horiek erreferentzia izanda, bi herrietako ikuspegia islatzen saiatuko dira.

SAN JUAN DE DIOS OSPITALEKO EMILIO MARTIN PSIKOLOGO KLINIKOA IZANGO DA AZALPENAK EMATEN

Familiaren eragina

Proiektuak nerabearen garapen positiboaren eredua hartzen du erreferentziatzat. Eredu horrek nerabearen ongizatean jartzen du ardatza, eta ongizate pertsonala eta soziala izateko beharrezkoak diren trebetasunak, jokaerak eta gaitasunak lantzea du helburu. Familiak nerabeengan eragin handia dauka, bertan ezartzen baitira ohiturak, arauak eta trebetasunak. Familiak dauka gazteak etorkizunean izango direnaren giltza eta nerabeen ongizatean eragiteko gaitasun handiena.

Horiek horrela, gai horiei buruz hitz egiteko Zaldibar antzokian antolatu duten hitzaldian parte hartzeko gonbidapena egin dute antolatzaileek; batez ere, nerabeak dituzten Eskoriatzako gurasoei. Bertan, nerabeekin landutakoaren berri emango dute eta gurasoek dituzten kezkak konpartituko dituzte San Juan de Dios Ospitaleko teknikariekin batera.

Gora Bilbao taldea izango dute aurkari Eskoriatzako taldeek

Ohorezko gazteek 18:00etan izango dute partidua, zapatuan, eta Euskal Ligakoek 20:00etan

I.B ESKORIATZA

Hiru jardunaldi geratzen zaizkie denboraldia amaitzeko Eskoriatzako Euskal Ligako eta Ohorezko Gazte Mailako gizonezkoen areto futbol taldeei. Biek ala biek zapatuan jokatuko dute Manuel Muñozen partidua, eta biek, gainera, Gora Bilbao Red Blue taldea izango dute aurkari.

18:00etan ohorezko gazteek jokatuko dute, lehenbizi, eta ostean, 20:00etan, Iker Molina entrenatzailearen mutilen txanda izango da. Talde nagusiak ez du ezer jokoan, baina Ohorezko Gazteek hirugarren postua lortzeko lehian jarraitzen dute; aurreko taldearengandik puntu bakarrera daude.

Senior mailako emakumezkoei, aldiz, bi jardunaldi geratzen zaizkie denboraldia amaitzeko, eta, azken txanpan, gauzak zail samar jarri zaizkie. Izan ere, bosgarren dira sailkapenean, eta laugarren geratu behar dute, nahitaez, *play-off*-etan sartzeko. Hain zuzen ere, gaur jokatuko dute, Teep Samaniego Orixe Tolosaldea taldearen aurka, Tolosan.

Indianoen diruarekin eraikitako etxeei bisita, zapatuan

Zapatuan, Eskoriatzako zenbait eraikin historiko bisitatzeko aukera izango da. Indianoen diruarekin eraikitako etxeak, hain zuzen ere: Errosario Santuko Ospitalea, gaur egun Huhezi fakultatea dena, XVII. mendearen hasieran eraikia; San Pedro eliza, XVIII. mendearen bukaeran eraiki zena; Ganuza edo Gaztañaudi jauregia; eta Zalbidegoitia jauregia, gaur egun kultura etxea dena. Gainera, Ganuza jauregian, ezkutatuta dagoen altxor bat ikusteko aukera izango dute bertaratzen direnek: XIX. mendeko paper margotuak, hain zuzen ere.

Bisita gidatua 12:00etan hasiko da, Ibarraundi museoan, eta izena eman nahi dutenek Debagoieneko Mankomunitatera deitu (943 79 64 63) edo posta elektronikoa bidali beharko dute, helbide honetara: *turismo@debagoiena.eus*.

I.B

Lete auzorako bidea itxita dago

Ur pilaketen ondorioz, Sorautz eta Elorreta bitarteko oinezko pasabidean bidea zartatuta dago. Horrez gainera, Letera doan bidea itxita dago eta bertako bizilagunak Erañatik bueltan joaten ari dira auzora. Horrekin batera, saihesbidean lanak egin dituzte aste honetan, asfaltoa altxatu egin baita.

'Ergela' lana, komediaz eta misterioz betea

Txalo Produkzioek ekoitzitako antzezlana aurkeztera etorriko dira domekan Joseba Apaolaza eta Sara Cozar euskal aktore ezagunak. Interpretatuko duten lana, berriz, 'Ergela' izenekoa da, eta 19:00etan izango da, Zaldibar antzokian

Imanol Beloki ESKORIATZA

Ergela antzezlana taularatuko dute domeka honetan Zaldibar antzokian. Joseba Apaolaza eta Sara Cozar aktore euskaldunak igoko dira oholtzara Txalo Produkzioek ekoitzitako antzezlana aurkeztera. Emanaldia 19:00etan hasiko da eta sarrerak leihatilan erosi ahal izango dira egunean bertan, lau eurotan, saioa hasi aurretik, edo prezio berean aldez aurretik, Manuel Muñoz kioskoan.

Sara Cozar eta Joseba Apaolaza aktoreak. ZAZPI ALDIZKARIA

Proba psikologiko batzuetara aurkeztu da protagonista –Joseba Apaolaza–, egunkari baten irakurri duen iragarki baten bidez, diru pixka bat irabazteko asmoz. Arazo ekonomikoak konpontzeko diru erraza irabaztekotan joan da, baina tranpa eta iruzurra aurkituko ditu ordainetan. Psikologo misteriotsu batek –Sara Cozar– galdera sorta tranpatia egingo dio, urduritasunak jota utzi arte. Halabeharrez, bere onenak eman beharko ditu zoritxarreko amaierarik gerta ez dadin.

Komediaz eta misterioz betea

90 minutu inguru izango dituen antzezlana Jordi Casanovasek sortutakoa da, eta Begoña Bilbao da zuzendaria. Txalo antzerki taldearen funtzio horrek komedia eta *thriller*-a edo misterioa nahasten ditu; izan ere, trama guztiz ezinezkoak jarriko ditu jendaurrean, baina aldi berean sinesgarria ere bada, eta drama ere baduela esan daiteke, ikuslea entretenitzeko eta euren arreta pizteko solasaldiz betea dago eta.

Helburu ugariko antzezlana

Sara Cozar aktoreak psikologo maltzurraren eta bihozgabearen papera hartuko du *Ergela* lanean eta Joseba Apaolazak, berriz, pertsonaia patetikoarena. Ibilbide luzea duten aktoreak dira, eta nork bere papera bikain egiten duena oholtzan. Nolabait, gizartea kontrolatu eta manipulatzen dutenek nolako ahaleginak egiten dituzten kontrolatzen jarraitzeko izango litzateke obraren esanahia, edo jendeari ikusarazi nahiko diotena protagonistek antzerki obra horretan.

Horrekin batera, ikusleari pentsaraztea du helburu obrak; enigmak eta asmakizunak daude, eta, nolabait, ikus-entzuleak obraren barruan sartzeko helburua du *Ergela* lanak.

Garabiaren laguntzarekin konponketa-lanak egiten ari dira. IMANOL BELOKI

Lur-jausiko lanak aurrera bidean, garabiaren laguntzarekin

Leintz Gatzagako errepideak itxita jarraitzen du, eta Aterbe landetxeraino soilik igo daitezke ibilgailuak

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Martxoaren 26an lur-jausia izan zen Leintz Gatzagako GI-3310 errepidean, Begiñarru baserriaren eta Gatzagain arteko errepidean. Ordutik hona, itxita dago errepidea, eta Aterbe landetxeraino soilik igo daitezke autoak.

Foru Aldundiko Bide Azpiegitura Departamentuak jakinarazi du bidea oztopatzen zuten lurrak dagoeneko kendu zituztela lur-jausia izan eta gutxira, baina errepide bazterreko lurrei eusteko beste hainbat lan egiten hasi dira dagoeneko.

Aste Santua ezkero, garabia

Aste Santura arte itxita egon da lur-jausia izan zen errepide zatia, baina, lurra kenduta, autoak pasatzeko pasabidea zegoen. Hala ere, ordutik hona, garabia jarri dute, eta ez dago errepidetik pasatzerik. Beraz, AP-1 errepidea edo Arlabango bidea erabili beharko da.

Aste honetan izan diren euriteek ez dute lagundu lanak egiten, baina, zuhaitz, zuhaixka eta harriak kenduta, arriskua gutxitu dute dagoeneko. Eremua guztiz garbitzean, lurrei eusteko sarea eta buloiak erabiliko dira. Horiek hamar edo hamabost egun barru jarriko direla jakinarazi du Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura Departamentuak. Hala ere, garabia kendu bezain pronto, lehenbailehen, errei bat zabalduko dute, bi noranzkoetan ibilgailuak pasatu daitezen.

Gatzagara joateko arazo barik

Eskoriatzako Aingeru Guardako biribilgunean kartela jarrita dago Aterbetik aurrera ezin dela pasa jakinaraziz. Hala ere, Leintz Gatzaga herrira joateko ez dago inongo oztoporik.

Txotxongilo antzerki tailerrean izena emateko azken eguna

Zapatuan, Txotxongilo antzerki hastapen ikastaroa emango du Larraitz Iparragirre eskoriatzarrak kultura etxean. Ikastaroa 10:00etan hasi eta 14:00etan amaituko da eta prezioa 10 eurokoa da. Hala, oraindik plaza libreak daude, eta izena eman nahi duenak kultura etxera deitu beharko du, 943 71 46 88 telefono zenbakira.

Gatzagatik Oionera, arrainaren eta ardoaren ibilbidetik

Apirilaren 28an, zapatuan, 06:30ean, Gatz Museoan batuta, eguzkiari aurre eginez eta harreman sarea sortuz, ilundu aurretik, 20:30 inguruan, erreleboka Oionera heltzeko helburuarekin antolatutako mendi ibilaldia izango da. GR-38, ardoaren eta arrainaren ibilbidea, egingo dute, taldeka, eta talde bakoitzak Leintz Gatzagako pakete bat gatz eta Hiruerreketako ura eramango du testigu gisa. Guztira, 79,91 kilometro egingo dituzte bertaratzen direnek, eta, autonomia osoz, GR ibilbidea jarraituz heldu beharko dute bertara. Taldeek lau eta sei artekoak izan beharko dute, eta mistoak; bost gizonezko eta emakumezko bat zein bost emakumezko eta gizonezko bat. Informazio gehiagorako, 688 88 12 90 telefono zenbakira (Oier) edo 608 348 522 (Rosa) telefono zenbakira deitu beharko da.

Sistema eta buru berria, Udaltzaingoa hobetzeko

Tetra irrati sistema digital berriak emergentzia zerbitzuen eta udaltzainen arteko elkarlana "nabarmen" hobetuko du; bestalde, Ander Okiñena udaltzainburu berriaren egitekoen artean egongo da gertutasunezko Udaltzaingo bat sustatzea, funtzio asistentziala indartuz

Jokin Bereziartua BERGARA

Udaltzaingoa Tetra irrati sistema digital berria erabiltzen hasi zen martxoa erdialdean. Orain arteko sistema analogikoa ordezkatu dute horrekin, eta, Udalaren arabera, udaltzain guztiek sistema digital hori txertatuta duten walkie-talkieak erabiltzen dituzten orain.

Emergentzia zerbitzuek komunikaziorako erabiltzen duten sistema da Tetra, eta, modu horretan, Udaltzaingoaren eta zerbitzu horien arteko elkarlana "nabarmen" hobetuko dela uste du Udalak. Sistema berri horri esker "estaldura hobea" eman ahalko dutela azpimarratu dute, herritarrei eskaini beharreko zerbitzuan "modu positiboan" eraginez.

Ander Okiñena udaltzainburu berria San Martin plazan, atzo. B.U.

Bi hobekuntza azpimarratu dituzte: batetik, larrialdi meteorologiko edo bestelako larrialdi baten aurrean, herrian egon daitezkeen ekintza, ekitaldi eta bestelakoetan, gainontzeko larrialdi zerbitzuekin komunikazio kanal berriak sortzeko aukera ematen du, zerbitzu guztien koordinazioa erosoagoa eta azkarragoa bilakatuz. Bestetik, udaltzainek erabiliko dituzten irratiek GPS sistema dute. Horren bidez, urruneko lekuetan sortu daitezkeen ezbeharretan beste larrialdi zerbitzuei lekua zehaztea errazagoa izango zaie.

Okiñena, udaltzainburu berria

2017ko azaroaren 1a ezkero, Ander Okiñena andoaindarra da udaltzainburu berria. Okiñena 2009an udaltzain agente hasi zen lanean Bergarako Udalean, 2015era arte. Sei urte haietan agente moduan aritzeaz gain, lehen agentearen ordezko lanak ere egin zituen. Bi urte kanpoan egon ostean, iazko urte amaiera ezkero da udaltzainburua, barne promoziozko hautaketa prozesua gainditu ondoren. Honako hauek izango dira Okiñenaren egiteko nagusiak: Udaltzaingoaren egitekoen antolaketa eraginkorra bultzatzea herriaren beharrei ahalik eta modu egokienean erantzuteko; arrisku publikoen eta larrialdien egoeretarako protokoloak egin, horiek inplementatu eta horiek zabaldu, Udalaren beste zerbitzuekin koordinazio-bideak landuz; eta gertutasunezko Udaltzaingo bat sustatu funtzio asistentziala indartuz, herritarren eskaerei eraginkortasunez erantzuteko.

Euskaraldirako dinamizatzailea behar dugu, apiriletik abendura

Curriculumak aurkeztu behar dira apirilaren 22a baino lehen, Jardunera jota edo 'jardun@topagunea.com'-en

Goiena komunitatea

Jardun elkartea / BERGARA

Lan deialdi batekin gatoz oraingoan; izan ere, *Euskaraldia: 11 egun euskaraz* ekimenerako dinamizatzailea kontratatuko dugu. Apiriletik abuztu amaiera arte egunean bi orduko lanaldia izango da eta irailetik abendu amaierara arte, berriz, egunean lau ordukoa.

Curriculumak aurkezteko azken eguna apirilaren 22a izango da eta hautagaiek honako baldintzak bete beharko dituzte: euskara maila egokia izatea; herria eta eskualdea ezagutzea; euskaltzaleak izatea eta euskalgintza ezagutzea; jendearekin harremanetarako gaitasuna izatea; eragiletzarako gaitasuna izatea; kudeaketarako gaitasuna izatea; komunikazio alorreko –sare sozialak, web orria, bideoen sorrera...– ezagutza izatea; ofimatika; lanerako autonomia maila altua izatea; eta ordutegi malgua izatea. Curriculuma Jardun elkartearen egoitzan –kultura etxea– aurkeztu edo *jardun@topagunea.com* helbidera bidali.

Jaietako zapirako lehiaketa

Bestalde, martxan dugu Pentekosteetako zapira begirako marrazki eta lelo lehiaketa. Edonork har dezake parte lehiaketan, adin mugarik gabe, eta marrazkia jaiekin lotutakoa izateaz gain euskararen aldeko lelo labur bat izan beharko du.

Saria 100 eurokoa izango da baina eman gabe gera daiteke epaimahaiak hala erabakitzen badu. Marrazkia eta leloa aurkezteko azken eguna izango da apirilaren 26a; Jardun elkartearen bulegoan edo *jardun@topagunea.com* helbide elektronikora bidali beharko dira.

Auzuen Arteko Eguna Uberan hilaren 21ean, harremanak indartzeko

Bergarako auzoetako gazte talde baten ekimenez, apirilaren 21ean Auzuen Arteko Eguna ospatuko dute Uberan. Auzoen arteko harremanak indartzea da helburua eta euren asmoa da jaia urtero auzo ezberdin baten ospatzea. Honako hau izango da hilaren 21eko egitaraua: mus txapelketa (17:00), jolasak (18:00), DJ Aldabena (19:00), pintxo-potea (20:00), auzo afaria (21:00), sari banaketa (22:30), Fan & Go erromeria (23:00), Elvis Caino (02:30) eta txokolate-jana (06:00). Afarian izena eman behar da apirilaren 15a baino lehen, auzo guztietan jarriko diren zerrendetan: Uberako Jaolatza elkartearen atarian, Osintxuko Txuringo tabernan, Angiozarko Pagomendi elkartean eta Elosuko, Elorregiko, San Blasko, San Juango eta San Kristobalgo auzo elkarteetan. "Goazen auzoak indartzera!", adierazi dute.

Ford
MUGARRI
7 urteko garantia
auto berri guztietan
Debagoieneko kontzesionario ofiziala
Arrasate • San Andres Auzoa 6
943 79 07 44/54 • 670 82 71 86
www.mugarri.eus

Udaleku irekiak –argazkian, sanferminak ospatzen– udako eskaintzaren klasiko hutsak dira; iaz, 525 umek hartu zuten parte. GOIENA

"Aisialdi hezitzailerako" eskaintza zabala udan

Udalak eguaztenean aurkeztu zuen umeei eta nerabeei zuzendutako udako eskaintza, apirilaren 16an irekiko da-eta ekintza horietarako izen-ematea: 'www.bergara.eus' webgunean, liburutegian, Laboratoriumen eta Agorrosinen eman ahalko da izena

Jokin Bereziartua BERGARA

Apirilaren 16an irekiko da udarako ume eta nerabeendako aisialdi kanpainan izena emateko epea. Horretarako aukera egongo da Udalaren webgunean *(www.bergara.eus),* Udal Liburutegian, Laboratorium museoan eta Agorrosin Kirol Gunean.

Kultura zinegotzi Maite Agirrek dio haur eta nerabeen ardura erantzukizun publikoa ere badela: "Udalaren nahia da aisialdi hezitzailea bermatzea eta lanaren zein familiaren arteko kontziliazioa erraztea. Urtez urte gero eta ume eta nerabe gehiagok parte hartzen dute ekintza horietan, eta orain arteko ibilbidean herritarrengandik oso balorazio ona jaso du udako aisialdi eskaintzak".

Kirola, aisialdiari oso lotuta

Udaleko ordezkariek diotenez, kirola eta kirolak dituen balioak garrantzitsuak dira aisialdi eskaintzaren baitan. "Udako kirol kanpainak erantzun polita izaten du. Azken finean, neguan horrenbeste praktikatzen ez diren kirolak lantzeko eta gozatzeko bidea ematen du", azaldu zuen Hezkuntza zinegotzi Izaskun Labaienek. Txanda bakarreko eta bi txandako ikastaroak egingo dituzte, norberaren gustuetara eta beharretara egokituta.

Uretako indusketa arkeologikoa

Udako eskaintza ezin da udaleku irekiak barik ulertu. Izan ere, gero eta familia gehiagok erabiltzen duten eskaintza izaten da. Bada hiru asteko udalekua eta baita lau astekoa ere. Iaz, esaterako, 525 ume ibili ziren udaleku irekietan.

Bestalde, aurten ere liburutegi zerbitzua igerilekura hurbilduko da Bibliopiszina ekimenaren bitartez; udan ere irakurzaletasuna bultzatzea da helburua.

UDALEKU IREKIAK KLASIKO HUTSAK DIRA: IAZ, 3 ETA 12 URTE ARTEKO 525 UMEK HARTU ZUTEN PARTE

Beste ekimen berezi bat sormen tailerra da. Iaz egin zen lehenengo aldiz eta oso harrera ona izan zuen. 2006an, 2007an eta 2008an jaiotako umeei dago zuzenduta, eta helburua da parte-hartzaileek antzezlan bat sortzea.

Amaitzeko, Udaleko ordezkariek beste pare bat ekintza nabarmendu dituzte: bata, uretako indusketa arkeologikoa da; uztailaren 3an izango da Agorrosingo igerilekuan hondoratuko duten itsasontzi baten. "Hirugarrenez antolatu dugu eta umeek, ikasteaz gain, oso ondo pasatzen dute". Bestetik, kanpamentu teknologikoak ere antolatu ditugu: Rallybot, Girls & Tech eta Drone Master ekintzak, besteak beste.

Eta, azkenik, familia osoarendako astronomia jardunaldia egingo dute uztailaren 18an. Tailer teorikoa goizean eta behaketa iluntzean egingo dute.

Bigarren edizioa digitalean, 750 ale astebetean agortu ostean

Edizio digitalak ekarpen berriak izango ditu; tartean, Unai Perez de Arenazari eta Aitor Laskuraini aipamen berezia

J.B. BERGARA

Astebetean agortu ziren *Pol-Pol M.T. 1942-2017. Bergarako historia sozial bat* liburuaren 750 aleak. "Poz handia sentitu dut erantzunagatik, baina pena ere eman dit herritar ugari alerik gabe geratu direlako", dio Miguel Angel Elkoroberezibar egileak. Bigarren edizioa euskarri digitalean kaleratuko du: "Paperezko bigarren edizio batek kostu handia dauka. Hala ere, edizio digitalak aukera asko eskaintzen ditu".

Elkoroberezibar aurkezpenean. I. SORIANO

Perez de Arenaza eta Laskurain

Edizio digitalerako ekarpen berriak egingo ditu ikertzaile bergararrak: "Informazioa osatzen eta zuzenketak egiten ari gara. Uda aurretik liburuaren webgune bat sortuko dut [...]. Aukerarik baldin badaukat, bigarren edizioan 1970eko hamarkadako hainbat pelikula txertatu nahiko nituzke". Gainera, martxoaren 22an Lleidan hildako Unai Perez Arenaza mendizale bergararra presente egongo da, eta bigarren edizio hori duela zenbait urte mendian ezbeharra izan zuen Aitor Laskurain polpoldar gazteari eskainiko dio.

Animatu eta parte hartu jaietako film laburren lehiaketan!

Goiena komunitatea

Xaxau jai konpartsa / BERGARA

Aurtengoa Bergarako jaietako film laburren lehiaketako seigarren edizioa izango da. Urtero bezala, gaiak librea izaten jarraituko du, baina iazko ildoari jarraituz, film labur guztietan agertu beharreko objektu eta esaldi bat definitu ditugu. Aurtengo objektua izango da bizikleta eta agertu beharreko esaldia, berriz, honako hau: *Ba... pentsau jonat/juat... zera... bibotia lagatzia!* Lanek bost minutu iraungo dute gehienez eta maiatzaren 10a baino lehen entregatu behar dira, *.avi* formatuan, *iosaaz@gmail.com* helbide elektronikora. Aurten inoiz baino lehenago hasi da jendea komentatzen, ideia onak dituzten seinale! Filmak jaietako domekan proiektatuko dira txosnetan (22.30) eta orduan erabakiko da irabazlea. Parte hartu!

OHARRAK

Errenta aitorpena euskaraz egiteko deia

Udalak dei egin du aitorpena euskaraz egiteko; 2015ean, hain zuzen, bergararren %25ek euskaraz egin zuten errenta aitorpena. Apirilaren 23tik ekainaren 30era arte da epea.

San Joxepe elkartekoen irteera Arnedora

San Joxepe erretiratu elkartekoek Arnedora egingo dute irteera, apirilaren 19an, 08:00etan. Gaur da izena emateko azken eguna.

1949an jaiotakoen ospakizuna

Maiatzaren 5ean Zabala jatetxean bazkalduko dute. Parte hartzeko 60 euroko ordainketa egin behar da apirilaren 30a baino lehen: 3035 0009 19 0091152341 (Laboral Kutxa).

Bergara Kirol Elkarteko saskibaloi saileko infantil mailako bi taldeak eta Ndank Ndank elkarteko ordezkariak, Bergaran. BKE

Duela egun gutxi heldu da BKEren materiala Senegalera. NDANK NDANK

Senegalen garapenerako, saskiratzerik solidarioena

Ndank Ndank elkartearen eta Bergara Kirol Elkarteko saskibaloi klubaren elkarlanari esker, Senegalgo Dionewar herriko neska-mutilek saskibaloiaz gozatzeko materiala jaso dute; BKEk material gehiago batuko du gaur arratsaldean San Martin plazan

Jokin Bereziartua BERGARA

Senegalen hezkuntzarekin eta osasunarekin lotuta dauden garapen proiektuak aurrera eramateko apustuaren barruan, saskibaloi kantxa bat eraiki zuten iaz Dionewar izeneko herrian, eta orain, neska-mutil senegaldarrek saskibaloian jokatu ahal izateko materiala bilatzen dihardute. Izan ere, Bergarako senegaldarren Ndank Ndank elkarteak, batetik, senegaldarren eta euskaldunon artean kulturartekotasuna sustatu nahi du; eta bestetik, Senegalen hezkuntza eta osasunarekin lotuta dauden garapen proiektuak aurrera eroatea du helburu. Saskibaloia izan da oraingoan osasuna sustatzeko tresna; Ndank Ndank elkartea BKEko saskibaloi klubarekin jarri zen harremanetan adin ezberdinetako jokalariak ekipatu ahal izateko: baloiak, kamisetak, zapatilak... "Eskerrik asko Bergarako saskibaloi taldeei bildutako materialagatik! Senegalgo Dionewar herriko haur eta gazteek asko eskertuko dute zuen ekarpena", adierazi zuten Ndank Ndank elkartekoek, materiala jaso ondoren.

Material bilketa gaur plazan

Orain, beste deialdi bat egin dute, bergarar guztiei zuzenduta. "Saskibaloi klubeko zuendaritza batzordetik lehen deialdi bat egin zen, saskibaloi klubeko guraso guztiei egina, ahalik eta material gehien biltzeko. Etxean dugun eta egoera onean dagoen materiala lortzea da helburua. Bigarren deialdia Bergarako herri guztiari zuzenduta dago eta era guztietako materiala eskatzen da", adierazi du saskibaloi klubak. Gaur, apirilak 13, egingo da material horren bilketa; San Martin plazan, 17:00etatik 20:00etara.

SASKIBALOI KANTXA EGITEA SENEGALGO GARAPEN PROIEKTU BATEN BARRUAN KOKATZEN DA

Soraluce BKEren 'fitxaketa' berriak

Iaz udaberrian eraiki zuten saskibaloi kantxa Senegalgo Dionewar herrian, eta BKEk emandako materiala duela egun batzuk heldu zitzaien; argazkian ikusten denez, Soraluce BKEren *fitxaketa* berriek gustu handiz erabiltzen dute talde bergararren elastikoa.

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA

Gipuzkoako Selekzioa garaile hiruko txapelketan

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurten 100 urte bete dituela-eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte, eta, horien artean, emakumeen futbola sustatzeko asmoz, hiruko txapelketa jokatu zen Ipintzako futbol zelaian apirilaren 4an. Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko selekzioen torneoa izan zen, kadete mailan, eta gipuzkoarrak izan ziren garaile; arabarrei 3-0 eta bizkaitarrei 1-0 irabazi zieten gipuzkoarrek, hurrenez hurren. Gipuzkoako Selekzioarekin bi debagoiendar aritu ziren: Ane Larrañaga bergararra eta Elene Guridi oñatiarra.

"Partidu eskasekin" abiatu dute Bergara Hiria pilota txapelketa

Martitzenean jarri zuten martxan Bergara Hiria pilota txapelketaren 23. aldia, binaka. Promesen mailan, Osak eta Elizegik 22-10 hartu zuten mendean Uribe eta Balerdi, eta, nagusien mailan, Prietok eta Aizpuruk 22-14 garaitu zuten Labaka eta Esquiroz. "Partiduak nahiko eskasak izan dira. Promesen mailan, Osa eta Elizegi askoz hobeak izan dira. Nagusiek ere ez dute partidu borobila egin, nahiz eta atzeko koadroetan lehia izan jokatu duten Esquirozek eta Aizpuruk", dio Reyes Azkoitiak. Hilaren 17an, Egiguren-Oliden eta Biain-Gartzia (promesak) eta Zubiria-Mariezkurrena eta Lerena-Etxabarria (nagusiak) arituko dira nor baino nor gehiago.

Eskolarteko gimnasia erritmiko txapelketa bihar Labegaraietan

Gipuzkoako eskolarteko gimnasia erritmiko txapelketa jokatuko da bihar Labegaraietako kiroldegian. A mailako bigarren fasea izango da eta bertan Gipuzkoako finalerako sailkatuko dira. 165 saio inguru egongo dira egun osoan zehar, 09:00etatik 20:00etara bitartean. "Ariznoari dagokionez, taldeak goizean kadete talde bat, bakarkako kadete bat eta senior mailako bakarkako beste gimnasta bat izango ditugu lehiatzen. Arratsaldean gazte mailako talde bat eta bakarkako bi gimnasta izango ditugu", adierazi dute Ariznoa taldeko ordezkariek. Horietan guztietan Gipuzkoa osoko gimnastak lehiatuko dira.

Musikaz gozatu, ikasi eta terapia egiteko eskaintza

Bergarako Musika Eskolak eta Udalak elkarlanean, Apirilean Musika ekimena antolatu dute, hamalaugarren aldiz; emanaldiak, tailerrak, musikoterapia saioak, kontzertu didaktikoak eta bestelako hainbat ekintza izango dira apirilaren 27ra bitartean

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako Musika Eskolako ikasleei eta, orokorrean, herritar guztiei "ezohikoak" diren ekintzak eta emanaldiak eskaintzeko asmoarekin, badator Apirilean Musika ekimena. Musika eskolak eta Udalak elkarlanean antolatzen duten ekimenaren hamalaugarren aldia da aurtengoa, eta badago nobedaderik. "Bergarak dituen eliza, areto, plaza, kaleak... erabiliko ditugu. Eta aurten Seminarixoa ere gehitu beharra dago aprobetxatu beharreko espazio horietara", adierazi zuen martitzenean egindako agerraldian Bergarako Musika Eskolako presidente Aitzol Mujikak.

Bergarako Musika Eskolan aurkeztu zuten apiril osorako egitaraua. TXOMIN MADINA

Emanaldiak, tailerrak...

Apirilaren 27ra arteko egitarauaren barruan askotariko ekintzak antolatu dituzte; tartean, zazpi tailer. Horietako bat da, esaterako, hilaren 17an egingo duten *Musika Familian* izenekoa. 0 eta 15 hilabete arteko eta 15 hilabetetik hiru urtera arteko umeei dago zuzenduta. "Maite Bikuña irakasleak eta musikoterapeutak gidatuko du, eta helburu nagusia izango da umeek gurasoekin batera musikaz gozatzea", esan zuen eskolako zuzendari Marije Ugaldek. Nagusiendako musikoterapia tailerra, Edu Muruamendiarazekin egingo den dantza tailerra eta *Instrumentuak Ezagutuz* izenekoa izango dira datozen asteetan egingo diren beste ikastaroetako batzuk. Hainbat kontzertu didaktiko eta musika eskolako ikasleen emanaldiak ere ez dira faltako aurten. Etzi, adibidez, *Erlauntzaren sekretua* ipuin musikatua eskainiko dute. "Ipuin hau David Azurzak egin zuen musika eskolarako propio duela bost urte; orduan eskaini genuen eta orain berreskuratu egin dugu. 5-9 urte arteko 60 bat umek hartuko dute parte", argitu du Ugaldek. Bestelako ekintzen artean, *El Barbero de Sevilla* operaren proiekzioa egongo da apirilaren 19an, eta hilaren 21ean, Euskal Herrian zehar bueltaka dabilen *Artxipielagoa* ikuskizuna helduko da udal pilotalekura (22:00). Egitaraua borobiltzeko, hilaren 27an, Debagoieneko musika eskolen emanaldia izango da Seminarixoan (19:00).

'Artxipielagoa', bergarartua

Artxipielagoa ikuskizunak musika, bertsolaritza, narrazioa, abestia eta bideo-proiekzioak uztartzen ditu. Diziplina batean edo bestean, artearen eta kulturaren munduan eskarmentu handia duten sei pertsona izan dira indarrak, ametsak eta gaitasunak metatuz *Artxipielagoa* posible egin dutenak: Andoni Egaña bertsolaria, Belen Ibarrola artista, Ainhoa Garmendia sopranoa, Pello Ramirez txelo eta eskusoinu jotzailea, Garikoitz Mendizabal txistularia eta German Ormazabal piano jotzailea. Ikuskizun ezberdina bezain berritzailea lortu dute elkarrekin.

Bada, apirilaren 21eko emanaldian Bergarako dantza eskolako umeek eta gazteek hartuko dute parte; 13-14 urteko hamahiru neska igoko dira agertokira. "Gaztetxoek oso pozik hartu dute gonbidapena. Entseguak musika eskolan egin ditugu eta egunean bertan *Artxipielagoa*-ko taldearekin egingo dugu azken entsegua, Udal Frontoian. Gaztetxoak ilusio handiarekin daude; edozein dantzarirendako Bergarako udal frontoian dantza egitea oso pozgarria da; are gehiago, halako artistekin", adierazi du dantza eskolako irakasle Eneko Galdosek. Gaztetxoen aurretik, baina, Edu Muruamendiaraz eta Eli Alberdi dantzariek fandango bat dantzatuko dute.

Ikuskizun berezi horretarako hainbat sarrera daude salgai, oraindik, zortzi eurotan; *https://tickets.kutxabank.es* webgunean erosi ahal izango dira.

'ARTXIPIELAGOA' IKUSKIZUNERAKO SARRERAK SALGAI DAUDE INTERNETEN, ZORTZI EUROTAN

IMANOL SORIANO

"Adrenalina plus bat izango da Elirekin dantzatzea"

EDU MURUAMENDIARAZ
AUKERAN DANTZA TALDEA

Edu Muruamendiaraz bergararrak eta Eli Alberdik batera egingo dute dantza *Artxipielagoa* ikuskizunean.

Nola amaitu duzue *Artxipielagoa*-ko parte?

Aspalditik ezagutzen dugun Garikoitz Mendizabalen bidez. Fandango bat dantzatuko dugu; musika bidali digute eta koreografia motz bat prestatu dugu. Minutu eta gutxi iraungo duen saioa izango da gurea.

Agertokira itzulera eta jaioterrian, gainera.

Bai; pozgarria eta berezia izango da. Azkenaldian, oso gutxitan igo naiz agertokira dantzatzera; Aukeran-ek 20 urte egin dituela-eta emanaldi txiki batzuk egin izan ditut. Gainera, Bergaran aspaldi ez dudala dantzatu; hamar urte izan daitezke, lasai asko. Bestalde, Elirekin [emaztea] batera Bergaran dantzatzea adrenalina plus bat izango da niretzat.

Lau akuarelistaren lanak ikusteko aukera Nahikari tabernan

Bergarako Jose Ramon Gantxegik, Arrasateko Mikel Balantzategik eta Bene Lorenzok eta Eibarko Oscar Garcia Gisasolak erakusketa ireki zuten martitzenean Nahikari tabernan. Hamasei akuarela ikusteko eta erosteko aukera dago, maiatzaren 6ra arte. Bestalde, Usoa Mendikuteren erakusketa zabalik dago oraindik Pol Pol tabernan.

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

disdira
ile-apaindegia edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Immigrazioaren aurkako aurreiritziei erantzuna

Etorkin txiroen inguruan zabalduta dauden hainbat uste direla eta, datuak eman ditu Elgetako Udalak, eta aurreiritzi okerren aurrean erantzuteko eskatu die herritarrei. Xabier Aierdi soziologoak jarrera horiei nola erantzun azaldu zuen astelehenean

Larraitz Zeberio ELGETA

Elgetak 1.145 biztanle ditu eta 86 dira Espainiatik kanpo jaiotakoak. "Gaur egun, hamaika lagunek jasotzen dute diru sarrerak bermatzeko errenta edo RGI Elgetan. Horietatik lau dira etorkinak —emakume bat eta hiru gizon— eta guztiek dituzte familia erantzukizunak. Bertakoak zazpi dira —lau emakume eta hiru gizon— eta gehiengoak ez du familia erantzukizunik". Xabier Aierdi soziologoak astelehenean egindako hitzaldiaren aurretik Gizarte Ongizate teknikari Naiara Unamunok emandako datuak dira. Unamunok gaineratu zuen laguntza hori hilean 600-850 euro artekoa dela. "Gizarte larrialdietarako diru laguntzari dagokionez, zortzi lagunek kobratzen dute Elgetan. Sei dira bertakoak eta kanpotik etorrikoak, bi".

Zurrumurruen Kontrako Sareko Xabier Aierdi diskriminazio egoerak bideratzen dituzten aurreiritziei buruz aritu zen. "Gure gizartean ditugun arazoak konpontzeko behar dugu immigrazioa, eta ez gara agente pasiboak prozesu horretan. Normalean, guk aukeratzen dugu zer-nolako immigrazioa nahi dugun eta zertarako. Hemen, zaintza lanetarako behar dugu", esan zuen. "Immigrazioa aztertzeko orduan, ordea, bestelako eskemak erabiltzen ditugu. Pentsatzen dugu gurea dena kentzera datozela eta aurreiritziekin eta estereotipoekin jokatzen dugu. Nahiz eta gure sinismenak ukatzen dituzten datuak jaso, sinismen horiekin funtzionatzen jarraitzen dugu".

Aierdik dio aurreiritziek jarreretan eta portaeretan dutela eragina, eta horrek bidea ematen diela diskriminazio edo umiliazio egoerei. "Ezin ditugu inpunitate eremuak baimendu, eta ikasi behar dugu horrelakoetan erantzuten". Proposatzen du gaia ateratzen denean datuak emateko eta desegokiak diren jarreren edo iritzien aurrean ausardia izateko eta esateko: "Nire aurrean ez". Erantzuten ikasi egiten dela esan zuen, eta entrenatu egin behar dela.

Zurrumurruen Kontrako Sareko soziologo Xabier Aierdi Elgetan hitzaldia egiten. L.Z.

"GURE GIZARTEAN DITUGUN ARAZOAK KONPONTZEKO BEHAR DUGU IMMIGRAZIOA"

"Errealitatetik urrun dago gure pertzepzioa"

NORA UGARTEBURU
SOS ARRAZAKERIA

NORA UGARTEBURU

Elgetarra Debagoieneko SOS Arrazakeria taldeko arduraduna da. Garrantzitsua deritzo okerreko zurrumurruei aurre egiteko jendeak datu errealak ezagutzeari.

Kalean kontrakoa entzuten bada ere, Elgetan gizarte laguntzak jasotzen dituztenen artean gehiago dira bertakoak kanpotik etorritakoak baino.

Uste hori dago bai Elgetan, bai bailaran eta bai EAEn, baina datuetara jo besterik ez dago. Askotan, gure pertzepzioa errealitatetik urrun dago.

Zer argitu behar da?

Ez dago bereziki etorkinendako den diru laguntzarik. Diru sarrerak bermatzeko errenta edo RGI, esaterako, diru sarreren araberakoa da. Bestalde, badaude bestelako gizarte laguntzak eta horietako asko beste kolektibo batzuetara bideratuta daude. Nahikoa da datuetara jotzea.

"Irudikatu nahi duguna egia oso gordina eta mingarria da"

RAFA HERCE BANARTE ANTZERKI TALDEKO KIDEA

'Elgetaren gainbehera' antzezlana ari da forma hartzen

Rafa Herce. L.Z.

L.Z. ELGETA

Hasita daude Intxortako erresistentziarekin lotutako ekitaldiak. Jendetsuenetarikoa, seguruenik, domekako errekreazio lan berria izango da.

Gertaera historikoak kontatuko dituen antzezlana prest duzue?

Bai. Nerea Villa hasita zegoen lanean, eta hark egindakotik abiatuta *Elgetaren gainbehera* sortu dugu. Nire egitekoa antzezlan forma ematea izan da.

Zein da mezu nagusia?

Helburua da jendeak ulertzea zer gertatu zen Elgetan frontea jausi ondorengo egunetan. Gertaera batzuk dokumentatuta daude eta kontakizunaren bizkarrezurra dira. Antzezlanari jarraikortasun bat emateko, ordea, fikzioa ere badago baina ahalegindu gara errealitatetik ahalik eta gertuen mantentzen.

Zein itxura hartuko du Elgetak apirilaren 22an?

Faxistek okupatutako herri baten itxura hartuko du. Antzezlanak hiru ekitaldi ditu. Lehenengoan faxistak herrian sartu aurretiko uneak erakutsiko ditugu, eta herriaren ebakuazioa. Bigarren ekitaldian frankistak herrian sartu zireneko uneak irudikatuko ditugu: desfileak, ereserkiak, diskurtsoak, banderen igotzea udaletxeko balkoian... Horrela amaituko litzateke 1937ko apirilaren 24a. Ulertuta, ordea, gogorra izan daitekeela horrela amaitzea 40 urteko jausia egingo dugu eta Francoren heriotza ere ekarriko dugu gogora.

Erronka handia suposatzen du?

Gu ere amateurrak gara eta berezitasun handiak ditu lanak: kalean da, boluntarioekin, lan talde handia da ondo koordinatzeko... baina ahalegintzen ari gara gauzak ondo egiteko.

Haur Liburuaren Egunarekin lotutako ekintzak liburutegian

Gaur, barikua, *Ipuinen ordu* berezia egingo dute. Saioa bakarra izango da, 17:25ean.

Bestalde, gogoratu beharra dago apirilaren 30era arte dagoela zabalik artista liburuen lehiaketara lanak aurkezteko epea. Hogei bat neska-mutikok hartu zuten parte Aste Santu aurretik egindako eskulan tailerrean, eta nork bere sorkuntza aurkezteko aukera izango du orain. Gainerakoendako ere zabalik dago lehiaketa.

Azkenik, martitzenean, Herri Eskolako neska-mutikoek zerbitzuaren funtzionamendua bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute, bisita gidatua dute-eta liburutegira.

OHARRAK

Autobusa Iruñera

Bihar 15:00etan autobusa *Altsasukoak aske!* leloa duen manifestaziora joateko.

Mendi irteera etzi

Kantsatzekek Beasain-Murumendi-Beasain irteera egingo du domekan, 08:00etan.

Emakume taldea

Batzar irekia hilaren 17an, 18:30ean, udaletxean.

Odol-ateratzeak

Hilaren 16an, 18:00etan, odol-ateratzeak udaletxean.

Podologoa

Erretiratuendako kontsulta hilaren 19an. Txanda hartzeko: 943 76 80 77 (Nati).

600 PERTSONATIK GORA SORALUCEREN XXL SERIEA EZAGUTZEKO IZAN ZIREN ATE IREKIEN JARDUNALDIETAN

MARTXOAREN 10EAN AMAITU ZEN SORALUCEK ANTOLATUTAKO ASTEA. ASKOTARIKO JARDUEREZ BETETA EGON ZEN, ETA TAMAINA HANDIKO OSAGARRIENTZAT PENTSATUTAKO SOLUZIOEN GAMA BERRIA AURKEZTU ZITZAIEN BAZKIDEEI, ERRETIRATUEI, SENITARTEKOEI ETA BAITA HAMASEI HERRIALDETAKO 120 ENPRESEI.

Bergarako instalazioetara hurreratu ziren bisitariek hainbat aurkezpen jarraitzeko aukera izan zuten pisu eta tamaina handiko osagarrien fresaketa, mandrinaketa eta torneaketako eskakizunak asetzen dituzten produktu, teknologia eta soluzio berritzaile eguneratuenen inguruan.

Norabide horretan, SORALUCEk fresatzeko eta mandrinatzeko makinen zein tornu bertikalen gama zabala eskaintzen du pisu handiko aplikazio, funtzio anitzeko soluzio eta sistema automatizatuetarako, doitasuna eta moldakortasuna eskainiz tamaina handiko osagarrien mekanizazioan. Open House-n zehar soluzio hauetako batzuk erakutsi ziren:

• Mahai mugikorra duen portiko erako **SORALUCE PM 6000** makina, makinaren mekanizazio bolumena maximizatzen duena meatzaritza sektoreko osagarrien fresaketa eta mandrinaketa lanetan.
• Zutabe mugikorra duen **SORALUCE FXR-W 20000** fresatzeko eta mandrinatzeko makina. Funtzio anitzekoa da eta 10 m-tik gorako diametrodun tuneladoren osagarriak fresatu eta mandrinatzera bideratua dago.
• **SORALUCE VTC 8000** torneatze bertikaleko zentroa, hainbat funtzio garatzeko gaitasuna duena gas turbinen produkzio eta mantentze lanetarako.
• Zutabe mugikorra duen **SORALUCE FR 10000** funtzio anitzeko makina, moldakortasun maximoa eskaintzen duena eta piezaren lotualdi kopuru minimoa mekanizazio ingeniaritzako osagarrientzat.

Produktibitatea multifuntzioaren bitartez

SORALUCEk, jardunaldietan zehar, erakutsi zuen baita ere multifuntzio erako teknologia pisu handiko osagarriei aplikatuta.

Funtzio anitzeko makinek handitu egiten dute produktibitatea konplexutasun teknikoa duten piezen mekanizazioan. Makina indibidual bakarrak hainbat ebaketa prozesu eskaintzen ditu: besteak beste, torneaketa, fresaketa, mandrinaketa, zulaketa eta hariztaketa. Horrek ahalbidetzen du tamaina handiko eta hainbat formatako piezen produkzio efizientea egitea doitasunez. Beharrezkoa den lotualdi kopurua murriztu egiten da eta minimizatu egiten dira ziklo-denborak zein balizko erroreak. Gainera, doitasun handia lortzen da milimetro-ehuneneko tolerantziekin tamaina handiko piezetan, baita ehunka tona dituzten horietan ere.

Erakustaldiak zuzenean

Ate Irekien jardunaldietan zehar hainbat erakustaldi egin dira zuzenean, bai pisu handiko piezen mekanizazioak zein SORALUCEren teknologia aurreratuen ingurukoak:

DAS+ sistemaren bidezko produktibitatea: SORALUCEk patentatutako sistema honek makinaren zurruntasuna hobetzen du denbora errealean, mekanizazio gaitasuna handituz %300 arte, eta horrek murriztu egiten du birsortze efektuak sortutako ezegonkortasun klasikoa (chatter) mekanizazioan zehar.

Doikuntzak egiteko erraztasuna VISUP 3Dren bidez: Neurketak egiteko sistema berri bat, 3D ikusmeneko teknologietan oinarritzen dena, eta murriztu egiten dituena kalkuluak tamaina handiko pieza landugabeen ahokadura egokienaren eta lerrokatzearen zehazteko orduan.

Doitasuna RAM Balance-ren bitartez: SORALUCEk patentatutako sistema, hobetu egiten duena ahariaren ibilbidearen doitasun geometrikoa, bai bere ibilbide bertikalean zein zeharkakoan.

SORALUCE Digital Plataforma: Monitorizazio integralerako paketea, ahalbidetzen duena makinaren errendimendua hobetu eta prozesuen produktibitatea handitzea, aldi berean jarduera kostuak murriztuz.

Apirileko ohiko osoko bilkuraren bozketa unea. JOKIN BEREZIARTUA

Herri Eskolak herriari eman diona aztergai

Euskal Herriko Unibertsitateko ikerlari talde batekin lankidetza hitzarmena egitea onartu dute Antzuolako udal ordezkariek, aho batez. Izan ere, asmoa da soziokonstruktibismoaren pedagogiak herriari egin dion ekarpena aztertzea

M.A. /J.B. ANTZUOLA

Antzuolako Herri Eskola izan da protagonista apirileko ohiko osoko bilkuran, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetza hitzarmen bat onartu zuten-eta, aho batez. 2019an eta 2020an zehar garatuko duten ikerketa proiektua izango da.

Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriaren arabera, proiektu horren muina izango da Antzuolako eskolatik irtendako herritarrek herriari ze ekarpen egin dioten zehaztea. "Arlo ezberdinetako ikertzaileak sartu dituzte proiektuan: soziologoak matematikariak, psikologoak, irakasleak... guztiak elkarrekin, ikerketa egin gura dute. Hau da, Antzuolako eskolan ibilitako ikasleek zein ekarpen egin dioten herriari, Antzuolari, ikusi gura dute. Hau da, Herri Eskolak duen hezkuntza-metodologiak, soziokonstruktibismoaren pedagogiak, zein ezaugarri ematen dioen herriari", gaineratu zuen Kortabarria alkateak.

Proiektuari hasierako onarpena

Antzuolako Udalak abenduan jaso zuen lehen aldiz proiektuaren berri, eta EHUko ordezkariak abendutik urtarril amaierara bitartean aritu dira hari forma ematen. Udalean duela hiru aste jaso zuten lehenengo zirriborroa eta tarte horretan batzordean landu dute, Udalaren ekarpenak ere proiektuan jasota geratu daitezen. Epe kontuengatik, apirilaren 6ko osoko bilkuran onartu behar izan zuten lankidetza hitzarmena. "Ikertzaileen lana ordaintzeko diru laguntza eskatu behar izan dute. Izan ere, laguntza horiek Madrilen eskatzen dira eta bere prozesua eta epeak ditu. Horregatik eta berandu ez iristeko ekarri dugu hitzarmena, onartu zedin eta argi berdea izan zezan", azpimarratu du Kortabarria alkateak.

PROIEKTUAREN MUINA DA ESKOLATIK IRTEN DIRENEK HERRIARI EGIN DIOTEN EKARPENA JASOTZEA

Amaitzeko, alkateak nabarmendu zuen hitzarmena aho batez onartu izana garrantzitsua dela maila horretako proiektu batendako. "Antzuolako Udala osatzen dugun alderdi politikook jakitun gara zein altxor daukagun herrian. Eta metodologiari eusteko motibo bat EHUren ikerketa hau da. Izan ere, halako proiektuek ematen diote indarra Herri Eskolari; erreferentzia ere ematen diote-eta modu horretan. Guri, komeni zaigu horrelako proiektuak metodologia horri, soziokonstruktibismoari, Herri Eskolan eusteko".

Izan ere, soziokonstruktibismoaren pedagogia Antzuolako eskolan sustatu eta bultzatu zuten irakasleak, pixkanaka, erretiroa hartuz doaz. Eta bai eskolan eta baita Udalean ere pedagogiaren jarraikortasunaren gaineko kezka adierazi dute.

Arantzazuko erakusketan ikusgai dagoen argazkietako bat. PATXI MARTIN

Arantzazuko naturari eta arkitekturari keinu eginda

Patxi Martin argazkilari antzuolarraren lanak ikusgai daude Arantzazuko Gandiaga Topagunean, hilabetez

Maider Arregi ANTZUOLA

Gehienak zuri-beltzean, 13 argazkiz osatutako bilduma jarri du ikusgai Gandiaga Topagunean Patxi Martin antzuolarrak. Argazkilariaren lan guztiek Arantzazurekin lotura dute. Naturari eta arkitekturari keinua egiten dieten lanak direla dio: "Hiru urtean barrena ateratako argazkiak dira. Arantzazu eta Aizkorri-Aratz natura parkera sarri joaten naiz eta argazkiak ateratzeko aprobetxatu izan dut. Horrela, bada, Arantzazun bertan erakusketa jartzeko aukera suertatu zitzaidan. Egia esan, nire lanak erakusteko toki ezin hobea da Arantzazu". Aste Santurako ireki bazen ere erakusketa, apiril osoan zehar bisitatzeko aukera izango dute herritarrek. Orain arteko harrerarekin pozik azaldu da: "Nire lehen erakusketa izan da eta urduri nengoen. Baina jendeari gustatu egin zaio eta oso pozik nago".

Hamahiru lan

Martinen argazki erakusketan natura da protagonista nagusia; hala ere, arkitekturari keinu egiten dio eta Arantzazuren esanahia bikain jaso du.

REAL SOCIEDAD

Peru Rodriguez, txapeldun!

Realeko kadeteak Euskal Ligako txapeldunak dira. Tartean, Peru Rodriguez Larrañaga 16 urteko antzuolarra dago. Baina taldean beste bi debagoiendar ere badaude: Beñat Elkorobarrutia jokalaria eta Gorka Valle entrenatzailea; biak aretxabaletarrak dira. Liga bukatzeko bi partidu geratzen zaien arren, matematikoki ligako txapeldunak dira.

'Hirix': komunikazioa indartzeko aplikazioa

'Hirix' mugikorrerako aplikazioa martxan jartzeko dena prest du Antzuolako Udalak. Helburua da herritarren eta Udalaren arteko komunikazioa sustatzea. Baina baita herritarrek komertzioekin eta elkarteekin harreman zuzena edukitzea ere

Maider Arregi ANTZUOLA

Hirix aplikazioa landu du Antzuolako Udalak. Mugikorrerako aplikazioa da eta antzuolarrek eguneroko informazioa eskuragarri izango dute. Hala, kexak eta iradokizunak ere bideratu ahal izango dituzte herritarrek.

Hirix aplikazioak herriko komertzio txikia bultzatzeko balio izango duela azaldu du Hezkuntza zinegotzi Mikel Bargielak. "Herriko informazioa aurkituko dugu aplikazioan: komertzioak, puntu interesgarriak, telefonoak, Udalaren eta elkarteen gaineko informazioa... horrez gain, erabiltzaileek aukera izango dute Udalarekin harreman zuzena izateko eta pertsona konkretu batzuekin harremana izateko. Baita iradokizunak egiteko ere, besteak beste".

Baina, zer da *Hirix* aplikazioa? Udalerri bateko herritarren arteko komunikazio plataforma bat da *Hirix*.

Antzuolaren gaineko informazio orokorra eta eguneroko informazio praktikoa jasoko du aplikazioak; eta ez Udalarena bakarrik, elkarteek ere euren lekua daukate *Hirix*-en; baita herriko komertzioek ere. Horrekin batera, Bargielak argitu du herritarren partaidetza sustatzeko tresna bezala ere jaio dela *Hirix*. "Plataformak bi helburu nagusi ditu: batetik, herriko informazioa jasoko du, aipatu bezala; baina, bestetik, herritarren arteko komunikazioa erraztuko du eta modu honetan parte hartzea bultzatuko da. Herritarren eta komertzioen zein elkarteen arteko komunikazio kanala izango da, alegia", argitu du Bargiela zinegotziak.

Mikel Bargiela zinegotzia *Hirix* aplikazioa mugikorrean duela. MAIDER ARREGI

Diptikoak, postontzian

Antzuolarrek aste honetan etxeko postontzian jasoko duten diptikoak informazio guztia batuko du. Eta apiril ostean jarriko da martxan aplikazioa. Antzuolako Udala, baina, aplikazioa herritarrei azaltzeko eta dituzten zalantzak argitzeko prest azaldu da.

IOS eta Android

Hirix aplikazioa IOS eta Android sistemendako erabilgarri dago. Hurrengo urratsa herritarrek poliki-poliki erabiltzen hastea dela diote arduradunek. "Edozein zalantza edo arazo izanez gero, guregana lasai jo dezakete herritarrek", argitu du.

'Ahotik bihotzera', ahozkotasunaren transmisioaren jaia

Ahotik bihotzera ipuin maratoiaren 5. edizioa apirilaren 15ean, domekan, ospatuko da. Antzuolako kaleak bertsoz, ipuinez eta musikaz jantziko dira. Parte hartzeko dei egin dute antolatzaileek, eta herritarrak ipuinak edo istorioak kontatzera animatzeko eskatu dute.

Egun osoko jaia izango da. Hala, eguerdian, 13:00etatik 14:30era bitartean, ipuin eta bertso poteoa egingo da herrian zehar. Arratsaldean, berriz, 18:30etik aurrera, ipuin eta bertso maratoia egingo da Torresoroa aretoan. "Ahozko tradizioaren festan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, entzutera etorriaz, besterik ez bada ere. Eta... kontatzera animatuko bazina? Animatu! Virginia Imaz prest dago laguntzeko, guri esatea besterik ez duzu". Interesa dutenek 943 76 62 46 telefonoan eman dezakete izena.

Saharako errefuxiatuen aldeko erakusketa eta jaia

Andoni Lubaki argazkilariak Saharako errefuxiatuen kanpalekuetan bizitakoa eta erretratatutakoa kontatuko du martitzenean, apirilaren 17an, egingo den solasaldian –Olaran etxean, 18:30ean–. Eta Saharako egoera islatzen duen argazki bilduma ikusgai jarriko du, gainera, Olaranen bertan: *Sahara, 40 urteko erbesteratzea*. Erakusketa ikusteko aukera izango da apirilaren 21ean eta 22an 18:30etik 20:00etara bitartean.

Bestalde, Oporrak Bakean programari laguntza emateko asmoz, apirilaren 20an Saharako gastronomia protagonista izango den jaia egingo da, 19:30ean, Zurrategin. "Pintxoak eta datilak dastatzeko aukera izango da. Batzen den dirua udan haurrak Arrasateko aterpetxe batera ekartzeko izango da", azaldu dute Anelkar eta Sagiri elkarteetako kideek.

Landatxopek urteko batzarra egingo du bihar arratsaldean

Apirilaren 14an, zapatua, Landatxope erretiratu eta pentsiodunen elkarteak urteko batzar orokorra egingo du, Olaranen, 17:00etan. Besteak beste, 2017ko ekitaldiaren memoria, kontuen aurkezpena eta onarpena eta 2018ko egitaraua eta aurrekontua izango dira aztergai. Gainera, zuzendaritza batzordearen zati bat berritu egingo dute.

Udaleku irekietan izena emateko epea zabalik dago

Aurtengo udaleku irekiak uztailaren 2tik 12ra bitartean egingo dira. Izena emateko epea zabalik dago apirilaren 21era arte. Kuota arrunta 45,64 eurokoa da eta familia ugariek 30,42 euro ordaindu beharko dute. Laguntza ekonomikoen onuradunek edo langabezian dauden gurasoek: 10,14 euro. Informazio gehiago, udaletxeko bulegoan.

HARIRA
GOIENA TELEBISTA
APIRILAREN 17AN, MARTITZENEAN,
21:00ETAN ETA 23:30EAN
ANTZUOLA AZTERGAI, UDAL ORDEZKARIEKIN:
BEÑARDO KORTABARRIA, ALKATEA (EH BILDU) BASILI ORMAZABAL (EAJ)
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUTA
UDABERRIKO PROGRAMAZIO BERRIA
LAGUNTZAILEA:
Markiegi
goiena
Zu hemen zaude.

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

Tasatuak ere alokatu daitezke aurrerantzean

Etxebizitza tasatua erosi zutenek saltzeko aukera baino ez zuten lehen, beharra izanez gero. Aurrerantzean, baina, alokatu ere egin ahal izango dituzte. Martxoko osoko bilkuran hartu zuten erabakia, aho batez. Pentsiodunen eskaerak ere onartu zituzten

Oihana Elortza OÑATI

Baldintza berriak betez gero, aurrerantzean alokatu ere egin ahal izango dituzte jabeek arrazoi pertsonalengatik hutsik utzi dituzten etxebizitza tasatuak.

Hamaika urte pasa dira 2007an Oñatiko udal etxebizitza tasatuen ordenantza onartu zenetik. Horrek, batez ere, etxebizitza horien salmenta arautzen zuen, baina ez zuen kontuan hartzen alokairuan jartzea. Orain, baina, horien alokairua sustatzeko, ordenantza aldatzea onartu du udalbatzak, aho batez.

Ugarkaldeko etxebizitza tasatuak. AMAIA TXINTXURRETA

Aldaketa

Udal etxebizitza tasatuen ordenantza indarrean jarri zenetik hamarkada oso bat pasa da dagoeneko, eta tokatu zaien herritar batzuen bizitzaren egoera aldatu egin da; salmenta egin zenetik, beste kokapen edo beste etxebizitza handiago batera joateko beharra izan dute, adibidez. Horregatik, esleitutako etxebizitza tasatua erabili ezinik gelditu dira batzuk, eta, horri inolako errentagarritasunik ateratzeko ahalmen barik, berriaren finantziazioan lagundu ahal izateko baldin bada ere.

Egoera berri hori ez zen aurreikusten orain arte indarrean egon den udal ordenantzan. Izan ere, nahiz eta salmentak araututa egon, ez zuen alokairua kontuan hartzen. Martxoko osoko bilkuran, baina, ordenantza aldatzea onartu zuen udalbatzak, aho batez, eta, aldaketa horretan, alokairuan jartzeko baldintzak zehaztu dituzte. "Esleipendunak etxebizitza hori erabili ezin eta saldu gura izanez gero kontenplatzen zen, baina ez alokatzea. Eta orain, aukera hori jaso dugu", zehaztu du Irati Etxeberriak, Hirigintza zinegotziak.

Ugarkalden, Otadui zuhaiztian eta San Martinen daude udal etxebizitza tasatuak Oñatin.

DIRU SARRERA ETA HILEROKO GEHIENEZKO ERRENTA DIRA BETE BEHAR DIREN BALDINTZAK

Baldintzak

2007an udal etxebizitza tasatuen ordenantza herrian onartu zenetik, Legebiltzarrak Etxebizitza Legea onartu zuen, eta horrek alokairuaren aldeko apustu garbia egiten zuen. Bide horretan, Euskal Administrazio guztiei deitzen zien, gainera, udal politikak alokairura bultzatzeko. Beraz, Oñatiren kasuan etxebizitza tasaturen bat hutsik geratzeko arriskuan baldin badago, jabeari alokatzeko aukera ematea erabaki dute, betiere, Udalaren baimen zehatzen baldintzak betetzen badituzte eta ordenantza aldaketan arautzen diren ezaugarri berriak betetzen badira. Hauek dira, esaterako, bete beharreko ezaugarrietako bi, Irati Etxeberriak azaldu duenez: "Maizterrak edo etxebizitza alokairuan hartzen duenak ezingo du urteko 40.000 euroko diru sarrera gainditu elkarbizitza unitate osoa kontuan izanda, eta alokairuagatik errenta kopurua hilero gehienez ere 400 eurokoa izango da". Etxeberriak gaineratu du horren harira baldintza horiek bermatzen dutela etxebizitza hori merkatu librera atera beharrean, eginkizun sozial bat ematea.

Izan ere, ikusi dute salgai dauden etxe tasatuak saltzea kosta egiten dela, eta alokairuaren aukera jarri nahi izan dute. "Badago kasuistika bat bizitzako egoera aldatu eta etxebizitza hori saldu beharra izan duten lagun horiek arazoak izatea salmenta burutzeko eta alokairuan jartzeko aukera ematen zaie ordenantzaren aldaketa honekin", esan du Hirigintza zinegotziak.

Pentsiodunak

Martxoko osoko bilkuran herriko pentsiodunak izan ziren aretoan, eta euren eskaerekin bat egiteko eskatu zieten udalbatza osatzen duten zinegotziei; esate baterako, gutxieneko pentsioa 1.080 euro izatea onartzea. EH Bilduk eta EAJk bat egin zuten eskaerekin eta aho batez onartu zuten mozioa.

Eguenetan eman daiteke izena ekainaren 10eko giza katerako

Altubeko mendatean bi kilometro beteko ditu herriko Gure Esku Dago taldeak, eta 1.000 lagun behar ditu

O.E. OÑATI

Ekainaren 10ean Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen giza katea egingo du Gure Esku Dago ekimenak. Oñatiko taldeak bat egin du egitasmoarekin eta Altube mendateko bi kilometro betetzeko erronka hartu du. Horretarako, 1.000 lagun behar ditu eta dagoeneko ireki zu izena emateko epea. Parte hartzeko, Gure Esku Dagok Kale Barrian duen lokalean eman behar da izena. Eguenetan egongo dira han izen-abizenak jasotzen, 18:30etik 20:00etara

Ituna

Giza katean parte hartzeko konpromisoaz gain, Herritarren Ituna betetzekoa ere hartu du herriko Gure Esku Dago taldeak. *2019 arrazoi erabakitzeko* lelopean, erabakitzeko eskubidearen aldeko ahalik eta arrazoi gehien batu gura dituzte. Horretarako, ekitaldi bat baino gehiago antolatu dituzte. Lehena, gainera, hilabete honetan bertan izango da, ziurrenik. Maiatzean, berriz, batzen dituzten arrazoiak kaleratzeko festa bat egitea pentsatuta dute.

Euskaraldiaren ospakizuna lotzeko bilera, martitzenean

Euskaraldia antolatzeko lantalde ezberdinak antolatzen eta osatzen hasita daude. Datorren martitzenean, apirilak 17, egingo dute hurrengo bilera, eta bertan, ahalik eta esparru gehienetako eragileen parte-hartzea bermatu gura dute. Bilera irekia Udal Euskaltegian izango da, 18:30ean. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

OHARRAK

Inaugurazioa

Lagun Leku elkarteak Eltzian duen lokal berria inauguratuko du hilaren 20an, 18:00etatik 20:00etara.

Aretxabaletarrak

Oñatin bizi diren aretxabaletarrek bazkaria egingo dute maiatzaren 5ean. Izena emateko: 678 21 59 48 (Rosa) / 648 19 10 37 (Miren). Azken eguna, apirilaren 29a.

O.E.

Baimenik barik ezin ibili

Azkenaldian, motorzaleekin arazoak izan dira Aloña inguruan; hori dela eta, mendian motorrean zein autoan ibiltzeko baimenik ez dutenek ezin dutela ibili gogorarazteko kartelak jarri ditu Gipuzkoako Aldundiak hainbat tokitan. Argazkikoa, adibidez, Kortakogain parean dago, harrobi zaharrera joateko bidean. Baina badira gehiago mendian gora.

Urgain Errekalde herri eskolako eraikinaren sarrera kanpotik. O.E.

Urgain Errekaldeko sotoko hezetasuna kenduko dute

Sotoko hezetasuna kentzeko lanek hiru hilabete iraungo dute eta ekainean hasiko dituzte. Hezkuntza Sailak eta Udalak hartuko dituzte euren gain obrak. Sei gela txiki, psikomotrizitate eta gimnasiarako gelak eta erabilera anitzeko espazioa egongo dira

Oihana Elortza OÑATI

Aspaldiko kontua da Urgain Errekaldeko sotoan hezetasun arazoak daudela. Bada, udan egingo dituzte obrak arazo hori konpontzeko. Ekainaren 1ean hasiko dituzte lanak eta 2018-2019 ikasturtea hasi orduko bukatuta egongo dira.

Espazioa

Errekaldeko Herri Eskolako sotoan gimnasia egiteko gela izan du ikastetxeak eta jolas orduetan jolas egiteko espazio moduan ere erabili izan du. Ikastetxeaz gain, baina, herriko eragile batzuek ere erabili izan dute toki hori; esaterako, herriko hainbat musika taldek eta Oñatz dantza taldeak. Denak kexatu izan dira beti hezetasun arazoaz.

Orain, lanak egin ostean, itxura berria izango du sotoak. "Aldagela eta biltegi moduan erabiltzeko sei lokal txiki egongo dira. Adibidez, jangelako langileek aldagelak behar dituzte, baita garbitzaileek eta laguntzaileek ere. Horrez gain, psikomotrizitate eta gimnasio gela bana egongo dira eta erabilera anitzerako espazioa", azaldu du Urgain Errekaldeko zuzendariak, Ines Zubiak.

Kostua

Lan horien kostua Hezkuntza Sailak eta Udalak hartu dituzte euren gain. Baita aurretik teilatuan egindako lanena ere. 2017ko udazkenean Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean izan ziren Oñatiko Udaleko eta Urgain Errekaldeko ordezkariak eraikinaren berri ematen eta duen arazoari buruz berba egiten. Nerea Zubia Hezkuntza zinegotziak eta Ines Zubiak, biek adierazi dute pozik atera zirela bilera hartatik, baina orain jaso dute baieztapena. Hala, Hezkuntza Sailak gastuen %60 ordainduko du eta Oñatiko Udalak, %40. Sotoko hezetasunak konpontzeko aurrekontua 329.154 euro da, teilatua inpermeabilizatzeko aurrekontua 57.650,45 euro eta teilatuan bizi-lerroa jartzekoa, 7.955 euro. Egingo diren obren gastuen %60 finantzatuko du Hezkuntza Sailak: 236.855,67 euro, guztira. Beste zatia Udalak hartuko du bere gain: 157.903,78 euro.

UDAKO OPORRETAN EGINGO DITUZTE LANAK ETA BUKATUTA EGONGO DIRA IKASTURTE BERRIRAKO

Duela bi agintaldi hasi ziren eraikineko leihoak aldatuz eraikina egokitzen. Aurreko legegintzalditik hona, eraikin osoko berogailu sistema berritu da eta leiho guztiak aldatu dira. Egokitzapenarekin amaitzea 2018ko aurrekontuetan sartu zuen Udal Gobernuak.

Eraikinaren egiturari eragiten dion hezetasun arazoa konpontzeko proiektua Izaskun Legaristi arkitektoak osatu zuen.

Garai bateko apustuei buruz idatzi du Azpiazuk

XVI. mendetik XIX.era bitartean egindako joko eta apustuekin lotutako pasarte asko bildu ditu

O.E. OÑATI

Juegos y apuestas en la historia de Euskal Herria (Txertoa) da Jose Antonio Azpiazu historialariak argitaratu duen azken liburua. "Ternua, merkataritza, esklaboak, emakumeak... izan dira orain arteko gaiak. Oraingoa ezberdina da, baina ez dut kasualitatez asmatu. Beti bezala, dokumentazioak, agiritegiko paperak eskatuta idatzi dut liburu hau", dio egileak.

Liburuan jasotzen da, adibidez, XVI. mendean hemengo merkatariek Anberesen egiten zituztela negozioak eta han egon zela Etxeberria abizena zuen euskaldun bat apustu berezi bat egiten: Anberestik Jerusalemera eta buelta zazpi hilabetetan egitea. "Baina XVI. mendean Gipuzkoan ere egiten ziren apustuak", dio Azpiazuk.

XVI. mendetik XIX.era arteko joko eta apustuak jaso ditu Azpiazuk liburu horretan, "azken mende hauetakoa ezagutzen delako, jasota dagoelako. Baina, nire harridurarako, apustuekin lotutako pasarte asko agertu dira paperetan". Apustuek diru aldetik ere debekua bazutela ikusi du Azpiazuk eta herri erdian egin ordez landa inguruetan egiten zituztela, isilean.

NIRE USTEZ

ESTEBAN IRUSTA

Ausarkeriak

Prentsan agertutako berriek egunero zeresan ugari ematen dizkigute.

Durangoko zinegotziek onartu zuten Fray Juan de Zumarraga herriko seme ospetsuaren izena kentzea ikastetxe bati eta bera jaiotako kaleari.

Beste berria Oriol Junkeras, katalan politikariari buruz idatzitako artikulu baten esaten zena da: *La violencia es consustancial a la fe*. Fede mota asko daude, baina kasu honetan kristau fedeari buruz idatzi zuen kazetariak, zeren Oriol Junkeras, publikoki, kristau bezala agertzen da; eta hori da kazetariak kritikatzen diona.

Badirudi kasu biak erlijioarekiko arnasten ari garen pentsaeraren haize-boladaren ondorioa direla.

Zumarragaren biografia ezagutzen duenari zaila egin behar zaio horrelako erabakia onartzea. Inork baino lan gehiago egin zuen indigenen bizi-maila eta kulturaren alde eta espainiar kolonoen jokabidearen kontra.

Horregatik jasan zituen Espainia aldetik gezurrezko testigantzak.

Gaur ere bai?

Postetxea berrantolatzeko lanetan dihardute

Postetxea berritzen ari dira. Orain arte bulegoa egon den espazioa berrantolatzeko lanak dira hasita daudenak. Dena bota dute. Erdiko bi zutabe baino ez dituzte mantendu. "Lehen, espazio itxia zen, baina gero, espazio handi eta zabala egongo da hemen. Mahaiak eta elektrizitate sarea ere berriak izango ditugu", dio Fernando Diaz langileak.

Obrek ekainera arte, behintzat, iraungo dute, eta, bitartean, lehengo *karteria* izango da bulego nagusia; Ibarra aldetik du sarrera. Herrian dauden sei postariek –landa esparrurako bi eta herrigunerako lau– Bergarako postetxean egiten dute orain sailkapen lana. Hara joaten dira goizero posta hartzera eta Oñatira heltzean hasten dira eguneroko banaketa egiten. Lanen bigarren fasea *karteria* berritzea izango da. Kanpoko harria garbitzeko asmoa ere badute.

Iaz Albok eta Kalañatasaray taldeek jokatu zuten txapelketa nagusiko finala. IMANOL SORIANO

Azken txanpan sartua da herriko futbol txapelketa

Bukatzear da herriko futbol txapelketaren aurtengo denboraldia. Gaur-gaurkoz, liga txapelketako eta kopako garaileak zeintzuk diren jakitea besterik ez da falta. Eta datozen asteburuetan erabakiko da hori, jokatzear den amaierako fasean

Iker Oñate OÑATI

Bukaerara heldua da herriko futbol txapelketa: ligako partidu sorta bukatuta, azken fasea jokatzea besterik ez zaie geratzen herriko taldeei. Horretan erabakiko da zeintzuk diren ligako eta kopako irabazleak. Zehatz esanda, lau taldek jardungo dute liga euren egin guran; eta kopa jokatzea dagokie gainerakoei –zortzi talde–. "Ezin esan nork irabaziko duen. Lehia handiko partiduak izango dira seguru; gogorrak, era berean", aitortu du Anton Sierrak, batzordeko kideak. Oraindik ez dakite noiz jokatuko dituzten finalak.

Gauzak horrela, kopako lehen kanporaketekin ekingo diote azken faseari. Eta asteburu honetan jokatuko dituzte lehen partiduak: Txuskos-Etxaixat –19:30ean– eta Harripe-Shatoken Moüra –21:00etan– norgehiagokak izango dira zapatuan; eta, Auschwitz-Kili Kolo –18:30ean– eta Kalañatasaray-Dollygan's –20:00etan– partiduak domekan. Ohi moduan, Oñatiko Azkoagain futbol zelaian jokatuko dituzte horiek.

Ligako garailea ere, zehazteke

Bestetik, datorren astean ekingo diete txapelketa nagusiko finalerdiei. Liga goiko postuetan bukatu dutenek jardungo dute nor baino nor gehiago –lau talde lehiatuko dira guztira–: Albok, Sasquatch, Zalaparta eta Hangola. Horiek apirilaren 20ko asteburuan dute lehen kanporaketa. "Ezin uka espero gabekorik izan dela. Eta belaunaldi aldaketa nabari da, besteak beste. Alegia, duela gutxi goian zeuden zenbait taldek ez dute gura moduko denboraldia egin", dio Sierrak.

ASTEBURUAN JOKATUKO DITUZTE KOPAKO LEHEN KANPORAKETAK AZKOAGAINEN

Eta herriko futbol txapelketa garaile barik dago oraindik. Finalen asteburuan erabakiko da hori –egun berean jokatuko dituzte kopako eta txapelketa nagusiko finalak–; oraindik ez dakite noiz izango diren horiek. "Aurreikuspenek diote maiatzaren 4ko asteburuan jokatuko direla. Baina baliteke aurreratzea. Aukerak aztertzen gabiltza", esan du txapelketako batzordeko kideak.

Parte hartzea, behera

Aurrera begira, batzordea ez da oso baikor: "Arrazoiak arrazoi, hainbat taldek gutxieneko jokalari kopurura heltzeko arazoak izan dituzte denboraldian zehar. Agian, lehentasuna beste gauza batzuei ematen hasiak dira parte hartzaileak. Esan daiteke indarra galtzen dabilela herriko futbol txapelketa". Hori horrela, hurrengo denboraldian zer egin aztertzea dagokie orain. Eta txapelketa bukatuta jarriko dira horretan.

Hainbat berrikuntzarekin dator udako kirol kanpaina

Osasunari loturiko jarduerak eskainiko dira, lehen aldiz. Horien artean dira k-stretcha, yoga eta pilatesa

I.O. OÑATI

Hastear da udako kirol kanpainarako izen-emate prozesua. Ohi bezala, zozketa bidez zehaztuko dira behin betiko izen-emate hitzorduak –eguna eta ordua–; apirilaren 23tik 27ra bitartean banatuko dira horiek. Eta bertan parte hartu gura duenak aurrez eman beharko du izena –apirilaren 16 eta 18 artean–.

Besteak beste, mini-tenisa, tenisa, squasha, eskupilota eta kirol askoren bueltakoak izango dituzte gozagai herriko neska-mutikoek. Eta aurten badira horiez apartekorik ere: osasunari loturiko zenbait jarduera –k-stretcha, yoga eta pilatesa– eskainiko dituzte lehen aldiz. "Osasunaren alorrari loturiko eskaintza beharra ikusi genuen. Kirolean ere bada lehiaz apartekorik", diote udako kirol kanpainaren antolatzaileek.

Bestalde, bi txanda izango dira –ohi baino bi gutxiago–, abuztuko eskaintza baztertu egin dute eta. "Oro har, neska-mutiko gutxik ematen zuen izena abuztuko ekintzetan. Hausnartu ostean, egokiago ikusi dugu indarrak uztaileko ekintzetara bideratzea ", argitu dute bultzatzaileek. Hain zuzen ere, ekainaren 25etik uztailaren 6ra egingo dute lehen txanda eta uztailaren 9tik 20ra bigarrena.

Begiraleendako izen-ematea

Bestetik, udako kirol kanpainan begirale izan gura duenak gaur du izena emateko azken eguna. Horretarako, udaletxera eroan beharko du eskaintzaren eskuorria –14:00ak arte dago zabalik–. Eta, txandekin hasi aurretik, formakuntza saioak izango dituzte zenbait kiroletako begiraleek.

Hainbat kontzertu izango dira gozagai gaztelekuan

Doinuz bustiko da gaztelekua asteburuan: hainbat kontzertu izango dira gozagai, gaurtik hasita. Hain zuzen ere, Arkada Social eta Txua musika taldeek irekiko dute asteburuko ekintza sorta; gaur dute kontzertua, 22:30ean hasita. Eta interesa duenak 8 euroren truke eskura dezake sarrera –ez dago aurrez erosteko aukerarik–.

Bestetik, *Haziak* diskoaren aurkezpen ekintzak emango dio jarraipena asteburuari. Zehatz esanda, Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen ekimenez sorturiko lana da: 25 urtetik beherako gazteei euren abestiak plazaratzeko aukera eskaini guran, maketa lehiaketa jarri zuen abian. Eta bertara aurkezturiko zenbait kantu biltzen ditu diskoak. Hala, horretan parte hartu duten hainbat izango dira gaztelekuko agertokian, bihar, 19:00etan hasita, musu truk.

'Linbo planeta' antzezlana ikusgai, Santa Anan

Linbo planeta bataiaturiko antzezlana izango da gozagai domekan, 18:00etan hasita, Santa Ana antzokian. Hala, oraingo honetan, 6 urtetik gorako neska mutikoei zuzenduriko ikuskizuna eraiki du Dejabu panpina laborategiak. Eta, ohi bezala, *www.bibe.me* webgunean eskura daitezke sarrerak, 3,50 euroren truke.

The Daltonics musika taldearen emanaldia, Pako tabernan

The Daltonics musika talde bilbotarraren kontzertua izango da gozagai domekan Pako tabernan; 19:30erako finkatu dute hasiera ordua. Zehatz esanda, rock garage musika estiloa erdigunean, egunerokoa dute jorragai euren kantuetan –umore kutsuaz landurikoa, betiere–. Eta urte hasieran grabatu dute euren lehen diskoa.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. Bi logelako etxebizitza ematen da errentan San Lorentzon. 626 25 75 95

104.ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bikote batek etxebizitza behar du errentan. Logela batekin edo birekin, nahikoa dugu. Aretxabaletan edo Eskoriatzan ere izan daiteke. 688 73 75 74 (Patricia)

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan, urgente. 615 33 23 07

Debagoiena. Etxebizitza behar dut errentan. Bi edo hiru logelakoa. Berdin da jantzi barik badago edo igogailurik ez badu ere. Hilean gehienez 500 euro ordain ditzaket. Lana daukat. 632 77 35 38

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Unibertsitatetik gertu logela ematen da errentan. 659 05 53 65

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Oñati. San Lorentzon garaje itxi bat errentan ematen da. 657 71 63 85

3. LOKALAK

301. ERRENTAN EMAN

ARRASATE ZOO
Martxan dagoen animalia denda eskualdatzen da.
605 70 67 21

Bergara. Aitziturri industriagunean, 500 metro koadroko pabiloia ematen da errentan. Bulegoa eta aldagelak. Bide nagusietarako sarrera irteera ezin hobeak. 687 73 33 90 (Miguel)

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ARRASATE
Ile-apaintzailea behar da.
615 79 05 75

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. 612 46 90 29

Arrasate. Garbiketan, nagusi eta umeak zaintzen edo tabernatan lan egingo nuke. Telefonoa: 602 68 40 89

Bergara. Etxeak garbituko nituzke orduka. Telefonoa: 943 25 38 64

Bergara. Ibargarai kalean garajea hartuko nuke errentan. 645 00 56 81

Bergara. Nagusiak zaindu nituzke, baita baserrietan ere. Geriatria titulua daukat. Horrez gain laborantzan eta igeltserotzan ere bai. 688 80 23 45

Debagoiena. Asteburuetan edo etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko eta abarrerako prest nago. Urgentea. 632 89 09 42

Debagoiena. Asteburutan edo orduka lan egingo nuke. Nagusiak zaintzen edo umeak. 662 02 45 80

Debagoiena. Emakume arduratsua zaintza, garbiketa eta abarretan lan egiteko gertu. Telefonoa: 656 23 00 07

Debagoiena. Emakume euskalduna prest nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluduna. 632 40 41 01

Debagoiena. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Arreta Soziosanitarioko titulududuna. 603 85 29 91

Debagoiena. Esperientziadun emakumezkoa nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu. 695 96 98 74

Debagoiena. Esperientziadun neska asteburuetan nagusiak zaintzen eta garbiketan aritzeko gertu. 697 86 49 00

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 52 urteko emakume esperientziaduna naiz eta legezko agiriak dauzkat. 662 14 55 07

Debagoiena. Etxean bertan bizitzen lan egingo nuke. Legezko agiriak dauzkat. 673 45 22 66

Debagoiena. Garbiketan esperientzia duan neska lanerako gertu. Sukalde laguntzaile moduan ere arituko nintzateke. Soziosanitario titulua ere badaukat. 634 84 41 94

Debagoiena. Gizona gertu atari, taberna edo etxeen garbiketak, banaketak, baserri lanak, etxeak hustu, nagusiei lagundu edota bestelako lanak egiteko. Autoa daukat. 632 77 35 38

Debagoiena. Mutil arduratsua gertu dago adineko pertsonak zaintzeko. 656 77 13 14

Debagoiena. Mutil gazte arduratsua lan egiteko gertu. Nagusiak zaintzen edo tabernari lanetan. 681 12 06 45

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen aritzeko gertu nago. 604 14 36 59

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen eta garbiketan aritzeko gertu nago. 643 43 64 11 (Andrea)

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen eta garbiketan aritzeko gertu nago. 643 43 63 96 (Julie)

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen eta garbiketan aritzeko gertu nago. 631 92 61 33 (Adriana)

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen, garbiketan, lisatzen eta etxeko lanetan jarduteko gertu nago. Baita orduka ere. Autoa daukat. 678 13 59 14

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen esperientzia duen neska lan egiteko gertu. 631 19 02 54

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke. Gidabaimena daukat. Banatzaile edo bestelako lanetan ere arituko nintzateke. 631 98 15 50

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila. Zaintza lanak eta garbiketak. 611 24 26 64

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaintzeko eta garbiketa, lisatze zein sukalde lanak egiteko gertu. Botikak ematen eta zaintza lanetan esperientzia. 631 86 83 69

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziaduna, lan bila. Autoa daukat. 626 44 46 49

Debagoiena. Neska gertu dendari moduan aritzeko. Esperientzia dut. Badakit euskaraz. 686 89 98 84

Debagoiena. Neska nagusi eta umeak zaintzeko gertu. 632 22 48 66

Debagoiena. Neska nagusiak eta umeak zaintzen, garbiketan eta abarrean aritzeko gertu. 666 80 48 11

Debagoiena. Soziosanitario titulua duen mutila pertsonak zaintzeko gertu. Aita Mennin lan egindakoa naiz. 634 94 31 59

6. MOTORRA

601. SALDU

VW T4 California Coach. Furgoneta salgai. 1996 urtekoa. 258.000 kilometro. Enbragea, korrea, eskapea, errotulak, balazta pastillak eta lau erroberak berriak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679 45 57 62

KOROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- Matxiategi, 117 m², 5 logela, igogailua, trastelekua. 235.000€.
- Zubiaurre, 120 m², duplexa, 4 logela, igogailua. 120.000€.
- Ibarra (Labegaraieta) 59 m², 3 logela, trastelekua. 78.000€.
- Masterreka, 66 m², 2 gela, terrazarekin, bizitzera sartzeko. 115.000€
- San Antonio, 69 m², 2 gela, igogailua, trastelekua, garajea. Bizitzera sartzeko 150.000€.
- Kruz Gallastegi, 65 m², 2 gela, igogailua, trastelekua. Bizitzera sartzeko. 185.000€.
- Eskusarte, 70 m², 2 gela, trastelekua, garajea barne. Bizitzera sartzeko. 122.859€.
- Irizar, 97 m², 3 gela, bizitzera sartzeko. 297.000€. Garajea aukeran.
- Artekale, 180 m² duplexa. 4 gela, igogailua. Bizitzera sartzeko. 373.500€.
- Baserria terrenoekin Agirre San Martin Auzoan. Kokapen ona. Kontsultatu prezioa.
- Aranerreka, 89 m², 3 gela, trastelekua, igogailua. 180.000€. Garajea aukeran.
- Masterreka, 108 m², 4 gela, trastelekua, terraza. Bizitzera sartzeko. 150.000€.
- Bizkarte, 70 m², 3 gela, egokitua, bista ederrak. Garaje itxia aukeran. 135.000€.
- Martoko, 75 m², 3 gela, igogailua, egokitua, berritzeko. Garaje itxia barne. 90.000€.
- Martoko, 77 m², igogailua, teilatua eta fatxada berritua. Bizitzera sartzeko. 110.000€.
- Irizar, 93 m², 3 gela, igogailua, balkoi handia. Berritzeko. 180.000€.
- Simon Arrieta, 79 m², 2 gela, igogailua, bizitzera sartzeko. 142.000€.
- Matxiategi, 90 m², 4 logela, terraza gainean. Igogailua. 190.000€.
- Simon Arrieta, 81 m², 2 log. igogailua. Garajea aukeran. 240.000€.
- Masterreka, 100 m², 2 logela. Igogailua. Bizitzera sartzeko. 185.000€.
- Martoko, 80 m², 3 logela, trastelekua, igogailua. Egokitua. 135.000€.
- Martzial Agirre (Espoloia), 84 m², 4 log. garajea barne. 208.000€.
- Irizar, 87 m², 3 logela, igogailua eta trastelekua. 160.000€.
- Madura, 57 m², 2 log. Berritua. Bizitzera sartzeko. 110.000€.
- Zubieta, 70 m², 3 logela. Bizitzera sartzeko. 137.000€.
- Bidekurutzeta, 54 m², 2 logela. Berritzeko. Igogailua du. 92.000€.

ANGIOZAR:
- Etxebizitza 60 m², 2 logela, erdoi berritua. Trastelekuarekin. 80.000€.
- Baserria 233 m². Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko baimena. 250.000€.

OSINTXU:
- Osintxu, 87 m², 3 logela, igogailua. 90.000€.
- Osintxu, 61 m². 3 logela eta trastelekua. BERRITZEKO. 43.000€. AUKERA ONA.
- Osintxu, 70 m². 2 logela eta igogailua. 62.000€. AUKERA ONA.
- Osintxu, 63 m². 3 logela, trastelekua. Berritzeko. Bista onak. 80.000€.

UBERA:
- Baserria eta 15 hektareako lursaila (pinuak eta zelaiak). 340.000€. Prezio jaitsiera.

ANTZUOLA:
- Antigua, 71 m², 3 logela. Ez du obra beharrik, trastelekua. 80.000€.
- Errekalde, 70 m², 2 logela. Ez du obrarik behar. Altzariak barne. 125.000€.
- Buztin-zuri, 65 m², 2 logela. Ez du obrarik behar. 180.000€. Garajea aukeran.
- Ibarrondo, 90 m², 3 logela. Trastelekua, egokitua. 190.000€. Garajea barne.
- Kalebarren, 85 m², 3 logela, igogailua. 170.000€.
- Errekalde, 65 m², 2 logela, igogailua. Aukera ona. 90.000€.
- Buztin-zuri, 65 m², 2 logela, igogailua, garajea barne. Bizitzera sartzeko. 180.000€.

ELGETA:
- Torrealdea 77 m², 3 logela. Berria. Oso ondo.
- San Roke, 72 m², 3 logela, igogailua. 174.300€.

Bulego teknikorako arduraduna behar da.

Makineria pertsonalizatua diseinatzen eta fabrikatzen duen Abadiñoko enpresa batek bulego teknikorako arduraduna behar du.

Eskatzen da:
- Gutxienez, 5 urteko ezagutza **Solid Works** eta Autocad programetan (Industria adarra).
- Pertsonak gestionatzeko dohaina.

Interesatuok helbide honetara bidali curriculuma: *info@cintastransportadorasvea.es*

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN

GOIENA

OPERA

'Mozkorra parregarri' *Zapatua, 22:00; domeka, 12:00 eta 19:00*

GOIENA

UDALATXEKO IGOERA

'Harmailatik' *Astelehena 21:30 eta 23:30*

EGUBAKOITZA, 13

00:30 Hemen Debagoiena
10:00 Hemen Debagoiena
11:00 Onein
11:30 Hemen Debagoiena
12:30 Hurretik: Marije Ugalde
13:00 Kantari
13:30 Hemen Debagoiena
14:30 Albisteak
14:45 Galdegazte: Aitor Arregi
15:15 Hemen Debagoiena
16:15 Albisteak
16:30 Onein
17:00 Albisteak
17:15 Amaia DJ
17:45 Albisteak
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Kantari 15
19:30 Dokumentala: Neskatoak
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Elikatu
21:30 Amaia DJ
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Galdegazte: Aitor Arregi
23:30 Amaia DJ
00:00 Hemen Debagoiena

ZAPATUA, 14

00:00 Hemen Debagoiena
09:00 1 2 3 Hemen da Miru
09:30 Kantari 18
10:00 Kantari 17
10:30 1 2 3 Hemen da Miru
11:00 Hemen Debagoiena
12:00 Harira: Eskoriatza
13:00 Adi! Iskanbila: Voltaia
13:30 Hurretik: Marije Ugalde
14:00 Galdegazte: Aitor Arregi
14:30 Dokumentala: Neskatoak
15:00 Hemen Debagoiena
16:00 Kulturrizketak: Urdangarin eta Ubeda
16:30 Kantari 18
17:30 Kantari 17
18:00 Galdegazte: Aitor Arregi
18:30 Elikatu
19:00 Asteari errepasoa
20:00 Kantari 17
20:30 Amaia DJ
21:00 Harira: Eskoriatza
22:00 Mozkorra parregarri
23:30 Kulturrizketak: Urdangarin eta Ubeda

DOMEKA, 15

00:00 Amaia DJ
00:30 Hurretik: Marije Ugalde
09:00 1 2 3 Hemen da Miru
09:30 Kantari 17
10:00 Kantari 18
10:30 1 2 3 Hemen da Miru
11:00 Galdegazte: Aitor Arregi
11:30 Amaia DJ
12:00 Pozkorra parregarri
13:30 Hemen Debagoiena
14:00 Elikatu
14:30 Kulturrizketak: Urdangarin eta Ubeda
15:00 Adi! Iskanbila: Voltaia
15:30 Galdegazte: Aitor Arregi
16:00 Amaia DJ
16:30 Kantari 17
17:00 Kantari 18
17:30 Hemen Debagoiena
18:30 Dokumentala: Neskatoak
19:00 Mozkorra parregarri
20:30 Dokumentala: Neskatoak
21:00 Hurretik: Marije Ugalde
21:30 Kulturrizketak
22:00 Asteari errepasoa
23:00 Harira: Eskoriatza

ASTEARTEA, 17

ANTZUOLA

'Harira'

21:00 / 23:30

EGUENA, 19

EUSKAL HERRIKO ITZULIA

'Barru

21:30 / 23:30

GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: ***goiena.eus/ telebista***

EGUAZTENA, 18



GOIENA

JULEN TELLERIA

'Galdegazte'

21:30; Egubakoitza, 23:00

EGUBAKOITZA, 20

EDARI BEGETALAK

'Elikatu'

21:00

"Zaila bada ere, Tokioko Olinpiar Jokoetan egotea da helburua"

MIKEL LINAZISORO ESKALATZAILEA

ESKALADA Eskalada ez da kirol olinpikoa, baina 2020an Tokion egingo dituzten Olinpiar Jokoetan Japoniak kirol jarduera hori babestu du; hogei onenak lehiatuko dira han

Mikel Linazisoro, Bergarako Santa Marina elizako horman eskalatzen. XABIER URZELAI

Xabier Urzelai BERGARA

Mikel Linazisorok (Bergara, 2000) bi urte ditu 2020an Tokion antolatuko dituzten Olinpiar Jokoetan egoteko. Denbora tarte horretan beste txapelketa asko izango ditu, prestatzen joateko, eta ondoren, hitzordurako sailkatzeko. Oraingoz, urrian, Buenos Airesen (Argentina) egingo duten Gazteen Olinpiar Jokoetarako sailkatuta dago; irailean eskuratu zuen txartela, Innsbrucken (Austria) jokatu zuten Munduko Txapelketan zortzigarren sailkatuta. Helburu zorrotz horiek, baina, ez dute aldatu eskaladarako sentitzen duen pasioa.

Mikel, 2018ak itxura polita du.

Bai, urtea txapelketez beteta dator, eta Gazteen Olinpiar Jokoetan lehiatzea erronka handia izango da.

2020an eskalada lehenengoz egongo da Olinpiar Jokoetan. Adinez momentu onean iritsiko zaizu hor egoteko aukera.

Tokion antolatuko dituzte urte horretako Olinpiar Jokoak, eta, halakoetan, antolatzaileek aukera izaten dute kirol jarduera bat babesteko. Japonian eskaladak indar handia du [Tokion 550.000 eskalatzaile inguru daude], eta, hala, eskalada aukeratu dute Olinpiar Jokoetan egoteko. Txapelketa ez da, baina, gainontzeko kirol modalitateetakoa modukoa izango. Hau da, munduko hogei onenak bakarrik izango dira Olinpiar Jokoetan. Dena ondo bidean, helburua da 2024an, Parisen, eskalada olinpiar joko bilakatzea.

Horrenbestez, bi urte barru munduko onenen artean egotea da helburua.

Tokion egon gura badut, bai. Horregatik diot oso zaila izango dela, nahiz eta ilusio horrekin egiten dugun lan. Errazagoa izango litzateke 2024an Parisen egotea, kirolari gehiagorendako tokia egongo delako.

Dagoeneko badakizue Olinpiar Jokoetan eskalatzaileek ze lan egin beharko duten.

Bai; hiru modalitate izango dira: boulderra, zailtasunekoa eta abiadurakoa. Lehenengo modalitatea soka barik da, distantzia motza eskalatu behar izaten da, eta eroriz gero koltxonetara erortzen zara. Bigarrena eskalada klasikoa da, sokarekin, eta hirugarrena, guretako, nahiko berria da, Estatu mailan askorik landu ez dena, abiadurakoa. Hamabost metroko horma ahalik eta azkarren eskalatzean dago gakoa.

Zelan lortzen duzue halako epe luzeei begira lan egitea?

Gauzak pausoz pauso egin behar dira, pentsa non dagoen Tokio 2020 edo Paris 2024. Helburuak urte bakoitzean zehaztu behar dira, eta bestelako txapelketak prestatu: Euskadikoa, Espainiakoa, Munduko Txapelketa... Aurten, esaterako, Buenos Aireskoa izango da erronka nagusia.

Azal iezaguzu zelakoa izan zen Gazteen Olinpiar Jokoetarako sailkapen fasea.

Irail erdialdean egin genuen Munduko Txapelketa, Innsbrucken, eta han hamahiru onenen artean sailkatu beharra zegoen, horiek zuten-eta Buenos Aireserako zuzeneko txartela. Egia esan, urduritasun handiko txapelketa izan zen, ez zen batere erraza izan, baina helburua lortuta itzuli ginen etxera, oso pozik [zortzigarren sailkatu zen han].

"BOULDERRA, ZAILTASUNA ETA ABIADURA IZANGO DIRA TXAPELKETAKO HIRU MODALITATEAK"

"TOKION HOGEI ESKALATZAILE BAINO EZ DIRA IZANGO LEHIAN, HORREGATIK DA ZAILA"

Zelan prestatzen dituzue halako txapelketak?

Urte hasieran, denboraldi osorako planifikazioa egiten dugu, eta gero, txapelketa bakoitzaren aurretik bi hilabetez lan espezifikoa egiten dugu.

Gazte-gaztetatik hasi zinen eskalatzen, eta segituan egin zenituen aurrerapauso handiak.

Bai. Gaztetan, eskiatu egiten nuen gehiago, eta anaiaren eski entrenatzaileak, behin, eskalatzera eraman gintuen. Bada, familia osoak gustua hartu genion eskaladari, eta gaur arte.

Zaletasunez egiten zenuen kirol jardueran helburu zorrotzak dituzu orain. Eskaladarekin berdin gozatzen jarraitzen duzu?

Egia da gaztetan jolas bat zena gaur egun gauza serioagoa izatera pasa dela, baina bai, eskaladarekin izugarri gozatzen dut.

Eskalatzeko, haitza ala boulderra?

Uf, galdera zaila da hori. Araotzen etxean moduan sentitzen naiz, baina boulderrean ere gustura ibiltzen naiz. Mendian eskalatzen duzunean zuretako eskalatzen duzu, eta boulderra gehiago lotzen dut txapelketekin, baina bietan ibiltzen naiz gustura.

Debagoieneko Eskalatzaileak Taldeko kide zara aspaldidanik.

Bai, gazte-gaztetan hasi nintzen Josena Mulasekin eta konpainiarekin eskalatzen, eta, gaur egun Bilbora entrenatzera sarritan joaten banaiz ere, sasoi batean Arrasaten eta gaur egun Aretxabaletan ere entrenatzen naiz, bertako boulderretan.

Ikustea baino ez dago eskalada gazteen artean ze arrakasta izaten dabilen...

Nik uste dut gazteendako kirol jarduera aproposa dela. Lagunartean ibiltzen zara, mendian edo kiroldegian ibil zaitezke... Debagoienean geroago eta harrobi handiagoa dago, baina atzean hainbat lagun lanean dabiltzalako.

Txapelketetan buru-belarri ibili eta gero, oporretara ere katu oinak eramaten dituen horietakoa zara?

Bai, zalantza barik. Normalean, oporretan ere eskalatzea izaten dugu buruan, horren arabera antolatzen ditugu. Ilusioa dut Japoniara joateko oporretan, eta, zorte apur batekin, ea aurten joan gaitezkeen. Eskaladan aurreratuta dagoen lurraldea da hura.

Martitzenean egin zuten lasterketaren aurkezpena, Musakolako Estrella tabernan. ENEKO AZURMENDI

Eguraldi ona izango dute lokatzari aurre egiteko

MENDI LASTERKETA Domekan egingo dute Arrasate-Udalatx lasterketaren laugarren edizioa, eta, ibilbideari dagokionez, ez da berrikuntzarik egongo; 21 kilometroko lasterketa izango da, 1.200 metroko desnibel positiboarekin; 354 korrikalari ariko dira

Eneko Azurmendi ARRASATE

Azken orduko baja garrantzitsu batzuk ere izango dira. "Azken orduko baja pare bat daude eta pena apur bat ematen digu. Batetik, Jokin Lizeaga. Asturiasen istripua izan berri du eta ezin izango da etorri. Beraz, animoak emateko aprobetxatzen dut. Bestalde, iaz hirugarren sailkatu zen Maddi Mujika ere ezingo da etorri", azaldu du Ganix Lasak, antolakuntzako kideak.

Lasterketa irabazteko borrokan hainbat korrikalari ikusten ditu Lasak, eta lehia estua aurreikusten du, bai emakumezkoetan, baita gizonezkoetan ere. "Nahia Quincoces eta Ainhoa Lendinez ikusten ditugu indartsuen; Isa Casado ere etorriko da, eta, urte batzuk lehiatzen ibili gabe egon den arren, ilusioa egiten digu bera hemen izateak. Bestalde, gizonezkoetan, etxekoa den Aritz Kortabarriak beti podiuma zapaltzen du, eta Euskadiko Selekzioan dabilen Julen Larruzea ere etorriko da. Ikusiko dugu zer gertatzen den", adierazi du antolakuntzako kideak.

Lokatza protagonista

Lasterketa egunerako eguraldi ona aurreikusten bada ere, astean zehar botatako euri-jasek eragina izango dutela uste du Eneko Urrizalkik, antolakuntzako kideak, eta korrikalariei dei egin die lasterketako zenbait puntutan lokatzarekin tentuz jokatzeko. "Lokatz ugari egongo da. Beraz, Udalatxeko jaitsieran eta meategietako bidean kontuz ibiltzeko eskatu gura diegu korrikalariei. Lasterketa ez dute ez galduko ez irabaziko puntu horietan. Ibilbidearen gainontzeko zatia korrika egiteko moduan egongo da", dio.

LEHIA ESTUA AURREIKUSTEN DUTE ANTOLATZAILEEK, BAI EMAKUMEZKOETAN, BAI GIZONEZKOETAN

Eskerrak

Aurkezpen ekitaldia baliatu dute babesle guztiei eta boluntario lanetan aritzen diren guztiei eskerrak emateko. Izan ere, azpimarratu dute haien laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzatekeela lasterketa aurrera eramatea. Bide batez, Estrella tabernari ere eskerrak eman nahi izan dizkiote, aurkezpena bertan egiteko aukera emateagatik.

Animatzera joateko deia

Azkenik, herritar guztiei lasterketaz gozatzera joateko dei egin diete. Hori bai, ahal bada, Udalara oinez joateko gomendioa egin dute: "Bestela, arazoak egon daitezke autoekin".

Lasterketa 10:00etan abiatuko da domekan, Arrasateko plazatik, eta dortsalak jasotzeko aukera, gaur egun osoan zehar eta bihar goizean izango dute parte hartzaileek, Intersport Loramendi dendan. Domekan ere izango da horretarako aukera, lasterketa hasi aurretik, plazan bertan.

ASTE BUKAERAKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EUSKAL LIGA, EMAKUM.

Leintz Arizm.-Bizkerre
Zapatua. 16:00. Ibarra.

OHOREZKO ERREGIONA.

Amaikak Bat-Aretxaba.
Zapatua. 16:30. Deba.
Touring-Mondra
Domeka. 15:30. Errenteri.
Bergara-Hondarribia
Zapatua. 16:15. Agorros.

ERREGIONAL PREFERE.

Soraluze-Antzuola
Zapatua. 17:00. Soraluze.
Tolosa-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Tolosa.
Aloña Mendi-Mondra
Domeka. 16:30. Azkoagai.

LEHEN ERREG. IGOERA

Segura goierri-Aloña
Domeka. 16:00. Segura.

EMAKUMEZK. IGOERA.

Hondarribia-Bergara
Domeka. 16:30. Hondarri.

EMAKU. KOPA.

Aloña Mendi-Tolosa
Zapatua. 15:30. Azkoagai.

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL MAILA

Aretx. UDA-Muskiz
Zapatua. 17:30. Ibarra.

EUSKADIKO TXAPELK.

Mondrat-Atxurre Bakio
Zapatua. 17:30. Musakola
Eskoriatza-Gora Bilbao
Zapatua. 18:00. M. Muñoz

GIPUZKOAKO LIGA

Universidad Burgos-MU
Zapatua. 17:30. Burgos.

SASKIBALOIA

EBA

Universidad Burgos-MU
Zapatua. 17:30. Burgos.

GIPUZKOAKO LEHEN M.

Aloña Mendi-C. Aitona
Zapatua. 18:00. Zubikoa.
A. Ointxe!-Alde Zaharra
Domeka. 17:30. Musakol.

GIP. BIGARREN MAILA

Oiartzun-Bergara Sora.
Zapatua. 16:30. Oiartzun.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Eskoriatza-Astigarraga
Gaur. 20:15 Man. Muñoz.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Ordizia-Fagor Indust.
Domeka. 12:15. Ordizia.
Ford Mugarri-Corazon.
Domeka. 12:15. Iturripe.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Sesiñ. Aloña-Leizaran
Domeka. 11:30. Zubikoa.
Soraluce BKE-H.Eibar
Domeka. 11:30. Labegar.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Kanpanzar ART-Bilbo
Zapatua. 17:00. Mojategi.

MENDIKO LASTERKETA

ARRASATE-UDALATX

Domeka. 10:00. Arrasate.

Abesbatzak protagonista Udaberriko Musikaldian

Bihar hasi eta maiatzaren 6a bitartean Arrasateko Udalak hamalaugarrenez antolatu duen musika zikloan, Debagoieneko eta kanpoko taldeen askotariko kontzertuekin gozatzeko aukera izango da hainbat aretotan; emanaldi guztiak doan izango dira

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Aurtengo egitarauan "abesbatzek pisu handia" izango dutela azaldu du Arrasateko Kultura teknikari Karmelo Alberdik. "Herriko Goikobalu abesbatzaz gainera, Oñatiko Ganbara abesbatza eta Landarbaso abesbatza izango dira. Ez dira, baina, abesbatzen ohiko emanaldiak izango, errepertorio bitxiekin datoz guztiak; proposamen gehienak, gainera, hainbat taldek elkarlanean landutakoak dira".

Aurten, sei emanaldi izango dira –hiru asteburutan banatuta–, guztiak doan, eta herriko agertoki ezberdinetan –San Juan Bataiatzailea parrokian, Kulturateko areto nagusian eta San Frantzisko elizan–. "Emanaldi guztiak, bat izan ezik, 20:00etan izango dira; apirilaren 22an Zaruk bikoteak eskainiko duena 13:00etarako proposatu dugu Kulturateko areto nagusian", gaineratu du Alberdik.

Ander Lipus, Ander Berrojalbiz eta Maider Lopez. KHANTORIA

Goikobalurekin estreinatuko da

Urtero moduan, herriko Goikobalu Abesbatza eta Arrasate Musikaleko Orkestra gonbidatu dituzte; ez dute, baina, orain arte bezala elkarrekin eskainiko emanaldia. Argentinako Opus 4 abesbatzarekin zabalduko du egitaraua, bihar, zapatua, Goikobaluk, –ikus 17. orria–; eta herriko musika eskolako orkestra apirilaren 28an izango da. Eskolako zuzendari Marta Izagirrek aurkezpenean azaldu zuenez, "askotariko film ezagunen soinu bandekin osatutako erraz entzuteko errepertorioa prestatu dute".

Domekan, irakurketa musikatua

Ikusleak asetzeko helburuarekin, askotariko saio bitxiak daude; eta horietako bat da domekan Erdi Aroko musika lantzen duen Khantoria taldeko Ander Berrojalbizek eta Maider Lopez Delgadok Ander Lipus aktorearekin batera Kulturateko areto nagusian 20:00etan eskainiko duten *Herejeen alaba* ikuskizuna. Berrojalbiz: "Durangoko sorginen istorioa jasotzen du Sarrionandiaren *Kristalezko bihotza* narrazioak eta hortik abiatuta atera dut *Herejeen alaba* saiakera. Khantoriaren ikur den Erdi Aroko musikaren gainean, Lipusek Sarrionandiaren eta nire liburuko hainbat pasarte irakurriko ditu. Oso erraz ulertzeko eta jarraitzeko emanaldia da".

'Vera Mongolfiera' egitasmoari laguntzeko 'crowdfunding'-a

Italieraz argitaratu zuten haurrentzako ipuin liburua gazteleraz argitaratzeko dirua biltzen ari dira orain

A. A. BERGARA

Usoa Mendikute Bergarako ilustratzaileak eta Sardiniako Cinzia Tuveri idazleak elkarlanean sortu duten liburua da *Vera Mongolfiera*. "8 urte ditu neskatilak eta buruan amets asko. Globo baten itxura duen tamaina handi eta koloretako ilea du; horregatik, beste haurren isekak jasotzen ditu. Neskatilaren burugogorkeriak, zorte pixka batek eta ile ederrak bere amets handiena egia bihurtzera eramango dute: itsasoaz harago zer ote dagoen bilatu eta ikasi beharreko gauzez beteriko mundu bat, alegia", dio Mendikutek.

4 eta 7 urteko irakurleentzat dela gaineratu du ilustratzaileak, eta biodibertsitatearen gaia adieraztea eta haurrengan miatzeko jakingura eta imajinatzeko ahalmena sortzeko asmoa duela kontatzen duten istorioak.

Vera Mongolfiera pertsonaia. U. M.

Gaztelerazko bertsioa, laster

Harrera ona izan du liburuak, eta beste hizkuntza batzuetan argitaratzeko asmoa dute. Hasteko, gazteleraz atera gura dute, eta, horretarako, diru bilketa abiatu dute *Verkami.com* plataforma digitalean.

Agortu egin dira 'Arantzan-Zu?' tailerretarako tokiak

Arantzazu Gaur Fundazioak Jorge Oteiza Fundazio-Museoarekin elkarlanean haurrei eskainitako arkitektura lantegi bi egingo dituzte bihar, zapatua, eta apirilaren 28an, Arantzazuko Gandiaga Topagunean.

Arantzazuko Basilikako arkitekto Francisco J. Saenz de Oizaren eta Luis Laorgaren lana aztertzea dute helburu, eta Arantzazun izan ziren beste artistekin izan zuten harremana ezagutaraztea. Basilikaren interpretazio maketa bat ere egingo dute. Aurrekoak bezala, Donostiako Maushaus estudioak gidatuko ditu lantegi horiek.

2013an hasi ziren Gandiaga Topagunean halako ekimenak antolatzen. "Arrakasta handia izaten dute; oraingoan ere Euskal Herriko txoko askotatik etorriko dira. Hirugarren bat antolatzeko aukera aztertzen ari gara", diote antolatzaileek.

BARRU

UDABERRIKO BERRIA

GOIENA TELEBISTA, 'EUSKADI MURIAS TALDEA ITZULIAN'
APIRILAREN 19AN, EGUENA, 21:30EAN ETA 23:30EAN
APIRILAK 22AN, DOMEKA, 18:30EAN ETA 20:30EAN
ARGAZKIA: ANGEL EZKURRA

goiena
Zu hemen zaude.

Ibarreko gazte orkestra bik elkarrekin emanaldia

Apirileko Musika zikloaren barruan, Arrasate Musikaleko gazte orkestrak eta Bergarako Musika Eskolako gazte orkestrak kontzertua eskainiko dute apirilaren 16an, astelehena, 19:30ean, Bergarako Seminarixoan; guztiontzako zabalik dago

Aitziber Aranburuzabala BERGARA

Ikasleak motibatzeko eta euren arteko harremanak sendotzeko helburuarekin adostu zuten iaz, aurtengo ikasturtean Bergarako Musika Eskolako eta Arrasate Musikaleko gazte orkestrek elkarrekin kontzertuak eskaintzea.

Bi emanaldi egingo dituzte: lehenengoa Bergarako Seminarixoan astelehenean 19:30ean izango da eta Arrasaten egingo dute bigarrena, maiatzaren 7an.

Bergarako Musika Eskolako gazte orkestraren emanaldi bat. BME

60 musikari taularen gainean

11 eta 16 urte bitarteko gazteak igoko dira Seminarixoko agertoki gainera; guztira, 60 lagun. "Arrasatetik 24 lagun joango dira eta askotariko musika tresnekin osatutako taldea da", dio Arrasate Musikaleko irakasle Edorta Aiastuik, eta zera gaineratu du Bergarako Musika Eskolako Gazte orkestrako zuzendari Jose Migel Laskurainek: "Guk ere askotariko musika tresnak eramango ditugu: biolinak, biolak, txeloak, flautak, oboeak, klarineteak, tronpetak eta perkusioa. Aberasgarria da ikasleek beste eskoletan nola lan egiten duten ikustea eta beste talde batzuen doinuak entzutea. Dibertitzen diren bitartean, gauza asko ikasteko bidea ematen diete halako topaketek".

Bakarka eta elkarrekin

Ordubeteko iraupena izango du saioak eta hiru zatitan banatuta egongo da: bakarka jardungo dute lehenengo, eta elkarrekin borobilduko dute gero saioa. Laskurainek dio anfitrioiak izango direla jotzen lehenengoak:

MUSIKA KLASIKOKO PIEZAK ETA SOINU BANDAK ARRASATEKO ETA BERGARAKO 60 MUSIKARIREN ESKUTIK

"Bost piezarekin osatu dugu gure eskaintza; soinu bandak eta musika klasikoko pieza ezagunekin".

Aiastuiren esanetan, hiru eskainiko dituzte Arrasatekoek: "Damia Salesen *Tok de la Trompeta*-rekin hasiko gara, *Lord of the rings* filmaren soinu banda gero eta Lady Gagaren *Poker face* kantua bukatzeko. Elkarrekin, gero, *Game of Thrones* filmaren soinu banda joko dugu".

Guztiontzako daude ateak zabalik; 18:30etik aurrera hartu ahalko dira gonbidapenak Seminarixoko leihatilan.

Belaunaldi bereko bi musikari atzoko 'Kulturrizketak' saioan

Mikel Urdangarin eta Imanol Ubeda musikariak izan ziren protagonista denboraldiko azken aurreko saioan

A. A. ARRASATE

Tolosakoa da Imanol Ubeda eta zornotzarra Mikel Urdangarin; biak ala biak eskarmentu handiko abeslariak. Bakarlari moduan abiatu zuen ibilbidea bizkaitarrak, eta Deabruak Teilatuetan eta Bide Ertzean taldearekin jardun du Ubedak; gaur egun, Don Inorrez proiektu berriarekin ari da buru-belarri.

